

Euskal telebista lokalak



Telebista lokalak Euskal Herrian

EDORTA ARANA / PATXI AZPILLAGA / BEATRIZ NARBAIZA



Iritzi bilketa: Euskal telebista lokalen oraina eta geroa

- OIHANE AGIRRE • IÑAKI ALZAGA
- IBAN BENGOETXEA • PEDRO CASTILLO
- SONIA DIAZ DE CORCUERA • RAMON ZALLO

Gaiak

Arrasateko kooperatiba esperientzia. Kontraesanak eta erronkak

UNAI DEL BURGO

Egunen gurpilean

LAURA MINTEGI

- JUAN INAZIO HARTSUAGA • PATXI GAZTELUMENDI

JAKiN

141


martxoa
apirila
2004



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Zenbaki honetan

► 7

Gai nagusia

Euskal telebista lokalak

Telebista lokalak Euskal Herrian ► 11

EDORTA ARANA / PATXI AZPILLAGA / BEATRIZ NARBAIZA

Iritzi bilketa: Euskal telebista lokalaren oraina eta geroa ► 53

OIHANE AGIRRE / IÑAKI ALZAGA / IBAN BENGOETXEA /
PEDRO CASTILLO / SONIA DIAZ DE CORCUERA / RAMON ZALLO

Gaiak

Arrasateko kooperatiba esperientziaren kontraesanak eta
erronkak. Hurbilketa dialektikoa ► 81
UNAI DEL BURGO

Egunen gurpilean

LAURA MINTEGI • JUAN INAZIO HARTSUAGA ► 99
• PATXI GAZTELUMENDI

© JAKIN

JAKINeko idazlanean inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07


jakin@jakingunea.com

2004ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,10 €
KANPOAN		
Harpidetza	45 €	—
Ale arrunta	7,50 €	10,50 €

Jabegoa: Jakinkizunak, S.L. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

Summary



Local Basque television stations

- *Local television stations in the Basque Country*

The professors Edorta Arana, Patxi Azpillaga and Beatriz Narbaiza provide us with a detailed study of the general panorama with regard to the local television sector in the Basque Country. A sector which burst onto the scene in the nineties, but which very soon had to face the hard reality of the world of media and business. The authors focus on an analysis of the following aspects: a list and type of local Basque television stations; the nature and purpose of the networks; their breaking into the media groups in the sector; economics and types of financing of the local television stations; an analysis of the programming; the presence of the Basque language in the programming; and, lastly, observations regarding the regulations governing the local television sector. ► EDORTA ARANA / PATXI AZPILLAGA / BEATRIZ NARBAIZA

- *Opinions regarding the present and future of local Basque television stations*

The magazine has approached a series of professionals who work in the local television sector, with the aim of gathering together their opinions about the present and future of local television stations in the Basque Country. In particular, the questions which they have drawn up regarding the following points: an assessment of the current panorama with regard to local Basque television stations; the communicative strategy or model identifying Basque television stations; relations existing between local television stations and large networks or media groups; the presence of specific local content in the programming of the local television stations; an assessment of the space taken up by the Basque language in local programming; the relationship existing between the new Spanish regulations and what is offered by local television stations; and the influence of digitalization in terms of the sector's future. ► *Various Authors*


Contradictions and challenges facing the cooperative experience of Mondragon. A dialectical approach

Unai del Burgo, a graduate in Economic Law, provides a critical analysis of the cooperative experience of Mondragon from a theoretical and doctrinal point of view. The author argues that the general change in the world economic context (the demand for competition, opening of new markets, globalization of the economy, etc.), has inevitably given rise to a weakening and relaxation of the philosophical fundamentals of the cooperative movement developed in Mondragon. ▶ UNAI DEL BURGO



News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Juan Inazio Hartsuaga, Patxi Gaztelumendi and Laura Mintegi. ▶ *Various Authors*



e skuetan duzun hau bigarren aldiko 141. zenbakia da eta 2004. urteko bigarrena.

Zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean euskal telebista lokalei buruzko azterketari heldu diogu. Izan ere, 90eko hamarkadatik hona asko ugaritu da telebista lokalen kopurua. Gaur egun izaera eta mota ezberdineko berrogeita hamar telebista lokaletik gora ari da emititzen Euskal Herrian, eta euskal ikus-entzuleen eguneroko «telebista-menuan» gero eta eragin handiagoa daukate. Telebista lokala ez da, dagoeneko, euskal komunikazio sistemaren baitan bigarren mailako eragilea, haren atal esanguratsua baizik. Maila komunikatiboan ez ezik, baita maila ekonomiko, sozial eta instituzionalean ere.

Bi atalek osatzen dute sail monografiko hau. Lehenik, Edorta Arana, Patxi Azpillaga eta Beatriz Narbaiza EHUko irakasleen artikulua dator euskal telebista lokalen izaeraren eta egoeraren azterketa orokor eta zabal batekin, eta, ondoren, gaiaren inguruan burututako iritzi bilketa bat.

Artikulu nagusian, beraz, Arana, Azpillaga eta Narbaizak Euskal Herriko telebista lokalen panorama orokorra aurkezten digute, sektore horren baitako alderdi esanguratsu guztiak jorratuz: euskal telebista lokalen zerrenda eta tipologia; telebista kateen izaera eta helburuak; komunikazio talde handien sarrera telebista lokalen sektorean; telebista lokalen ekonomia eta finantziazioa; programazioaren azterketa; euskarak programazioetan duen presentziaren azterketa eta balorazioa; eta, azkenik, telebista

lokalet buruzko araudiaren inguruko ohar eta hausnarketak.

Sailaren bigarren atala osatzeko, telebista lokalaren sektorean lanean diharduten hainbat lagunengana jo dugu euskal telebista lokalen panoramaren inguruan iritzieske. Honako auziak planteatu dizkiegu: euskal telebista lokalen berezko identitate ezaugarriak; komunikazio talde handien eta telebista lokalen arteko harremana; euskarak telebista lokalen programazioan duen lekuaren balorazioa; administrazioaren zereginaren eta sektorea zuzentzen duen araudiaren inguruko gogoeta. Azkenean, sei lagunek erantzun digute.

Bestalde, *Gaiak* sailean, Arrasateko kooperatiba esperientziari buruzko Unai del Burgoren artikulua dakarkigu. Bertan, esperientzia horren azterketa kritikoa egiten du: egilearen iritziz, mundu mailako testuinguru ekonomikoaren baitako aldaketa orokorrek (lehiakortasuna, merkatu berriak, globalizazioa...) Arrasateko lankidetzaren mugimenduen hasierako oinarri filosofikoak ahuldu eta malgutu dituzte.

Egunen gurpilean sailean bi sinadura berri ditugu aurretan: Juan Inazio Hartsuagak heldu dio soziolinguistikaren alorrari, eta Patxi Gaztelumendik Telepolis atalari. Literaturari buruzko atala, iaz bezala, Laura Mintegik jorratuko du. Bestalde, zenbaki honetan ez da Kultura atala osatu, baina aurrerantzean berriro ere agertuko da. ¶

Euskal telebista lokalak



Telebista lokalak Euskal Herrian

EDORTA ARANA / PATXI AZPILLAGA / BEATRIZ NARBAIZA • 11

Iritzi bilketa:

Euskal telebista lokalen oraina eta geroa

OIHANE AGIRRE / IÑAKI ALZAGA / IBAN BENGOTXEA /
PEDRO CASTILLO / SONIA DIAZ DE CORCUERA / RAMON ZALLO • 53

Telebista lokalak Euskal Herrian



E. ARANA / P. AZPILLAGA / B. NARBAIZA



Sarrera

Aldaketa garaiak bizi ditu telebista lokalak Euskal Herrian, Hegoaldean behinik behin¹. Duela hamasei-hamazazpi bat urte aitzindaria izan zen Plentzia Telebista emititzen hasi zenetik hona bilakaera gorabeheratsua izan du telebista mota honek gurean. Indar handiz sortu zen, baina komunikabide honen garapenean jarritako esperantzek laster egin zuten topo uste baino errealitate gordina goarekin. Garestia izanik prentsaekin edota iratiarekin alderatuta, gizarte ekimenek eta mugimenduek, baita euskararen ingurukoek ere, zailtasunak izan dituzte, salbuespenak salbuespen, telebista lokala euren komunikazio estrategietara biltzeko. Udalek, berriz, oso indar eta baliabide gutxirekin sustatu dituzte telebista lokalak: euskal udalek, gutxi batzuek izan ezik, ez dute inoiz gizarte-komunikaziorako joera handirik erakutsi, eta telebistagintzan beste inon baino ageriago geratu da hutsune edo ardura eza hura. Erakunde autonomikoen ere, EITB edo balizko nafar telebista bat eraikitzea lehenetsiz, bazter batera utzi dituzte telebista lokalak. Enpresa-ekimenak, bestalde, urriak izan dira: Euskal Herriko udalerrak ez dira biztanle kopu-

1 **Edorta Arana, Patxi Azpillaga eta Beatriz Narbaiza** EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko irakasleak dira.

ru handikoak, hiriburuak izan ezik, eta telebistaren merkatu lokalak zailak dira egituratzeko —arazoak beste telebista eskaintzen artean nabarmentzeko; arazoak baita hartze egokia ziurtatzeko, antenak egokitu egin behar baitira; entzuleria neurtzeko modurik eza—. Baldintza horietan gutxi izan dira telebista lokalean dirua inbertitzera auzartu diren euskal enpresaburuak. Bada, azkenik, telebista lokaletan gertatutako geldiuena eta oro har sektore honen azpigarapena Euskal Herrian esplikatzen duen beste faktore bat ere: legedi eza edo, hobeto esanda, legeen garapen eta aplikazio eza. Horrek ziurgabetasun handia ekarri du telebistagintza lokalera, eta ez du ez batzuen ez besteen ekimenak bideratzen lagundu.

Azken urteotan, ordea, berpiztu egin da telebista lokalekiko interesa. Lege-hutsunea aprobetxatuz komunikazio-taldeak (Vocento-Correo, Prisa...) indartsu sartu dira telebista lokaletan ere, krisiak jota zeuden estazioak erosiz edo berriak ezarriz, baina betiere haiek kateetan bilduz. Kablearen eta Interneten hedapenak, halaber, aukera berriak ekarri ditu programazio lokalak zabaldu eta hedatzeko. Lurrazalez emititzen ere han-hemenka jatorri ezberdineko ekimen berriak sortu dira, bizitasuna ekarri dutenak telebista lokalen eremura. Espainiako gobernuak, azkenik, telebista lokalentzako frekuentzia plana iragarri du; lizentziak, ordea, digitalean bakarrik emititzeko izango omen dira eta hartara telebista lokalek ezin izango bide dute aurrerantzean gaur arte bezala modu analogikoan emititzen jarraitu. Mugimendu hauekin guztiekin panorama berri bat ari da margotzen Euskal Herriko telebistagintza lokalean, eragile berriekin, helburu berriekin, joko arau berriekin, egitura berriekin, erronka berriekin.

Panorama hori nolakoa den ezagutzeko, «Telebistagintza lokalaren panorama Euskal Herrian» (Arana, Azpillaga eta Narbaiza, 2003) izeneko ikerketan landutako zenbait datu eta emaitza² aurkezten ditugu artikuluko honetan, funtsean Hego Euskal Herriko telebista lokalen egitura, ekonomia-oinarri eta lege-markoari dagozkionak.

Ezbairik gabe, telebistagintza lokalak aktore marjinala izateari utzi dio Euskal Herriko komunikazioaren ere-

muan. Baina bidean, tamalez, espazio lokalean jarduteagatik gertuko komunikazioaren eragile gisa zetxezkion zenbait ezaugarri ere galdu egin ditu. Izan ere, gertutasuna oinarri, esparru lokala, komunikazioaren ikuspegitik behintzat, aukera eremu bat bezala ikusi izan da betidanik, beste komunikazio mota bat eraikitzea posible egin zezakeena, estatu edo nazioarte mailako komunikabideek hedatzen duten komunikazio ereduaren aurrean. Aukera hori elementu ezberdinen gainean oinarrituko litzateke, hala nola hurbileko edukiak eskaintzeko ahalmenean, gizartearen nahi eta beharretara (komunikatiboak, linguistikoak, politikoak...) egokituagoak; edo baita gizartearen parte-hartzea komunikazio prozesuetan sustatzeko gaitasunean ere, ahotsa izateko aukera eman bezala komunikazioa jasotzera mugatuta dauden gizarte sektore eta taldeei.

Baina komunikabide lokalen aukerak tokian tokiko bizitza kulturala, politikoa eta ekonomikoa suspertzeko ezerezean gera daitezke, eta baita aukera zena mehatxu ere bihurtu, baldin eta haiek errepikatu egiten badituzte eremu zabalagoetako komunikazio egitura eta ereduak. Eta horixe da, zoritxarrez, neurri handi batean, Euskal Herriko telebistagintza lokalean gertatzen ari dena: euskara suspertzeko tresna baino gaztelania hedatzeko bidea bihurtzen ari baita, ahots berriak sustatzen baino komunikazioaren kontzentrazioa talde handien eskuetan areagotzen ari dena, eduki propioak eta gertukoak sortu eta hedatu baino estatu eta nazioarteko kateetako programak beste behin ere hedatzeko bidea. Zer testuingurutan gertatu da hau guztia? Zer-nolako aukerak daude prozesua berbidertzeko?

T elebista lokala Hego Euskal Herrian

Gaur egun, eta emisioa egiteko modu ezberdinak aintzat hartuta —lurrazaleko analogikoa, kablea eta Internet—, berrogeita hamarretik gora telebista lokal ditugu ikusgai Euskal Herrian, 1. taulan ikus daitekeen bezala³.

1. taula: Euskal Herriko telebista lokalen zerrenda

Araba (5)

<i>Izena</i>	<i>Nondik</i>	<i>Noiztik</i>	<i>Nola</i>	<i>Taldea</i>	<i>Audientzia potentziala</i>
Alava 7	Gasteiz	2002	Uhinez	Correo	228.921
Alto Nervión TV	Laudio	2000	Uhinez	Localia	45.000
Canal 58	Laudio	1998	Uhinez	Ez	20.453
Canal Gasteiz	Gasteiz	1996	Uh./Kab.	Localia	286.387
Televitoria	Gasteiz	1995	Uhinez	Cad. Local	228.921

Bizkaia (11)

<i>Izena</i>	<i>Nondik</i>	<i>Noiztik</i>	<i>Nola</i>	<i>Taldea</i>	<i>Aud. pot.</i>
Bilbovisión	Bilbo	2000	Uh./Kab.	Correo	1.100.000
Canal Bizkaia	Bilbo	1997	Uh./Kab.	Localia	1.000.000
Durango TB	Durango	2002	Uhinez	Ez	90.495
Ermuko TB (desagertua)	Ermua	1995- -2001	Kablez	Ez	6.000
Gran Bilbao TV	Bilbo	2000 2003	Uhinez	Ez	865.799
Plentzia TB	Plentzia	1987	Uhinez	Ez	3.643
Proyección TV	Bilbo	2000	Internet	Ez	-
Tele 7	Barakaldo	1989	Uh./Kab.	Ez	865.799
Telebilbao	Bilbo	1992	Uh./Kab.	C. Local	1.200.000
Urdaibai TB	Gernika	2002	Uhinez	Ez	30.000
Uribe Kosta TB	Sopela	2000	Uhinez	Ez	100.000

Gipuzkoa (16)

<i>Izena</i>	<i>Nondik</i>	<i>Noiztik</i>	<i>Nola</i>	<i>Taldea</i>	<i>Aud. pot.</i>
GoiTB	Arrasate	2000	Uh./Kab.	Ez	62.010
Goierri	Lazkao	2003	Uh./Kab.	Ez	63.510
Ikas TB	Donostia	1994	Uhinez	Ez	311.398
Jaitxiki TB	Zarautz	92-95 2001	Uhinez	Ez	21.078
Kaito TB	Azpeitia	1986	Uhinez	Ez	25.000
Kanal On	Andoain	1988	Uhinez	Ez	13.814
Kateberria	Eibar	1994	Uhinez	Ez	28.219
Localia Gipuzkoa	Donostia	2001	Uh./Kab.	Localia	311.398
Mendaro TB	Mendaro	2002	Uh./Kab.	Localia	1.500
Oarso TB	Oiartzun	1996	Uhinez	Ez	60.000
Teledonosti	Donostia	1994	Uh./Kab.	Correo	500.000
Telesko	Eskoriatza	1985	Kablez	Ez	3.925
Txingudi TB	Irun	1997	Uh./Kab.	Localia	85.000
Urnieteta TB	Urnieteta	1992	Uh./Kab.	Ez	5.518
Urola TB	Urretxu	1998	Uhinez	Ez	25.000
Zarauzko TB	Zarautz	1991	Uh./Kab.	Ez	28.000

Nafarroa (22)

<i>Izena</i>	<i>Nondik</i>	<i>Noiztik</i>	<i>Nola</i>	<i>Taldea</i>	<i>Aud. pot.</i>
Buñuel TV	Buñuel	1996	Kablez	Ez	2.387
C.L. de Funes	Funes	1997	Kablez	Ez	2.150
C.L. Mendavia	Mendabia		Kablez	Ez	3.568
C.L. Arguedas	Arguedas	1996	Kablez	Ez	2.278
Canal 4	Iruñea	1994	Uh./Kab.	Localia	500.000
Canal 6	Iruñea	2002	Uh./Kab.	Promecal	500.000
Canal Peralta TV	Peralta	1999	Kablez	Ez	4.602
Popular TV Navarra	Iruñea	2003	Uhinez	COPE	500.000
Ribaforada TV	Ribaforada	1999	Kablez	Ez	3.095
Tafalla TV	Tafalla	1996	Uhinez	C. Local	10.172
Tele Marcilla	Martzilla	1996	Kablez	Ez	2.337
Telecadreita	Cadreita	2001	Kablez	Ez	1.867
Telecaparroso	Caparroso	1996	Kablez	Ez	2.383
Telecascante	Cascante	1995	Kablez	Ez	3.900
Telefusti	Fustiñana	1996	Kablez	Ez	2.312
Telerrrebote	San Adrian	1996	Kablez	Ez	5.106
Ttipi-ttapa TB	Bera	1997	Uhinez	Ez	15.000
TV Cirvonera	Cintruenigo	1997	Kablez	Ez	5.313
TV de Milagro	Milagro	1996	Kablez	Ez	2.573
TV Villafranca	Alesbes	1996	Kablez	Ez	2.691
Valtierra TV	Valtierra	1996	Kablez	Ez	2.508
Xaloa TB	Elizondo	1997	Uhinez	Ez	20.000

Iparraldea (4)⁴

<i>Izena</i>	<i>Nondik</i>	<i>Noiztik</i>	<i>Nola</i>	<i>Taldea</i>	<i>Aud. pot.</i>
Angelu	Angelu	2000	Internet	Ez	-
Baiona	Baiona	2000	Internet	Ez	-
Kanaldude TB	Baigorri	2000- -2002	Uhinez	Ez	-
TVPI	Don. Lohizune	1999	Internet	Ez	-

Lehenengo begiratuan, zerrenda luzea dirudi aurrekoak, eta bat baino gehiago harrিতuta ere geratuko da jakitean halako telebista lokal kopurua dagoela Hego Euskal Herrian. Baina estatu mailan edo beste autonomia erkidego batzuetan dagoen telebista kopurua rekin alderatuta, alderantziz, laburtzat ere jo daiteke. Izan ere, AIMC elkar-teak 2002ko urrian argitara emandako erroldan, 897 telebista jaso zituen estatu osorako: horietatik 283 Andaluzian, 122 Valentzian eta 115 Katalunian leudeke, batzuk aipatzearren⁵. Berdin gertatzen da, 2. taulan erakusten

den bezala, telebista duen herri kopurua Hego Euskal Herrian dagoen udalerri kopuru osoarekin alderatzen badugu.


2. taula: telebista lokala duten udalerrien biztanleria

<i>Biztanleria</i>	<i>Udalerriak</i>	<i>Telebista duten udalerriak</i>	<i>Telebista duten udalerriak %</i>	<i>Telebista lokalen % segmentuko</i>
1-1.000	300	0	0	0
1.001-2.000	73	2	2,74	3,92
2.001-5.000	70	17	24,29	33,33
5.001-20.000	59	13	22,03	27,45
20.001-50.000	11	3	27,27	5,88
50.001-100.000	4	2	50	3,92
100.001-250.000	4	4	100	17,65
>250.000	1	1	100	7,84
<i>Guztira</i>	522	42	8,05	100

Taula horren arabera, Hego Euskal Herrian dauden 522 udalerrietatik 42tan bakarrik, alegia %8an, dago telebista lokalik; edo, bestela esanda, Hego Euskal Herriko udalerrietatik %92an ez dago oraindik telebista lokalik. Asko ala gutxi dira, orduan, Euskal Herriko telebista lokalak? Galdera horrek ez du hemen erantzunik, ez baitago parametro bat bakarrik zeinaren arabera neurtu kopuruaren egokitasuna. Izan ere, udalerri guztietan egon behariko litzateke berezko telebista lokalik? Ala gertuko komunikazioa benetan sustatuko duen telebista lokal sare sostengarria izatea litzateke erronka?

Edozein modutan, aurreko datuek ez dute esan nahi herri gehienetan telebista lokalik ikusten ez denik, ezta gutxiago ere. Alderantziz, nekez aurkituko da Hego Euskal Herrian telebista lokalik ikusten ez den herririk. Ez ordea, jakina, herriko bertako telebista, beste nonbaitekoa baizik. Hain zuzen ere, azken urteotan telebista lokal askok hedapen eremua zabaltzera jo dute gero eta indar handiagoarekin. Batzuetan eskualdera, eremu horrek Euskal Herrian duen izaera eta tradizioari jarraituz. Baina bestetan, hortik haratago, probintziaraino ere, 1. grafikoan erakusten den bezala.

1. grafikoa: telebista lokalen hedadura eremua



Ha reman zuzena dago udalerrietako biztanleria-kopuruaren eta bertan telebista izan ala ez izatearen artean. Hartara, mila biztanletik beherako herrietan telebistarik ez dagoela ikus daiteke. Aldiz, 50.000 eta 100.000 biztanle bitartekoetan, udalerrietatik erdietan dago telebista lokal propioa, eta 100.000 biztanletik gorakoetan, berriz, guztietan. Are gehiago, hiriburu ez diren herrietatik bitan bakarrik dago telebista bat baino gehiago. Hiriburuetan, aldiz, guztietan daude bi edo hiru telebista lokal. Egia da, zenbaki absolututan, herri txikietan daudela kokatuta telebista lokal gehienak (haien erdia inguru bost eta hogei mila biztanle dituzten udalerrietan), eta haien erreferentzia eta hedapen eremua ere lokala dela; baina diferentzia ikaragarriak daude horien eta besteen artean, bai hedapean, bai programazioetan, baita, nola ez, baliabide ekonomikoetan ere⁶.

Telebista lokalen emisio eremua zabaltzeko joeraren atzean arrazoi ekonomiko eta kulturalak daude aldi berean: telebistaren kostu eta finantza behar handiek horretara bultzatzen dute, batetik, eta eskualdeak zein probintziak biek hala biek badute gurean hedapen hura justifikatzeko moduko oinarri sozial eta kulturalik. Gaur egun, ordea, badago diferentziarik telebista mota batzuetatik bestetara: eskualdera zabaldu diren telebista gehienek kasuan eskualdea bera da, bere osotasunean, erreferentzia informatibo eta komunikatibo nagusia; alegia, eskualdeko telebista

bihurtu dira telebista lokalak, baina lokalen gertutasun ezaugamei eutsiz, gehienetan. Probintziara hedatzen saiatzen direnak, ordea, hiriburukoak dira ia guztiak eta hiriburuaren erreferentzia informatibo nagusi duten telebista lokalak dira, probintziara arrazoi funtsean komertzialengatik hedatzen direnak; haientzat probintziaren errealitatea, komunikazio-erreferentzia moduan, marjinala da⁷. Hiriburu-eruetako telebistek, probintziarako hedatze joera horrekin, gainera, baldintzatu egiten dute probintziako beste herrietan tokian tokiko telebista propioen garapena.


Transmisio moduak ere eragina du prozesu honetan. Hain zuzen, telebista lokal gehienek lurrazaleko emisio modu analogikoa darabilte haien seinalea hedatzeko, baina gero eta gehiago dira kablea ere erabiltzen dutenak horretarako, Euskaltel eta Retenavarraren Tenariaren hedapenez baliatuz. Konpainia biek hiriburu-eruetako telebistak lehenesten dituzte, haiek guztiak ematen baitituzte, probintzia osoarako hedapenarekin gainera⁸. Alde honetatik kableak lagundu egiten du hiriburu-eruetako telebistek izaera lokala gaintitu eta probintziarako hedatze estrategietan. Baina diferentziak egon dira Euskaltel eta Retenavarraren artean herrietako beste telebistei dagokienean. Izan ere, Euskaltel-ek, hiriburu-eruetakoez aparte, Zarautz, Eskoriatza, Urnieta eta Mendaroko telebista lokalak bakarrik eraman izan dituzte bere sarean, udalerriri haien eremu geografikoan, telebista horiekin mantentzen zuten harreman bereziari esker⁹. Arau baino salbuespena izan da orduan, orain arte, Euskaltelen jokabidea tokian tokiko telebista lokalak eramateari zegokionean, nahiz eta azken aldi honetan aldaketak antzematen hasi diren; horren adibide dira Goierri Telebistaren kasua —kablez emititzen hasi zena, lurrazalez baino lehen—, edota berriki GoitBrek sinatutako hitzarmena haren programazioa Debagoiena bailaran hedatzeko.

Retenavarraren Tenariak, berriz, jarrera irekiagoarekin, telebista kanal propioak ezartzeko aukera eskaini dio hainbat udalerriri, Erribera inguruko askok aprobetxatu egin dutena. Berezitasun honek azaltzen du halaber telebista lokalak, kopuru absolutuan, gehiago garatu izana Nafarroan beste herrialdeetan baino. Telebista lokal gehie-

nak dituen herrialdea izateaz gain, Nafarroako beste ezau-garia telebisten dispertsio geografikoa da, nahiz eta ho-rretan ere Erriberako kable telebista txikiek duten eragina berriro azpimarratu beharra dagoen. Gipuzkoan ere gara-pen dibertsifikatua izan du telebista lokalak, baina Biz-kaian eta Araban kontzentrazio izugarria dago hiriburue-tan, lurralde haietako telebista lokalen %70 eta %60 Bilbo Handian eta Gasteizen baitaude, hurrenez hurren.

Telebista lokalen izaera eta helburuak aztertzerakoan, Erriberako telebista kopuru altuak distortsionatu egiten du berriro ere emaitza, haiek publikoak baitira ia guztiak. Hartara, denak aintzat hartuta, telebista lokalen ia erdiak zerbitzu publikoaren arabera sortutakoak direla agertuko zaigu; alegia, zerbitzu publikoko telebista lokalak, etekin ekonomikoa bilatzen dutenen pare direla, 2. grafikoaan erakusten den bezala. Errealitatean, ordea, aintzat hartuta telebista txiki haien pisu erlatibo eskasa, pribatutasunak eta komertzializazioak askozaz pisu handiagoa du koadro honetako datuek adierazten dutena baino. Azterketa eko-nomikoaren atalean ageriago geratuko da ideia hori.

2. grafikoa: telebista lokalen izaera



Bi motako ekimenak bereiz daitezke zerbitzu publi-koko izatearen helburu duten telebista taldean: gizarte eragileetatik sortutakoak eta udalen ekimenetatik sortuta-koak. Lehenak 6 bakarrik dira: Plentzia Telebista (1987), Laudioko Canal 58, eta euskara hutsean aritzen diren Xa-

loa TB, Ttipi-ttapa TB, GoiTB eta Oarso TB. Udalen ekimetik sortutakoetatik, Telesko, Mendaro TB eta Urnieta TB izan ezik, Nafarroako Erriberan kokatzen dira denak.

Enpresa izaeratik jaio eta errentagarritasun ekonomikoa bilatzen duten telebistak dira beste guztiak. Hala eta guztiz ere bereizketa argia egin daiteke multzo honetan bi ereduren artean: enpresaburu txikiek, sarritan autoenplegu gisa, sortutako ekimenak batetik, eta anbizio edo oinarri enpresarial zabalagoekin sortutakoak bestetik. Lehenengo taldea osatzen duten kanalen artean badago ezau-garri komunik: hirietatik kanpo kokatzen dira baina demografikoki biztanle gehiago dituzten udalerrri edota eskualdeetarako emititzen dute (Tele 7, Kateberria, Jai Txiki TB, Durango TB, Txingudi TB....)

Bigarren taldekoek, berriz, etekin ekonomikoaz gain kokatze estrategikoa bilatzen dute askotan¹⁰, eta estatu mailan aritzen diren komunikazio talde handiekin loturaren bat dute gehienetan. Hego Euskal Herriaren kasuan Vocento-Correo, Prisa eta Promecal taldeak dira nabarmentzekoak, eta haien ondoan Local Media telebista lokalen taldea da multzo honetan sar daitekeen laugarrena. Hauek sustatzen dituzten telebisten artean ere bada ezau-garri komunik, hala nola, hiriburuak lehenestea, katean jardutea eta gaztelania hutsean emititzea.

T aldeak telebista lokalean

Kateak osatzea eta komunikazio taldeak inolako kontrolik gabe sartzea izan dira azken urteetan espainiar estatuko telebistagintza lokalean jazo diren gertaera nagusiak. Menpeko telebista berriak sortuz, jardunean zeudenen kapitalean parte hartuz, programazio eta zerbitzu zentralizatuak eskainiz, mota eta hedapen ezberdineko kateak osatu dira estatu osoan zehar, batzuk estatu mailakoak eta beste batzuk erregio mailakoak. Ondorioz, irrati kateen egituraren antza hartuz, benetako sare paraleloa ari da eraikitzen, estatu edo autonomia erkidego mailako telebista kateen ondoan.

Nagusiak Localia-Pretesa, Vocento-Correo/Atlas-Une eta Local Media-Cadena Local TV dira. Hirurek estatu mailan dihardute (Kataluniaren salbuespenarekin, non Generalitatearen politikak estatu mailako kateen sarrera galarazi duen orain arte: Localiarekin lotuta telebista bakar bat dago han; beste kate estatalekin bat bera ere ez), eta konbinatu egiten dituzte telebisten kapitaletan parte hartzea eta programazioaren eskaintza zentralizatua.

Pretesa Prisa komunikazio talde ezagunaren filiala da (*El País* egunkaria, Ser irrati katea, Canal Plus katea, Digital Plus sateliteko plataforma...), zeinaren bitartez dagoneko estatu mailako 60 telebistetan baino gehiagotan parte hartzen duen, gehienetan tokian tokiko bazkideekin banatuz kapitala —normalean Ser katearen emisoretan ere parte hartzen dutenak—. Localia, berriz, taldeak erabiltzen duen marka da telebista lokalen artean 24 orduko programazio zentralizatua banatzeko. Pretesak parte-hartzea duen telebista guztiek ematen dute Localiaren programazioa, baina baita taldekoak izan gabe hartara afiliatuak direnak ere, betiere Localiak ezarritako baldintzen arabera (derrigorrez eman beharreko tartekak, tartekatu daitezkeen publizitate lokal tartekak...). Programazioa oso zabala da eta filmak, kirolak, telesailak, magazinak, dokumentalak eta albistegiak konbinatzen ditu. Hain zuzen ere, Localiaren berezitasunetako bat estatu mailako albiste programa estandarra eskaintzea da, irekian emititzen duten gainontzeko kate estatal eta autonomikoek euren albistegia ematen duten ordutegietan, eta kateko telebista guztiek derrigorrez eman behar dutena.

Vocento-Correo/Atlas-Une: Vocento taldeak, orain arte Grupo Correo Prensa Española izenarekin ezaguna zenak, 30 bat telebista lokaletako kapitalean parte hartzen du zuzenean, zeinei programak eta zerbitzu zentralizatuak eskaintzen dizkien —filmak, telesailak, dokumentalak, erreportajeak, publizitatearen komertzializazioa...—. Vocentok, halaber, parte-hartze garrantzitsua du Tele 5 telebistan, zeinarekin batera Atlas izena duen albiste zerbitzua gestionatzen duen. Atlas agentziak, berriz, Une izeneko programazio zerbitzua eskaintzen die telebista lokalei,

Vocento taldekoei zein afiliatu nahi duten guztiei, egunean 6 ordukoa, telesailak eta magazin arrosa konbinatzen dituen. Horrela bada programazio eta zerbitzu zentralizatu iturri ezberdinak dituzte Vocentoren telebistek —Vocento taldea bera eta Une—, eta Uneren bitartez Vocento taldeak bereak ez diren beste telebistetara eragina luzatzen du.

Local Media-Cadena Local ezberdina da. Izan ere, Local Media estatuko zenbait herritako telebista lokalen artean osatutako elkarte da (zehazki, Bilbo, Gijon, Toledo eta Mallorkakoak). Bilbon du burua taldeak, Telebilbaon hain zuzen ere, eta handik 24 orduko programazioa eskaintzen du satellite bidez, Cadena Local TV marka-izena erabiltzen duena. Katearen programazioak berezko produkzio zentralizatua —normalean Telebilbaok burutzen duena eta sorginak, astrologia, teledendak eta mota ezberdinetako magazinak biltzen dituen—, erositako kanpo produkzioa —normalean bigarren mailakoa— eta telebista ezberdinek trukean emandako programak konbinatzen ditu. Talde hori, hortaz, ez dago Espainiako inongo beste komunikazio talderekin lotuta; gehiago da telebista lokal komertzialen eremutik haietako batzuk Prisa eta Vocento bezalako taldeei emandako erantzuna, azken hauen sarre-
 ra dela-eta orain arte euren zen arloan. Gaur egun 40 bat telebistek ematen dute haren programazioa.

Talde edota kate hauez gain, beste batzuk ere aipa daitezke. Estatu mailako bokazioarekin, Popular TV, COPErena, gaur arte bost telebista dituen (Madril, nondik ematen duen seinale zentralizatua, Sevilla, Gibraltar, Errioxa eta Iruñea). Maila autonomikoetan, Televisión de Castilla y León, autonomia erkidego horretako 18 telebista biltzen dituen jabegoaren aldetik eta Uneren programazioa ere ematen duena; Canal 4 Castilla y León, autonomia erkidego berean diharduena, 12 estazioren bitartez; Flaix TV, Katalunian diharduena, katalanez, nahiz eta musika programazio zabala ematen duen, izen bereko irrati katearen egitura jarraituz.

Euskal Herriko telebista lokalei dagokienean, 3. taulan jasotzen dira kate eta taldeekiko dituzten harremanak.

3. taula: Euskal Herriko telebista lokalen harremanak komunikazio taldeekin

Loturak kateekin (programazioa)

<i>Katea</i>	<i>Telebistak</i>
Atlas-Une	Bilbovisión, Teledonosti, Alava 7 Televisión
Localia	Canal Bizkaia, Localia Gipuzkoa TV, Canal Gasteiz, Canal 4, Alto Nervión, Mendaro TB, Txingudi TB
Cadena Local	TeleBilbao, TeleVitoria, Tele San Sebastián, Tafalla TV

Loturak taldeekin (kapitala)

<i>Taldea</i>	<i>Telebistak</i>
Vocento-Correo	Bilbovisión, Teledonosti, Alava 7 Televisión
Prisa-Pretesa	Canal Bizkaia, Localia Gipuzkoa TV, Canal Gasteiz, Canal 4
Local Media	TeleBilbao, TeleVitoria, Tele San Sebastián, Canal 23
Euskaltel	Canal Bizkaia, Localia Gipuzkoa TV, Mendaro TB, Canal Gasteiz
Promecal	Canal 6 Navarra
COPE	Popular TV Navarra

Telebista hauek estazio guztien ehuneko handiegia ez badira ere —%28—, kualitatiboki oso esanguratsuak dira: hiriburuetako telebista guztiak¹¹, esan bezala emisio eremuen zabaltze joeratik probintzietara hedatzen direnak (Euskal Herriko biztanle guztiengana heltzen dira, hortaz); eta interes handiko gunetan (biztanleria, erreferentzia) jarduten dutenak (Laudio Araban, Irun eta Mendaro Gipuzkoan, eta Tafalla Nafarroan).

Taldeen sarrera ekarri duten operazioak azken lau urteetan gertatu dira gehienetan. Ia kasu guztietan konbinatu egiten dira parte hartzeko modu biak, alegia, parte-hartzea kapitalean eta katean emititzea. Oso kasu gutxitan dago kate-emisioa kapitalean parte hartu gabe.

• *Vocento-Correo/Atlas-Una*: talde honen estrategia probintzia edo erregio mailako multimedia taldeak osatzea izan da, haietako bakoitzak bere baitan euskarri ezberdinak biltzen dituelarik —egunkariak, irratia, doako prentsa eta publizitate-komertzializatzailea—. Euskal Herriko kasuan, Bilbovisión eta Alava 7 *El Correo* egunkariari lotuta daude, zeinak %80aren inguruko ehunekoarekin parte hartzen duen haien kapitalean; bietan Pausoka produkzio-etxeak parte hartzen du, %10 inguruko kapitalarekin, baita tokian tokiko bazkideek ere —Saski-Baskonia...— kapital ehuneko txikiagoarekin. Teledonosti, berriaz, *El Diario Vasco*-ri lotuta dago, zeinak ordea, ehuneko txikiagoan parte hartzen duen telebistaren kapitalean, %50; bertan akziodun lokal gehiago dago, izan ere, Teledonosti lehenagotik martxan zegoen telebista baita, baina Bilbo eta Gasteizkoa sortu berriak dira. Programazioari dagokionean, Una zerbitzua da katearen ardatza, nahiz eta, esan bezala, Vocentok berak ere aparteko programak eskaintzen dizkien bere bazkideei. Egitura bien arteko harremana estua da; izan ere telebista lokalak Atlas agentziaren oinarri logistikoa baitira, hari azpiegitura eta produkzio-zerbitzuak eskainiz. Gainera Corporación de Medios publizitate-komertzializatzaileak salmenta zerbitzu komunak eskaintzen dizkie, bai berezkoa, telebista kateari bera-ri zuzendua, baita taldeko beste medioekin integratuta ere.

• *Localia-Prisa-Pretesa*: Pretesaren strategiak ere konbinatu egiten ditu kapitalean parte-hartzea eta programazio zentralizatua eskaintzea. Parte-hartzeak kapitalean minoritarioak dira (%20-%30) —Iruñeko Canal 4ren salbuespenarekin, non %51raino igotzen den—, eta horrek nagusitasuna ematen ez badie Prisa taldearen beste euskarriekiko integrazio garrantzitsua gertatzen da, behinik behin Unión Radio-Ser irrati katearekin, bai baliabide materialean baina bereziki giza baliabideetan¹². Bi bide erabili ditu Pretesak Euskal Herriko telebista lokaletan sartzeko: arazo ekonomikoak zituzten telebisten zorrak eta beregituraketa bere gain hartuz —Canal 4ren kasua, baina baita neurri batean Canal Gasteizena ere— eta telebista be-

rriak sortuz. Batean zein bestean, Canal 4ren salbuespenarekin, PNVrekin lotura estua duten bazkideak eta Euskaltel izan ditu lagun, haiek, gainera, gehieneko parte-hartzearekin. Bilboko Canal Bizkaian Sortu Komunikabideak delako elkarrekin kapitalaren %50etik gora du eta K-2000 produkzio etxeak %8 inguru. Donostiako Localia Gipuzkoan, berriz, Instel Euskal 2000 delako elkarteak ere %50etik gorako parte-hartzea du eta Canal Gasteizen ere Sociedad Alavesa de Inversiones, Ediciones y Publicaciones Alavesas (*El Periódico de Alava* argitaratzen duena) eta Cegasa bezalako elkarteak dira gehieneko parte duten akziodunak. Elkarte horiek guztiek lotura nabarmen eta ezagunak dituzte PNVrekin, eta askoren ahotan ibili zen baita ere alderdiaren usatezko proiektua Prisaren laguntzarekin probintzia mailako multimedia alternatiboak eraikitzeko, Correo taldearen eredu jarraituz. Euskal Herriko Localia proiektuaren asmoa ere omen zen hiriburuetatik aparte, 30.000 biztanletik gorako populazio gunetara ere hedatzea, Irungo Txingudi TBrekin edo Mendaroko Telebistarekin egin duten bezala. Ordea, gauzak geldituta daudela dirudi, bai multimedia probintzialak sortzeko proiektuaren aldetik, bai hedapen territorialaren aldetik ere. Localiaren telebistek PNVrekin duten lotura harridura sortzeko modukoa bada, are harrigarriagoa da Euskaltelen presentzia kateko telebisten akziodunen artean. Egia da gutxieneko parte-hartzea duela guztietan —%8,5 Canal Gasteiz eta Canal Bizkaian, %20 Localia Gipuzkoan—, baina ez da erraza jakitea zer arazo estrategikok eraman duen Euskaltel bezalako euskal elkarte semipubliko bat —non EITBk parte-hartze zuzena duen, gainera—, Espainiako multimedia talde batekin elkartera gaztelaniaz jardungo duten telebista lokalak garatu eta hedatzeko. Harridura bera sortzen du Mendaro TB bezalako telebista publiko bat ikusteak —Udalarena baita %100ean— Localiaren gaztelaniazko programazioa ematen eguneko ia 24 orduan.

• *Local Media/Cadena Local*: Euskal Herriatik begiratuta Estatu mailako telebista talde honetatik nabarmentzekoa da bertako telebista bat, Telebilbao, dela haren burua. Telebilbao lotuta dago Radio Nerviñonekin, Euskal Herrian

irradi lizentzia pribatua lortu zuen lehenetako elkarte; gero Arabara hedatu zen (Radio Gorbea y Televitoria), bai eta Kantabriarantz ere. Orain Gipuzkoa (Tele San Sebastián) du helburu, bereziki maila autonomikoan publikitate-komertzializazio bateratua egiteko asmoarekin. Tafallako telebista ere afiliatuta dago kate honen programaziora. Telebilbao Euskal Herriko aitzindarietakoa da telebistagintza lokalean, eta telebista lokal komertzialen programazio mota baten eredu da: gaztelaniazkoa, noski, albigitegiei eta gertakizun lokalei garrantzia ematen diena baina emisioak osatzeko lotsarik gabe programazio merkea eta askotan —ez beti— maila baxukoa erabiltzen duena —teledendak, astrologia, sorginak, publiko portajeak dokumental gisara eskainiak...—. Katearen programazioa 24 ordukoa da, zeinetatik haren afiliatuek gutxienerako kopuru bat eman beharra duten: ordu erdi edo ordu beteko programa tarte batzuk eta bost minutuko publizitateko hiru tarte, guztira lau ordu t'erdi edo bost ordu. Alabaina, Telebilbao kenduta, kateko beste euskal telebistek ia oso-rik ematen dute kateko programazioa.


- Promecal/Canal 4 Castilla y León: Promecal Gaztela eta Leonen dauden bi telebista lokalen kateetatik baten sustatzailea da. Haren akziodun nagusia Gregorio Méndez enpresaburua da, Canal 6 Navarrako akziodun nagusia ICAL-Mediatel delako enpresaren bitartez. Gaztela Leongo Canal 4 katea eta Canal 6en arteko lotura telebistaren egitura eta irudian islatzen da: frankizia baten moduan Gaztela eta Leongo Canal 4k garatutako egitura eta irudia erabiltzen baititu Iruñeko Canal 6k. Honek ez du, ordea, katean jarduten haiekin. Programa aldetik eduki batzuen trukera mugatzen da harremana.

T elebista lokalen ekonomia

Ekonomia aldetik ere ezberdintasun handiak daude telebista batzuetatik bestetara, ia beltzetik zurirainokoa, ez bakarrik hiriburuko eta hiriburu ez diren udalerrietakoen artean, baita antzeko eremu geografikoetan dihardutenen

artean ere. Badira elementu batzuk distortsionatu egin dezaketenak errealitate ekonomiko horretaz eskainiko dugun irudia. Izan ere, telebista batzuek denbora gutxi daramate martxan eta euren egiturak eta kontuak ez ziren, datuak biltzerakoan, jarduera normala izango dutenaren adinakoak —Alava 7, Canal 6...—. Gainera, ez ditugu telebista guztien datuak izan eskura azterketa egiteko orduan. Berrogeita bat telebisten gaineko datuekin egin dira kalkuluak; baina horien artean telebista esanguratsuenak daude¹³.

3. grafikoa: telebista lokalen aurrekontuak 2001-2002 (eurotan)



Datu horien arabera, aurrekontuen espektroa ikaragari zabala da, hiru mila euro eta milioi t'erdi euro ren artean mugitzen baitira, 3. grafikoan erakusten den bezala. Alabaina, telebista gehienak —ia erdiak, %46— tarte baxuenetan daude: 60.000 eurotik beherakoetan, eta gehienak 30.000 eurotik beherakoan. Baliabide urritasuna handia da, hortaz, telebista lokal gehienetan, nahiz eta hemen ere aipatzekoa den Erriberako kanalek duten efektu desitxuratzaila (denak 30.000 eurotik beherako tarte horretan daude). Hala eta guztiz ere tarte horietan mugitzen diren telebistak ez dira bakarrik herri txikietakoak edo kable bidezkoak; badira baita tradizio luzeko hainbat kanal ere, inguru aberats eta jendetsuagoetan dihardutenak, hala nola Azpeitiko Kaito, Uretxuko Urola edo Urnietako Telebistak.

Beste muturrean, berriz, hiriburuetakoko eta taldeen parte-hartzea duten telebistak daude, diru kontuetan behinik behin aurreko telebistekin zerikusirik ez dutenak: ia guztiak 600.000 eurotik gorako tartean daude, eta milioitik gorako aurrekontua dute gehienek. Segmentu honetakoko telebista batzuen eta besteen artean antzeman daitezkeen diferentziek, telebista bakoitzak diharduen inguruarekin baino lotura duten taldeekin eta martxan daramaten denborarekin dute zerikusia. Horrela urte batzuk daramatzatenak eta Vocento edo Localia taldeekin lotura dutenak dira aurrekontu handienak dituztenak, milioi t'erdi euro ingurukoak. Berriagoenak, berriz, hala Gasteizko Alava 7, nola Donostiako Localia Gipuzkoa edo Iruñeko Canal 6enak, maila baxuagoan leudeke oraindik, baina dagoeneko milioi bat euroren inguruan azken bi hauek. Local Mediarekin zerikusia duten Telebilbaok edo Televitoriak, berriz, aurrekontu baxuagoak dituzte, nahiz eta alde handia dagoen batetik bestera. Izan ere, Telebilbao izanik Local Media katearen burua, haren aurrekontua milioi bat eurora hurbiltzen da —hala eta guztiz ere Bizkaiko hiriburuan diharduten beste telebistena baino baxuagoa modu esanguratsuan; handien arteko bigarren mailan dagoen bakarra da—; Televitoria, berriz, oso urrun dago aurrekontu haietatik eta telebista pribatu txikien multzoan kokatzen da.

Telebista txikienak eta kateetara lotutako hiriburuetakoko telebistak alde batera utzita, hiru aurrekontu-segmentu geratzen dira, non beste telebista guztiak kokatzen diren —ez asko, egia esan, herena baino gutxiago, baina hauek ere esanguratsuak: euskaraz dihardutenak eta biztanle-kopuru esanguratsua duten inguruetan dihardutenak—. Batetik, 300.000 eta 600.000 euroren artekoa, non Deba goiena inguruko GoiTB, Irungo Txingudi Telebista eta Barakaldoko Tele 7 leudekeen batera, nahiz eta elkarrekin zerikusi gutxi izan telebista eredu gisa. Bestetik, 150.000 eta 300.000 bitartekoa, non euskaraz emititu eta zerbitzu publikoko izaera duten Ttipi-ttapa, Xaloea eta Oarso kokatzen diren, baina baita Durango TB ekimen pribatu komertziala ere; eta, azkenik, 60.000 eta 150.000 milako tar-


tea, non nagusi diren ekimen pribatuak: Televitoria, Kateberria, Urdaibai, Zarauzko TB edo Telesko.

Au rrekontuetan antzematzen diren desorekak are argiago nabarmentzen dira baldin eta aintzat hartzen bada milioi bat eurotik gorako aurrekontua duten 7 telebistek telebista lokalek darabilten diru guztiaren (13 milioi euro guztira, gutxi gorabehera) %71 gastatzen dutela, 600.000tik gorako zortziek %78 edo 300.000tik gorako hamaiketik %87.

T elebistagintza lokalaren finantzaketa

Telebista lokalek baliabide ezberdinak erabiltzen dituzte euren jarduera finantzatzeko. Garrantzitsuena, zailentzarik gabe, komertziala da, ez bakarrik telebista gehienek diru iturri hori dutelako finantzabide nagusi modura, 4. grafikoan erakusten den bezala, baizik eta horiek direlako, hain zuzen ere, aurrekontu handienak maneiatzen dituztenak. Berritzailea ere Nafarroako kable bidezko telebistek errealitatearen irudi okerra ematera eraman gaitzake, aintzat hartzen ez badugu haiek aurrekontu oso txikiak dituztela. Alde honetatik, okertzeko beldur handirik gabe esan daiteke finantzaketa publikoa ez dela telebista lokalen diru iturrien %15era ere heltzen.

4. grafikoa: finantzabide ezberdinen pisua telebista lokalen finantzaketan (publikoa/komertziala)



Finantzaketa komertzialaren barruan publizitatea da garrantzi handiena duen diru iturria. Harekin batera, produkzio-zerbitzuek eta programen salmentek ere pisua dute, taldeekin zerikusia duten telebistetan, behinik behin, non kontzeptu batzuetatik edo bestetatik talde barruko enpresen arteko fakturazioak telebistaren negozio zifraren erdira ere heltzen diren batzuetan. Ez dugu modurik izan publizitate kategorია —estatuko marka handiena, autonomikoa, lokala, publikoa, pribatua— eta gestio modu ezberdinak —zuzena, eskusibista, katean— bereizteko. Hori bai, okertzeko beldurrik gabe esan daiteke gero eta garrantzi handiagoa duela katean —eta taldean, telebista, irratia eta ahal denean prentsa ere konbinatuz— egindako komertzializazio moduak. Alde honetatik, kateetatik aparte emititzen duten telebista ertainek eta euskara hutsean dihardutenek zailtasunak dituzte euren baliabide komertzialak garatzeko, merkatu lokaletik haratago joateko, alegia.

Hala eta guztiz ere, azpimarratzekoa da atal honetan, kanal handi bezala izendatu ditugun telebista gehienak, komunikazio talde handiei lotutakoak, behinik behin, urrun direla oraindik errentagarri izatetik. Alderantziz, galera handiak dituzte haietako askok, telebista batzuen kasuan urteko aurrekontuaren erdira eta baita bi herenera ere heltzen direnak (eta horrek urteko 300.000 eurotik gorako galerak esan nahi du gehienetan, baina baita batzuetan 800.000 eurokoak ere, etengabeko kapital ekarpen berrien edo taldeen maileguen bitartez estali eta finantzatzen direnak). Arrazoi ezberdinak daude hori horrela izateko: iraganeko gestioaren ondorioak —Iruñeko Canal 4 edo Canal Gasteizen bezala, non Pretesa sartu aurretik egindako apustuak eta goitik jotako dimentsioak zama handia diren oraindik emaitza kontuetan—; merkatu lokalean sartu eta nabarmentzeko arazoak, baita antenizaziokoak ere, aurretik ondo kokatutako lehiakideen aurrean —Bilbovisión eta Canal Bizkaiaren kasuak, zeinek arazoak dituzten ondo kokatuta dauden Telebilbao eta Tele 7ri lehia egiteko—, berriki egindako ezarpen inbertsioen amortizazioaren pisua —Alava 7, Canal 6, Localia Gipuzkoa...—, edota inbertsioaren helburua ez izatea, epe labur eta ertainean

behintzat, errentagarritasuna lortzea, baizik eta taldea merkatu lokaletan estrategikoki kokatzea. Horrek taldeekiko are dependenteagoa egiten du telebistagintza lokala, haien helburu estrategikoen menpekoa, esan nahi baita erabakiak ez direla hartuko, egiturak ez direla antolatuko, konkurrentzia ez dela ezarriko merkatu lokalaren tamainara, baizik eta taldeen interes eta esanetara. Orain merkatu lokaletan kokatzea da garrantzitsua eta berdintsu samarra da horrek eskatzen dituen inbertsioak; bihar, ikusiko da.

Katean diharduten hiriburuetako kanalen ondoan badira baita, urteen poderioz, negozio eredu errentagarria garatu duten telebista handiak ere, hala Local Mediare n telebistak nola Barakaldoko Tele 7, programazio merkean eta euren merkatu lokaletan sarrera indartsua izatean oinarrituta. Telebista txikiek eta ertainek ere kostu eta sarrera egitura nahikoa orekatuak dituzte, betiere programazioaren kostua sarrera urrietara egokitzearen eta bekadunen esplotazioaren kontura.

Finantzaketa publikoaren iturri nagusia, berriz, udalak dira. Hauek modu ezberdinak darabiltzate euren diruak telebisten artean banatzeko: kasu gutxi batzuetan, zerbitzu publikoa kudeatzen duten enpresa komertzialei emandako kontraprestazio gisa —Zarautz, Urnieta...—, baina gehienetan gizarte-taldeei emandako laguntza zuzen modura —Erriberako telebistak—. Dirutza hori, ordea, esan bezala, ez da handia, eta Erriberako kanalak alde batera utzita, ez dira ezta ere asko udalen laguntza jasotzen duten telebistak: hamar guttura. Guztiarekin ere, telebistaren behar ekonomikoen ehuneko esanguratsua estaltzen dute gehienetan, hala nola GoiTB, Xaloa, Ttipi-ttapa, Oarso TB, Zarauzko Telebista, Mendaro, Plentzia, Urnieta eta Teleskoren kasuetan bezala —Azpeitiko Kaitori udalak ematen diona laguntza testimoniala baino ez da—. Hala eta guztiz ere, diferentzia handiak daude udal batzuek eta bestek egiten duten ekarpenen artean, Plentziako 5.000 edo Urnietako 30.000 eurotik, Oarsoaldea edo Goiena inguruko udalek ematen dituzten 200.000 eurotik gorako diru laguntzetara. Azpimarratzeko moduko datu bat: hiriburuetako udalek ez dute telebista lokalak laguntzeko diru partidarik.

Diru iturri publikoetan bigarrenak gobernu autonomikoak dira, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernu Forala, hain zuzen ere, hurrenez hurren, gehiagotik gutxiagora, emandako diru kopuruaren arabera. Biek ala biek, laguntza sistemak dituzte indarrean euskararen presentzia komunikabideetan sustatzeko, askoz hobeto horritua, nola ez, Eusko Jaurlaritzarena (guztira 450.000 euro inguru telebista lokalentzat 2002 urtean), Gobernu Foralarena baino (100.000 eurora ez da heltzen telebista lokalentara zuzendutako diru laguntza). Baina, ez batena ez bestearena ez dira nahikoak euskarari leku duin bat ziurtatzeko telebistagintza lokalean, programazioko atalean ikusiko den bezala. Egia da diru laguntza haiek ezinbestekoak direla euskaraz diharduten zenbait telebisten bizi-raupenerako, baino ez diote, ezta hurrik eman ere, euskarak arlo honetan dituen arazoei taxuzko soluziobiderik ematen. Diputazioen aldetik, berriz, eta harrigarria bada ere, idatzizko komunikabideetan eta teknologia berrietan euskara sustatzeko diru laguntza sistemak baitituzte indarrean, telebista lokalek ez dute diru laguntzarik jasotzen.


Euskal Herriko telebista lokalen programazioa

Orain arte esandako guztia leku pribilegiatu batean islatzen da, emisioetan eta programazioetan hain zuzen ere, telebista lokala sintonizatzean pantailan ikusten ditugun edukietan, alegia. Telebista bakoitzak berezko ezaugarri propioak ditu, jakina, ezberdina egiten dutena beste edozeinekiko, baina hala eta guztiz ere Euskal Herrian bost telebista lokal eredu bereiz daitezkeela uste dugu nahiko erraz, emisioen maiztasuna, emanaldien osaera, programazio-taularen eraikuntza, programen jatorria, difusioaren izaera (originala, errepikapena) eta euskararen erabilera konbinatzen dituzten moduaren arabera.

Lehenengo eta behin, kanal handi gisa izenda daitezkeenak, hiriburuetan eta haien inguruan kokatzen direnak (Barakaldoko Tele 7) leudeke. Bigarrenik, katean emi-

titzen duten telebista ertainak, emisio-esparru txikiagoetan aritzen direnak baina beraien programazioa eraikitze-rakoan komunikazio-taldeek katean ematen dituzten edukiak erabiltzen dituztenak (Alto Nervión, Mendaro TB, Txingudi TB, Tafalla TV). Hiru gaurrenik, euskara hutsean aritzen diren emandegiak, hizkuntza honen aldeko apustua egiteak programazioa goitik behera baldintzatzen baitu (GoiTB, Zarauzko TB, Oarso, Ttipi-ttapa, Xalao). Laugarrenik, kanal ertain-txikiak, esparru ertain eta txikietan aritzen direnak, taldeetako kateekin zerikusirik gabe, oso baliabide ekonomiko urriekin (Canal 58, Durango Telebista, Goierrri TB, Jaitxiki TB, Kanal On, Kaito TB, Ikas TB, Kateberria, Plentzia TB, Urdaibai Telebista, Uribe Kosta TB, Urnieta TB eta Urola TB). Azkenik, kablez bakarrik emititzen dutenak, gehienak Nafarroako Erriberan kokatutakoak eta, behin baino gehiagotan aipatu bezala, programazio ordu kopurua oso mugatua dutenak.

5. grafikoa: emanaldiaren osaera: programak versus karrusela




Telebista lokalen berezko izaerari dagokion emisio edo programazio mota produkzio propioa da, dudarik gabe, bertatik bertarakoa. Hori dela eta, tradizionalki asko izan dira, baliabideen urritasunagatik hain zuzen ere, noizean behin eta bakarrik eguneko tarte batzuetan emititzen zuten telebista lokalak. Baina hedapen eremua zabaltzera jo duten bezala, emisio ordutegia luzatuz ere joan di-

ra, eta gaur egun, telebista lokal gehienak emisio iraunkorrekoak eta maiztasun handikoak dira, Nafar Eriberako kanalaren salbuespenarekin, zeinek herriko jaietan, gabonetan ala hauteskunde garaietan bakarrik emititzen baitute (Buñuel, Funes, Arguedas ala Fustiñana).

Emisio ordutegien luzatze orokorrak, askotan eguneko 24 ordutaraino, estrategia ezberdinak garatzera eraman ditu telebista lokalak. Batzuek, euskaraz dihardutenek eta kablez emititzen dutenek, telebista-saio arrunt edo ohikoez gain karusela¹⁴ deitu izan dena erabiltzen dute emisioa osatzeko, 5. grafikoan ikus daitekeen bezala. Karruselaren izaera informatiboa, publizitarioa, denbora-pasakoa ala kanalaren identifikagarri izan daiteke, baina dudarik gabe telebista lokaletan emisioen betegarri gisa duen erabilera azpimarratzekoa da.


Emisio orduak osatzeko erabiltzen den beste sistema saioen errepikapena da. Errepikapena edo multidifusioa ohikoa da, dagoeneko, baita estatu mailako kanal orotari-ko arruntetan ere, baina telebista lokaletan maila altuagoa du, nola ez, hauen produkzio gaitasuna eta programak eskuratzeko ahalmena haiena baino askozaz txikiagoa baita. Arlo honetan ere, diferentzia handiak daude katean eta horietatik aparte diharduten telebisten artean, 6. grafikoan ikus daitekeen bezala. Haien errepikapen maila azken hauena baino askoz apalagoa da, baliabide gehiago eta programa iturri sendoagoak dituzte-eta.

6. grafikoa: errepikapenen gestioa



Baina emisio orduak betetzeko gero eta garrantzi handiagoa hartu duen baliabidea kanpo produkzioa da, 7. grafikoan jasotzen den bezala. Euskarazko kanalak eta kablez bakarrik emititzen dutenak salbuespen dira, ia programazio guztia eurek egindakoa baita. Beste guztietan, ordea, kanpo produkzioa da nagusi, askogatik gainera. Hori bai, jatorri eta izaera ezberdinekoa katean emititzen duten telebistetan eta bestetan.

7. grafikoa: barne versus kanpo produkzioa




Aspaldikoa da telebista lokal askoren joera sorginak, 906ak eta teledendak bezalako saioak emateko, merkatu lokaletatik jasotako diru sarrerek osatze arren. Baita sateliteko kanalen berremisioak (MTV, Eurosport...) egitekoa ere, emisio orduak ia kosturik gabe osatzekoa, edota, noizean behin, kate estataletan, irekian behintzat, ikusten ez diren moduko programak (film pornografikoak, adibidez) ematekoa ere, nabarmentzeko. Zailagoa izan dute, ordea, telebista hauek, baliabide ekonomikoaren ezagatik hain zuzen ere, programazio merkatu arruntetatik programak lortzea (filmak, dokumentalak, kirol emanaldiak...).

Hiribunurako telebista handiek bakarrik lortzen zizuten halakoak, baina betiere kalitate eta maila baxukoak. Orain, ordea, kateek, finantza ahalmen handiagoari eta komunikazio taldetan integratuta egoteari esker, posible dute mota hartako programak, baita lehen mailakoak ere, eskuratu eta eskaintzea. Are gehiago, komunikazio taldeek

modu berri bat aurkitu dute telebista lokaletan taldeko beste kanaletan —Tele 5, Canal + eta kanal tematikoak— emandako produktuak amortizatzeke.

8. grafikoa: Euskal Herriko telebista lokalen programazioa generoen arabera




Telebista batzuek eta besteek emisioak osatzeko eta programazioaz hornitzeko moduetan dituzten ezberdintasunak programazio ereduetan islatzen dira ondo baino hobeto, 8. grafikoa erakusten den bezala. Telebista handiek, oro har, baita kateetan integratutako ertainek ere, askozaz programazio zabalagoa eta estandarragoa eskaintzen dute, ia estatu mailako telebistenaren parekoa, azpimarratzekoa

delarik haietan fikzioak duen pisua. Telebista ertainetan, beriz, beste programa genero batzuek dute lehentasuna, hala nola gainontzekoak deitu ditugunak edota kiroletakoak, batzuk zein besteak satelitetik edota telebista lokalentzako hornitzaileetatik (sorginak, teledendak...) eskuratutakoak. Euskarazkoetan eta kable bidezkoetan, beriz, informazioa eta miszelanea deitu ditugunak dira nagusi, barne produkzioan oinarritzearen ondorio. Informazioa da eredu hauetan, barne produkzioan oinarritutakoetan alegia, programazioaren ardatza; hura laguntzen, mota ezberdineko saioak, magazinak, kirol saioak, erreportajeak..., betiere kanal bakoitzaren produkzio-lantalde eta baliabide ekonomiko eta teknikoaren funtzioan.


Nabarmenezkoa da Euskal Herriko telebista lokalek erakusten duten autonomia falta ikaragarria euren programazioak finkatzerakoan. Programazioaren parte handia kanpoan finkatzen da, 9. grafikoan ikusten den bezala. Kanal handietan %30a da estazioak berak erabakitzen duen programazio parte; kateetan integratutako estazio ertainen kasuetan gora egiten du ehunekoak nabarmen, %89raino; baina kateetan integratu gabe dauden kanal ertainetan ere gero eta handiagoa da kateetako berremisioekin osatutako parte, programazioaren %52a hain zuzen ere. Berriro ere euskara hutsean diharduten kanalak eta kable bidez bakarrik emititzen dutenak dira jokabide honetatik aldentzen direnak, eta %100ean eurek osatua da programazioa.

9. grafikoa: emisioaren autonomia: kanalak erabakia versus katean



Egitura honetan euskara da inongo zalantzarik gabe kaltetuen atera dena. Izan ere, euskararen presentzia telebista lokaletan hutsaren hurrengo da, 10. grafikoan jasotzen den bezala.

10. grafikoa: euskararen pisua Euskal Herriko telebista lokaletan



Euskara hutsean diharduten kanaletan, euskara sustatzeko eta euskararen normalkuntzarako tresna gisa jaiotzen diren telebistetan du, hain zuzen ere, nola ez, lekua euskararak. Kanal ertainetan, ordea, oso txikia da euskararen lekua, %10ekoa batez beste, nahiz eta ezberdintasun inportanteak dauden telebista batzuetatik bestetara, %60tik gora euskaraz emititzen duen Urdaibai TBtik, adibidez, %15era baino hertzen ez den Durango TBra, hain zuzen ere —nahiz eta azken hauek ere ahalegin handiak egiten ari diren euskarari leku zabaltzeko—. Handietan eta katean jarduten duten ertainetan, berriz, ia ikusezina, edo hobeto esanda, entzunezina da euskara. Batzuetan euskara ez da aintzat hartua izan ere egin, hala nola, Vocento-Correo taldearen telebistetan edota Local Mediarenetan (ez bada hamaikagarren aldiz *Bai horixe* aspaldiko saioa emateko). Localiarretan, jarrera ezberdinak dituzte: hutsa Bilboko Canal Bizkaian eta Iruñeko Canal 4n, goizeko tarte bat eskainiz Gasteizko Canal Gasteizen eta eguerdiko albistegia euskaraz emanez Donostiako Localia Gipuzkoan. Iruñeko Canal 6k, aldiz, albistegi guztietan euskarazko laburpena ematen du. Kateetara lotutako ertainetan, berriz, kate

programazioak ito egiten du erabat Mendaro TBk ekoizten duen berezko euskarazko programazioa; bestetan, anekdotikoa da euskara.

Orain arte programazio eta emisio datuen gainean egindako irakurketak hainbat ñabardura eta puntualizazio eskatzen ditu, ordea, egindako argazkiak errealitatea modu zuzenean islatuko badu, programen produkzioari dagokionean, behinik behin. Kanal handiak, ikusi den bezala, kanpo produkzioan oinarritzen dira euren programazioaren parte zabalena osatzeko. Alabaina horrek ez du esan nahi gutxi produzitzen dutenik beste telebistekin alderatuta. Alderantziz, ordutan, kopuru absolutuan, kanal handi haien produkzioa zabalagoa da, askotan, euskaraz jarduten duten kanalena baino, zeinen programazioa %100ean den etxe barruan ekoiztua. Ezberdintasuna errepikapenetan eta karruselaren erabileran dago. Izan ere, produkzio kopurua gehiago dago lotuta telebisten baliabide ekonomikoekin, katearen parte izan edo ez izatearekin baino. Alde honetatik, esan behar da telebista handiek eguneko lau eta sei ordu bitartean ekoizten dituztela —telebista lokalen produkzio eredu klasikoa jarraituz: albiste-gaiak eta mota ezberdinetako magazinak (kirolak, gizarte-gaiak, herriko jendea...)—, baina berezko produkzioaren maila altuago hori kanpo produkzioaren ur askozaz sako-nagoetan urtzen dela.

Kateekin lotuta dauden kanal ertainetan, berriz, asko jaisten da programen produkzio maila: batzuetan ez dago barne produkziarik, eta, dagoenean, eguneko albistegieta-
ra mugatzen da, zeinari kasuren batean magazin edo erre-
portajeren bat ere gehitzen zaion.

Kateekin zerikusirik ez duten kanal ertainen artean, ezberdintasun handiak daude produkzioari dagokionean. Gutxi batzuetan ez dago halakorik eta emisio guztia kanpo programazioekin (satelitea, teledendak...) osatzen da. Zenbaitetan, ez dago egunez eguneko produkzio berririk: astein bi edo hiru programa osatzen dira —luzera ezberdinekoak, bi ordukoak edo—, herriko albiste eta errepor-tajeekin. Gehienetan, ordea, eguneroko albistegiak egiten dira, batzuetan modu ezberdinetan ekoiztutako beste mo-

tatako programekin osatzen direnak —normalean magazinak—; oso gutxitan gainditzen da eguneko hiru orduko produkzioa.

Euskarazko telebistetan ere ezberdintasun handiak daude telebista batzuetatik bestetara. Alde batera utzita ka rusela, zeinak garrantzia handia duen telebista haue-
tan, GoiTB nabarmentzen da, telebista handien adinako produkzio mailarekin. Bestetan, eguneko ordu t'erdi edo bi ordukoa da eguneroko barne produkzioa, betiere albiste-
tegi eta magazin-erreportajetan zentratua.

Kateen artean ere badago diferentziarik programazioa finkatzeko autonomiari dagokionean. Localiaren kate eskaintza 24 ordukoa da eta hiruetatik bera da, agian, gehien lotzen dituen bere menpean dauden kanalak: informatibo estatala eman beharra, katean emandako programazioak gero eta emisio tarte zabalagoak hartzea, berezkoaren errepikapenen kontura... Local Mediaren kate emisioak ere 24 ordukoak dira, baina denenguz eman beharreko tarteak laburragoak dira, nahiz eta Telebilbao alde batera utzita, Euskal Herrian kateak dituen beste telebisten produkzio ahalmena hain den txikia ezen ia emisio guztia katekoa baita; eta bere ezaugarri nagusia programazioa osatzeko moduan badago ere, bazkide diren kanalen arteko trukeak garrantzia baitu hartan, gureari dagokionean behintzat ez dago halakorik, lehen aipatutako arrazoi berbera dela eta. Vocento-Correo taldearen kasuan, kate-programazioa laburragoa da eta malguagoa haren erabilera (errepikapenak), baina, esan bezala, Vocento-Correo taldeak kate antolaketatik kanpo ere eskaintzen dizkie programak bere taldeko telebistei.

T elebista lokalen gaineko legedia

Garapen hau guztia, esan bezala, lege-hutsune izugarri baten erdian gertatu da, gehiegi luzatu dena seguru-
enik baita haren arduradun nagusia izan den Alderdi Popu-
larrarentzat ere. Izan ere, egoerak ez zion, dagoeneko, mese-
derik egiten telebista sistema orokorraren garapenari —zer

esanik ez telebista lokalaren eredu sozialari, baina horrek ez zion PPri gehiegi axola—, eta, gainera, Localiarena bezalako garapenak kalte egin ziezaiokeen PPren interesei telebistan. Hori dela eta Madrilgo PPren Gobernuak telebista lokalaren marko juridikoa berregiteari ekin zion 2002re n amaiera aldera; hori bai, berezkoa zuen modu nahasian eta helburu politikoetara makurtuta jarraituz.

Egia esan, telebista lokalak araupetzen zituzten legeak aspaldi eman ziren, bai behintzat estatu mailan, baita Nafarroan ere. Baina lege horiek ezarri eta garatzea ahalbidetuko zuten tresna teknikoa eta borondate politikoa ez dira, duela gutxi arte behintzat, egon. Madrilgo Gobernua horretara jarri denean, ordea, egiturazko aldaketak ekarri ditu telebistagintza lokalaren itxuraketan, eta muriztu ere egin ditu erakunde autonomikoen eskuduntzak arloaren gainean.

Hain zuzen ere, 1995ean, Espainiako Alderdi Sozialistak, Estatuko agintaritzatik kanpo geratu baino lehen, telebista lokalak araupetuko zituen legea eman zuen —abenduaren 22ko 41/1995 Legea—, eta handik gutxira, Nafarroako Gobernu Foralak ere aurrekoaren ildo beretik jarraitzen zuen lege autonomikoa onartu zuen. Lege haietan ezartzen zen telebista lokal eredia gustukoa izan ez eta Alderdi Popularrak nahiago izan zuen *laissez faire* motako politika egitea, egiten uztea, alegia. Hartara, telebista lokalen lizentziak emateko prozedura zabaltzea ahalbidetuko zuen Frekuentzien Plan Teknikorik ez zuen egin eta merkatuaren jokoaren esku hutsetan utzi zuen telebista lokalaren garapena. Izan ere, 41/1995 Legean ezartzen zen ereduak, ordu-ra arteko Kataluniako esperientzian oinarritua neurri handi batean, ukitu sozial eta progresista nahiko nabarmenak zituen, ez zirenak batere ondo egokitzen Alderdi Popularrak bultzatzen zuen ikuspegi liberalizatzailearekin. Bestek beste, honako irizpideak ezartzen zituen lege hark:

- Telebista lokalaren zerbitzu publiko izaera, nahiz eta kanalen gestioa publikoa zein pribatua izan zitekeen.
- Emisio eremua, udala; hortik gaindikoek udalen arteko hitzarmena eta autonomia erkidegoaren baimena beharko lituzkete.

- Udal bakoitzeko gehienez kanal bi; hala izatekotan, haietako bat publikoa izan beharko litzateke.

- Katean emisio denboraren %25etik gora emateko debekua; ezin, ezta ere, jabego bereko katetan bildu telebista lokalak.

- Lizentziak emango zituen agintea, autonomia erkidegoa, udalen eskakizunen arabera eta estatuak ezarri beharreko Plangintza Teknikoaren baldintza teknikoan pean (autonomia erkidegoek aukera izango lukete berezko baldintza kualitatiboak ezartzeko, enpresari, programazioari, produkzioari edota hizkuntzari legozkiekeenak hain zuzen ere, baina betiere estatuak ezarritako oinarritzko marko legal orokorraren baitan).

- Plangintza ezarri bitartean, 1995 urteko urtarrilaren 1a baino lehen noizbait emititu zuketean telebistek euren emisioekin jarraitzeko baimena izango lukete; gerora, lizentzia lortuz gero bakarrik¹⁵.

Orain arte egin dugun azterketak erakusten duen bezala, lege hartan aurreikusten zen eredutik baino oso bestelako bideetatik joan da telebista lokala, behintzat Hego Euskal Herrian.

Esan bezala, 2002 urtearen amaiera aldera hasi zen aldatzen Alderdi Popularra telebista lokalaren marko juridikoa, hain zuzen ere, 2003ko aurrekontuak laguntzen zituen 53/2002 Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte-erlaken Legearen bidez. Arau honekin egiturazko aldaketak ezarri zituen telebista lokalen egitura eta marko juridikoan. Haren arabera, telebista lokala digitala izango zen, alegia, telebista lokalaren lizentziak teknologia horrekin bakarrik emititzeko emango ziren. Emisio eremuari zego-kionean, probintzietako hiriburuetan bakarrik ziurtatuko zen emisio-kanala egotea, eta espektrorik balego, baita 100.000 biztanletik gorako hirietan ere; azkenik, baina betiere frekuentzien disponibilitatearen arabera, aintzat hartuko zirela ere agintzen zen, autonomia erkidegoek hala eskatuz gero, 25.000 biztanle edo 25km²-ko zabalera-tik gorako udalen arteko eremuak. Telebista lokalaren lege berrituarekin, halaber, ez zen kateak osatzea eta katean emititzea galaraziko: haien gaineko kontrola autonomia

erkidegoek izango zutela esaten zen, baina kate-emisioek autonomia ezberdinetako estazioak bilduko balituzte, orduan kontrola estatuarena izango litzatekeela xedatzen zen. Demarkazio bakoitzean jardungo zuen telebista kopuruaz ez zen ezer esaten; hartara kanal digital bakoitzak eskainiko duen kapazitateak finkatuko zuen muga (gaur egun lau omen dira kanal digital bakoitzean kabitzen diren emisioak). Legeak zekarren beste aldaketa garrantzitsua honako debekua zen: eremu geografiko berean ikusiko ziren maila ezberdinetako lurrazaleko telebisten kapi-taletan aldi berean parte hartzekoa. Lege-xedapen horren arabera elkarte bat ezingo litzateke aldi berean bazkide izan estatu mailan eta maila autonomikoan edo lokalean jardungo zuten lurrazaleko telebista ezberdinetan; ezta ere telebista autonomiko batean eta erkidego bereko telebista lokal batean edo udal eremu bereko bi telebista lokal-etan. Azkenik, lizentziak emateko prozedurak irekitzeari bide emango zion Telebista Lokalaren Plangintza Teknikoa egiteko egutegia eta moduak ere finkatzen ziren, zeinaren arabera autonomia erkidegoek, arestian aipatutako irizpideak jarraituz, espektroaren erreserba edo demarkazio-proposamena egin beharko lioketen gobernu zentralari, nahiz eta azken hitza betiere Zientzia eta Teknologia-ren Ministerioari legokiokeen.

Aldaketa hauek ezinegon handia sortarazi zuten mota guztietako telebista lokaletan. Txikiek eta gizarte-helburukoek mehatxupean ikusi zuten haien jardunbidearen oinarri garrantzitsua den udal edo eskualde eremua, hiriburuetako telebista komertzial indartsuen mesedetan. Prisa eta Vocento taldeek ere, ordurako estatu mailako kateetan parte hartzen baitzuten, mehatxupean ikusten zituzten telebista lokalean egindako inbertsioak. Eta, edozein kasutan, guztiek onartezintzat jotzen zuten telebistaren digitalizazioa maila lokaletik hasia —jendeak deskodetzailerik ez duenez oraindik ezin izango ditu telebista lokalak ikusi—, eta askok ezinezko ere ikusten zuen digitalean emititzen hasteko egin beharreko inbertsioei aurre egitea.

Gauzak horrela, pasa den urteko amaiera aldera, berriaz ere estatuaren aurrekontuak —oraingoan 2004koak—

laguntzen dituen Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte-arlokoen Legea erabiliz (63/2003 Legea), berriro moldatu zuen gobernu zentralak Telebista Lokalen Legea, eskakizun haietako batzuei erantzunez baina orokorrean talde handien presioari amore emanaz. Hona hemen aldaketa nagusiak:

- Telebista lokalentzako lizentziak digitalean emititzeko emango badira ere, bi urteko luzapena (2004ko urtarilaren 1etik hasita) emango zaie haien hartzaileei modu analogikoan emititzen jarraitzeko.

- Telebista lokalak berezko programen gutxieneko emisio-denbora batzuk betetzera behartuko dira: 4 ordu eguneko eta 32 asteko; ez dira, ordea, telebistako programa gisa aintzat hartuko honakoak: irudi finkoen emisioak, publizitatea, teledendak eta promozio komertziala helburu duten joko eta lehiaketak, ikus-entzuleen parte-hartze zuzenean oinarritutako kontsulta eta jokoak, eta beste medio baten programen aldi bereko berremisio hutsak; haiek, halaber, 13:00-16:00 edota 20:00-23:00 ordu tartetan eman beharko dira eta testuinguru geografikoari lotutako edukiak izan beharko dituzte.

- Katean egindako emisioei dagokienean, aldi berekoak gehienez jota ere eguneko 5 ordukoak eta asteko 25ekoak izan ahalko direla xedatzen da (ez da ezer esaten aldi berekoak izango ez diren talde edo kateko programen emisioei buruz).

- Taldeei dagokienean, lehenagoko debekua indargabetu eta honako muga berriak ezartzen zaizkio elkarte baten parte-hartzeari telebista ezberdinetan:

- Estatu mailako telebista baten kapitalean parte-hartze esanguratsua izanez gero (%5etik gora), ezin maila lokaleko telebisten kapitalean parte hartu haien demarkazioetako biztanleria, batuta, estatuko %25etik gorakoa bada.

- Autonomia mailako telebista baten kapitalean parte-hartze esanguratsua izanez gero (%5etik gora), ezin autonomia erkidego horren baitako maila lokaleko telebisten kapitalean parte hartu haien demarkazioetako biztanleria, batuta, erkidegoko %25etik gorakoa bada.

- Ezin demarkazio bereko bi telebistetan parte hartu.

Merezi du arau haietako batzuen esanahia eta ondorioak azpimarratzea. Lehenik, gutxienerako emisio denborak betetzeko telebista-programa kontsiderazioa jasoko duten saioen gaineko xedapena. Izan ere, telebista txiki-entzatat eta eredu lokalarentzat hain garrantzitsua den «karrusela» deitu dugun programa-mota definizio hartatik kanpo uzten baita, eta ez da, orduan, aintzat hartua izango emisio orduak zenbatzeko. Bigarrenik, talde mediati-koen parte-hartzeari buruzkoa, aukera emango baitzaie bai Prisari bai Vocentori telebista lokalean jarraitzeko ez bakarrik programa hornitzaile gisa, baizik eta baita kateen jabetzaren bidez ere —nahiz eta parte-hartzeak arau hartara egokitu egin beharko dituzten—. Hirugarrenik, kateen egindako emisioei buruzkoa, zabaldu egiten baita, arrazoi kultural edo informatiboek aparte, hura modu komertzial hutsean baliatzeko aukera telebista lokalen programazioa osatzeko.

Ondorioa argia da: taldeen mesedetan moldatu da le-gea eta telebistagintza lokala ohiko estatu mailako telebis-ta orotariko komertzialaren eredupean jarri da. Halaber, estatuak autonomia erkidegoei kendu egiten dizkie tele-bista lokala araupetu eta ordenatzeko eskuduntzak. Arau berriarekin, adibidez, Euskadi eta Nafarroa artean jardun-go zukeen ustezko euskarazko kate baten emisioak kon-trolatzeko eskuduntza estatuarena izango litzateke eta ez EAEko gobernuarena ez eta gobernu foralarena ere¹⁶.

Gauzak ez dira, ordea, hor amaitu. Hain zuzen ere, 2004ko martxoaren 12ko Ministroen Kontseiluaren bilku-ran Telebista Lokalaren Plan Teknikoa onartu baitzuen Gobernuak. Lerro hauek idazterakoan oraindik argitara eman ez bada ere, jakina da murrizketa garrantzitsuak egin dizkiola plangintza hark autonomia erkidegoetatik egindako demarkazio proposamenei. Hartara, EAEk 23 de-markazio eskatu bazituen, Plangintzak 13 besterik ez diz-kio aitortu. Nafarroan, berriz, 7 bakarrik eskatu zituen hango gobernu foralak, eta 5 jaso ditu Madrildik. Ez ditu-gu ezagutzen demarkazio haien hedapen geografikoak, baina edozein modutan argia dirudi egun telebista han-diek bultzatu dituzten lurralde dinamiken ildotik doala

araua; udalerrri txikietako telebistak, berriz, desagertzera kondentatzen dira. Dena den, ikusteko dago zer gertatuko den plangintza harekin, martxoaren 14ko hauteskondeek ekarri duten aldaketa politikoa dela eta.

Ondorioak

Kezkatzeko modukoa dela uste dugu Euskal Herriko telebista lokalek azken urteetan izan duten bilakaera. Izan ere, telebista eredu berri baten garapena baino telebista lokalen kolonizazio prozesua erakusten duela uste dugu, komertzializazioaren eta, bereziki, talde handien presioaren eraginaren pean. Espainiako gobernuaren ikus-entzunezkoen inguruko legegintzak eta Euskadi zein Nafarroako instituzioen —autonomiko zein udal mailako— utzikeriak ere lagun izan dira prozesu horretan. Erabat desregulatu edo araugabetutako testuinguru batean, merkatuak eta enpresa handiek euren legea inposatu dute, bai egituran —multimedia kontzentrazioa—, bai kate-antolaketa —AEBetako *network* eta telebista lokalen antzekoa—, bai programazio-eremuan. Euskal Herriko erakunde autonomikoak eta udal mailakoak, berriz, ez dira gauza izan telebistagintza lokalaren garrantziaz garaiz ohartu eta haien beharretara egokitutako politikak bideratzeko. Ekonomikoki itota, talde handiekiko babes legalik gabe, tokian tokiko ekimenek, gizarte taldeek zein enpresa txikiek bultzatutakoek arazo larriak dituzte gaur egun garatu eta nabarmentzeko; arazo are larriagoak izango direnak datozen urteetan, Madrilgo Gobernuak ezarritako azken lege aldaketekin. Erakunde autonomikoak ere euren eremuetan ikus-entzunezko arloa antolatzeko oraindik ere esku-men gutxiagorekin aurkitzen dira. Euskara, berriz, baztertuta geratu da telebista lokal gehienetatik.

Hura guztia ikusita derrigorrezkoa iruditzen zaigu Euskal Herrian telebista lokalaren gaineko eztabaida zabalabiatzea: gure komunikazio sistemaren parte inportantea da dagoeneko, baina are garrantzitsuagoa izango da etorkizunean. Ez da erraza ikusten nola berbidera daitekeen

egungo egoera, dagoeneko kate handien interesak hain garatuak daudela, are gutxiago erakunde autonomikoek estatuaren aurrean dituzten mugekin ikus-entzunezko sistema propio bat araupetzeko. Baina, edozein modutan, derrigorrezkoa ikusten dugu, EAEn behintzat, ikus-entzunezko sistemaren gaineko orain arte ez bezalako legegintza eta instituzionalizazio propio bat eraikitzea, Ikus-entzunezkoen gaineko euskal lege bat eta Ikus-entzunezkoen Euskal Batzorde Goren bat, alegia, gauza izango liratekeenak ikus-entzunezko sistemarako, eta haren baitan telebistagintza lokalentzako, irizpide eta politika-printzipio berri batzuk ezartzeko. Nafarroako Legea eta Batzordeak horren adibide izan litezke, baina bada eredu egokiagorik non begiratu, hala nola Kataluniako CAC (Consell de l'Audiovisual de Catalunya). Hona hemen gure ustez telebista lokalaren gainean aintzat hartu beharreko irizpide batzuk:

- Pluraltasuna, zentzu ezberdinetan ulertu beharko litzatekeena. Batetik, ez dago telebista lokal mota edo eredu bakar bat, handi edo txiki, komertzial edo gestio publikokoa. Denetarik dago eta seguruenik denetarik egon behar da telebistagintza lokalean. Izaera edo tamaina bategoa edo bestekoa izanda ere, ordea, gertutasuna izan beharko litzateke telebista haien ezaugarria. Gertutasuna, zaila bada ere mugatzen, hurrengo puntuetan joango gara zehaztuz. Bigarrenik, telebista lokalak komunikazioaren pluraltasunaren gotorleku gisa. Komunikazioaren kontzentrazioa ez da arriskua bakarrik euskal komunikazio sisteman: arazo larria ere bada dagoeneko, eta telebista lokalera hedatzen ari da, taldeen multimedia dibertsifikazioaren bitartez. Zaila da dibertsifikazio hura galaraztea, hain zuzen ere, komunikazio taldeek ere paper garrantzitsua joka baitezakete telebistagintza lokalaren dinamizazioan, duten inbertsio kapazitatea dela-eta. Baina edozein kasutan irizpideak garatu beharko lirateke kontzentrazio mediatikoa kontrolatu eta mugatzeko.

- Zerbitzu lokala: telebista lokalen hedapen eremuek udal eta eskualde mailako berezitasun geografiko eta kulturalak errespetatu beharko lituzkete; kableak ez lituzke,

gaur gertatzen den bezala, batzuk (probintzia) besteen gainera (eskualdea, udala) jarri beharko.

- Tokian tokiko programazio eta produkzioaren garapena: estatu mailako eduki eta molde orotariko programazioen aurrean, eduki lokalen produkzioa ziurtatu beharko litzateke telebista lokalen jardura nagusi eta negozio-eredu modura; informazioa, edozein kasutan, jardura horren ardatza izatea ziurtatu beharko litzateke. Telebistaren bideragarritasunari dagokionean, garrantzitsua izan daiteke ere tokian tokiko komunikazio zerbitzuen integrazioa, sinergiak aprobeztatzuz.

- Kalitatea: bai emisio-transmisio-hartze katearen alderdi teknikoari dagokionean, bai, batez ere, edukiei dagokionean. Telebista lokalenak berezkoak diren baliabideak ere, hala nola karrusela eta agendak, baztertu baino irizpide horren arabera eraiki beharko lirateke. Are gehiago, etorkizunari begira, non digitalizazioa eta multimedia integrazioa nagusituko diren, garapen esanguratsua ezagutuko duten arloak izango dira bi horiek.

- Lankidetzeta eta elkartaritatea: produkzioa sustatzeko eta programazioa hornitzeko modu berriak garatuz —ko-produkzioa, trukea, telebista lokalentzako programen azokak...—. Gaur egun, kateak eta hornitzaile komertzialak dira programa iturri bakarrak; euskaraz dihardutenek ez dute ezta aukera hori ere. Euskararentzat bereziki, izugarritzko garrantzia izan dezake lankidetzak eta trukeak. EITBk paper garrantzitsua joko dezake horretan.

- Euskara: ez da onartzekoa euskarak telebista lokaletan bizi duen bazterketa; are gehiago, telebista lokalak paper garrantzitsua du jokatzeko hizkuntza-normalizazioan. Interbentzio publikoa derrigorrezkoa da hizkuntza kuotak ezarriz edota euskararentzako frekuentziak erreserbatuz, euskaraz jardungo duten zerbitzu publikoko telebista lokalak ezarriz eta euskararen aldeko gizarte ekimenak sustatuz. Garrantzitsua litzateke baita ere euskaraz diharduten kanalen arteko sinergiak bultzatzea, koprodukzio formulak eta trukeak bultzatuz.

- Finantzaketa eta gestio publikoak sustatu: diru eskasia dela-eta biziraupen mugan daude telebista lokaleta-

ko asko, aurrera jo ezinda, ez kalitatean ez garapenean. Euskal Herriko telebista lokalaren finantzaketa publikoa oso txikia da. Derrigorrezkoa da diputazioen eta udalen zereginaren birplanteamendua telebista lokalen inguruan, askozaz diru gehiago inbertituz gizarte ekimenen sustapenean edota gestio zuzeneko zerbitzu berrietan. ¶

1. Iparraldeko telebista lokalaren egoera guztiz ezberdina da Hegoaldekoarekiko. Zerrenda egiterakoan bertan diharduten kanalak aipatu egingo baditugu ere, ez ditugu, ordea, bestelako azterketak egiteko orduan aintzat hartuko.
2. Euskal Herriko Unibertsitateak finantzaturiko (1/UPV 00016.323-H-13687/2001) «Telebistagintza lokalaren panorama Euskal Herrian» izeneko ikerketa-proiektu zabalean oinarrituta dago artikulua hau. Artikulu honen egileak ikerketaldiaren partaide berberak dira eta 2002an hasi eta gaur egun ere lan horretan dihardute. Bide honetan, oso lagungarriak izan zaizkigu telebista kanal desberdinetan elkarrizketatu ditugunen kolaborazioa eta baita ere Josu Amezaga eta Miren Josu Aranburu ikerlariak eskainitako laguntza. Hemen aurkezten diren datuak 2002 urteari dagozkie gehienbat.
3. Zehatzak izateko asmoz, honako definizio instrumentala erabili dugu telebista lokala zedarritzeko: bere emisio-eremua Euskal Herri osoa baino txikiagoa dutena. Hala eta guztiz ere ez da erraza telebista lokalen kopuru erabat zehatza eskaintzea. Ondoren ematen den zerrendan kablez edota lurrazalez emititzen duten telebistetatik duela gutxi desagertu den Ermuko Telebista eta berriro itzuli den Gran Bilbao Televisión sartu ditugu; baita duela gutxi emisioan hasi den Goierri Telebista ere. Internetez emititzen dutenetatik, berriz, Iparraldekoak eta Proyección TV hartu ditugu aintzat (parentesi artean bada ere aipatzekoa da Proyección TVk 2004ko martxoan euskarazko kanal berria zabaldu duela, www.euskaraz.tv izenarekin). Ondarroako TB, oso aspaldiko kontua denez, ez dugu aipatu. Ez ditugu sartu, ezta ere, Tele San Sebastián eta Canal 23 estazioak, biak Tebilbilbaorekin zerikusia dutenak. Izan ere, Tele San Sebastián Donostialdean frogatan emititzen ari den kanala da, haren asmoa delarik Tebilbilbao eta Televitoriarekin batera EAE mailako katea osatzea. Canal 23, berriz, teledendan oinarritutako kanal baten esperimentazio saioa izan zen, eta oraindik Bilbo inguruko zenbait tokitan ikus badaitete ere, ez du dagoeneko frekuentzia okupatzea baino beste helbururik. Azkenik, zerrendatik kanpo utzi dugu, halaber, azkenaldian bai Bilbon bai Donostian TVL kateak sustatuta (zeina Madrilgo Telesierrek sortutako katea baita) 906 zerbitzuekin lotutako emisioak eskaintzen dituzten telebistak. Telebista hauen zerikusia eremu lokalarekin hutsa da, ez baitute emisio lokal bat bere ere egiten.

Bestalde, nahiz eta zerrendan agertu, Iparraldekoak, Ermukoa eta Proyección ez ditugu egituraren azterketarako aintzat hartu. Programazioaren azterketarako, aldiz, modu erregularrean emititzen duten telebisten kasura mugatu gara. Aurrekoetz gain, hortaz, ez ditugu, ezta ere, aintzat hartu, noizik eta behin bakarrik emititzen duten telebistak, esaterako, Telefusti, Buñuel TV, C.L.

- Arguedas eta C.L. Funes; ezta azterketa egiteko garaian martxan denbora gutxi zeramaten Goierri TB edo Popular TV Navarra ere.
4. Internetez emititzen duten Angeluko, Baionako eta Donibane Lohizunekoek gain, noizean behin, azkenean 2002ko neguan, pantailaratu izan den Kanaldude Telebista sartu dugu. Azken honen, bere historian, bideo zinten salmenta sistema erabili izan duela aipatu behar da.
 5. AIMCren erroldaren datuak ez dira guztiz zehatzak eta zenbait adituk kolokan jarri dute haien zuzentasuna. Adibidez, 27 telebista ematen ditu EAerako eta 6 Nafarroarako, baina gure datuek behintzat kopuru altuago erakusten dute. Katalunian ere, bertako adituek egindako lan batean, 104 telebista zenbatu dituzte, AIMCren kopuruaren behetik, hortaz. Hala eta guztiz ere alderaketak egiteko daukagun erreferentzia bakarrenetakoa da.
 6. Kontuan hartzekoa da emaitza honetan Nafarroako kable bidezko telebisten kopuru altuak duen eragin handia, haien emisioa oso xumea denean kopuruei dagokienez —batzuk herriko jaietan bakarrik emititzen dute—.
 7. Nafarroako kasua berezia da alderdi honetatik begiratuta, bertan ez baitago telebista autonomikorik. Aspaldiko kontua da Iruñeko Canal 4 telebista lokalaren ahalegina Nafarroa osora hedatzeko, eta hain zuzen ere Gobernuak berak oztopatu zuen ahalegin hura baimenik gabe eraikitako emisoreak ixtera behartuz. Azken urtean, Nafarroako Gobernuak telebista digital autonomikoko bi lizentzia emateko lehiaketa zabaldu zuen, zeinean Iruñeko telebista lokal bi, Canal 4 eta Canal 6 izan diren garaile. COPEren Popular TVk ez du lizentziarik lortu, baina hala ere telebista lokal gisa emititzen jarraitzen du.
 8. Bizkaiaren kasuan, baita Barakaldoko Tele 7 ere.
 9. Zarautz, Eskoriatza eta Urnietan, Euskaltelek herri haietan lehenetik ezarrita zeuden kable sistemak bereganatu zituen, haiek ziztuzten konpromisoak errespetatuz. Mendaron, Europako Batasunak sustatutako proiektu piloto baten baitan dihardu telebista lokalarekin.
 10. Kokatze estrategikoaren kontzeptuarekin adierazi nahi da telebista horien helburua ez dela, epe laburrean behintzat, etekin ekonomikoak lortzea, baizik eta eremua okupatzea, helburu ezberdinekin baina betiere taldearen garapen estrategikoaren funtzioan: multimedia-egitura maila lokalean garatu; negozio arlo berriak zabaldu; eragin ideologikoa indartu... Jokabide hori nabarmena da Vocento-Correo eta Prisaren kasuetan, baina baita Promecal edo Local Mediarenean ere, nahiz eta azken hauek dimentsio txikiagoa izan komunikazio talde gisa.
 11. Azkenaldian, bai Bilbon bai Donostian, TVL kateak sustatuta (Madrilgo Telesierak sortutako katea), 906 zerbitzuekin lotutako emisioak eskaintzen dituzten telebistak hasi dira berriro ere ikus-

ten. Telebista hauen zerikusia eremu lokalarekin hutsa da ez baitute emisio lokal bat bera ere egiten. Ez dira hortaz aintzat hartu azterketarako.

12. Televisión Alto Nervión-en kasua, adibidez, nabarmena da, telebista lokala kateko programazioaren emisioa besterik ez baita, Ser irrati katearen azpiegitura teknikoak aprobetxatuz. Baina bes-tetan ere oso garrantzitsua da telebista katearen eta Ser irrati ka-tearen arteko harremana, azken honen esatari askok eta askok aurkezle eta kolaboratzaile lanetan jarduten baitute gero telebis-tan.
13. Galdeketen bidez lortutako eta Merkatal Erregistroetan aurkeztu-tako kontuen datuak erabili ditugu atal honetarako. Kasu gehienez-tan 2002 urteari dagozkie, baina gutxi batzuetan 2001 urtekoak dira.
14. Euskal Herrian «teletestua», «pantailazoak», «powerpointa» ala «buklea» hitzak gehiago entzuten diren arren, aproposagoa iru-ditzen zaigu Kataluniako karrusela erabiltzea.
15. Xedapen hau garrantzitsua izan da zenbait autonomia erkide-goetan, hala nola Katalunian, non legea eman zenerako telebista mapa nahikoa osatuta zuten. Hain zuzen ere, Kataluniako Gene-ralitateak, legea aintzat hartuta, lizentziak eman ez baino ozto-patu bai egin duela behin eta berriro telebista berrien zabaltzea, behintzat eragile pribatuek sustatutakoak. Halaber, estu kontro-latu ditu kanalen eskualdaketak, Espainiako komunikazio taldeen sarrera galaraziz (Localiak telebista bakar bat du; Vocentok edo Local Mediak batere ez). Orain ere, xedapen hari eutsiz, digitali-zazioa ezarri bitartean egun martxan dauden telebista lokalei ba-bes legala eta administratiboa eskaintzeko legedia eman eta bai-men-prozedura abiatu ditu Kataluniako Generalitateak.
 Gurean ordea, legeak garrantzi txikia izan du eta xedapen hark, dagoeneko, ez du ezta ere Euskal Herriko telebista lokalak araupetzeko edo babesteko balio birtualik gordetzen. Hain zuzen ere, gaur egun martxan dauden telebistetatik %35 baino ez dira 1995 baino lehen sortutakoak.
16. Hain zuzen ere, Kataluniako Gobernuak inkonstituzionalitate helegitea jarri dio arau honi, telebista lokalen edukiak finkatzeari dagokionean autonomia erkidegoen eskuduntzak zapaltzen di-tuela iritzita.



Euskal telebista lokalen oraina eta geroa

azken urte hauetan asko ugaritu da telebista lokalen kopurua. Gaur egun mota eta izaera ezberdineko berrogeita hamar telebista lokaletik gora ari da emititzen Euskal Herrian, eta gero eta gehiago dira euren eguneko «telebista-menuan» telebista lokalak sartzen dituzten ikusleak. Telebista lokala ez da, dagoeneko, euskal komunikazio sistemaren bazterreko aktorea, haren atal esanguratsua baizik. Eta ez bakarrik berezko alderdi komunikatiboan; baita maila ekonomiko, sozial eta instituzionalean ere, inbertsiogile, komunikazio talde eta eragile politiko eta sozialen arreta erakarriz.

Telebista lokalaren sektorean lanean diharduten hainbat lagunengana jo dugu euskal telebista lokalen panorama orokorrari buruzko iritzia eskatzeko asmoz. Honako auziak planteatu dizkiegu: euskal telebista lokalen identitate ezaugarriak; komunikazio talde handien eta telebista lokalen arteko harremana; euskarak telebista lokalen programazioan duen espazioaren balorazioa; administrazioak sektorea rekiko duen zeregina eta sektorea zuzentzen duen araudiaren inguruko hausnarketa. Galdeketa hainbat lagunei zabaldu diegu: komunikazio talde handiekin lotutako telebista lokaletako ordezkari, euskarazko herri telebista lokaletakoei, EAE eta Nafarroako administrazio-kideei, Euskalteleko ordezkari. Azkenean, sei lagunengandik erantzunak bildu ditugu guztira.

Ondoren, iritzi-emaileei egin dizkiegun lau galderak aurkezten ditugu:

- 1.- Nola ikusten duzu gaur egungo euskal telebista lokalen panorama? Uste duzu baduela berezko identitate zeinu edo eredu komunikatiborik?
- 2.- Azken urteotan komunikazio taldeen sarrera gertatu da hiribunetako zenbait telebista lokaletan. Nola ikusten duzu telebista lokalen eta kateen arteko harremana? Nola eragiten du kateak telebista lokalaren programazio politiketan eta izaeran? Zer leku uste duzu eduki beharko luketela tokian tokiko edukiek telebista lokalen programazioan?
- 3.- Euskarak oso leku txikia hartzen du gaur egun telebista lokalen programazioan. Zergatik uste duzu gertatzen dela hori? Uste duzu leku handiagoa izan beharko lukeela? Zein izango lirateke euskararen presentzia sustatzeko modu egokiak?
- 4.- Espainiako telebista lokalen gaineko araudi berriaren araberako lurrainokoa izan daiteke demarkazio berean emititu ahal izango duten telebista lokalen kopurua. Zuen esperimentziaz abiatuta, ba al dago lekurik horren eskaintza zabalerako? Nola eragingo du digitalizazioak gaur egun indarrean dauden telebista lokaletan?



Oihane Agirre

(GoiTB, Arrasate)

- 1.- Ez naiz oso baikorra gaur egun daukagun panoramari erreparatzen badiogu. Egia da telebista lokalez hitz egiten dugunean desberdintasunak handiak direla. Badira, euskara komunikatzeko tresna erabiliz gertukoa helburu duten telebistak; badira, euskaraz zerbait edo ezer emititzen ez dutenak baina gertukoa dutenak helburu; eta badira, kate handien gerizpean lan egiten duten telebistak, helburu komertzialak dituztenak. Beraz telebista mota ezberdinak ditugu eta ondorioz bakoitzaren eredu komunikatiboa ezberdina da. Ez nituzke guztiak zaku berean sartuko.

- 2.- Nik ez dut aukerarik hiriburuetakoko telebista lokalik ikusteko, beraz nik daukadan erreferentzia bakarra aldizkarietan ageri diren programazioena da. Gehienek bertako berriei eskainitako albistegi bat jorratzen dute eta nahikoa dute ordu erdiko saio hau telebista lokalaren etiketa izateko. Beste programazio ordu guztiak atzean dituzten kateek programatuta datoz.
Tokian tokiko edukiak izan beharko lirateke telebista lokalen ardatz. Gaur egun gainera, kate generalistak audientzietara begira daude eta honen aurrean betakook kontra programatu dezakeguna gertukoan oinarritutako saioak dira.

- 3.- Nola ikusten duzu euskararen egoera telebista lokaletan? Euskara hutsean diharduzuen telebista lokalek arazoak dituzue ikusleengana heltzeko? Eta programazioa osatzeko? Posible ikusten duzue euskaraz diharduzuen telebista lokalen truke- edota programazio-sarea antolatzea? Zer-nolako harremanak dituzue ETBrekin? Zer-nolako inplikazioa izan beharko luke gai honetan administrazioak?

Euskarak oso presentzia murrizta du hiriburuetakotelebista lokaletan. Badira gertuko telebistak dena euskaraz emititzen dutenak, baina ordu gutxi batzuez, izan ere bertan ekoizten dituzte euskarazko saio guztiak. Telebista kate handiek elikatzen dituzte erdarazko telebista lokalak programazioaren ehuneko handi batean; ez da hori gertatzen euskarazko herri telebistetan. Euskarazko saioez homitu ahal izango gaituena ETB da; badira zenbait hilabete lehenengo aldiz ETBk euskarazko saioen eskaintza egin digula. Lehenengo pausoa izan daiteke, akaso berandu.

Bigarren aukera izango litzateke, geure artean hornitzea, baina euskarazko tokiko telebisten esperientzia oso murrizta da. Hamarrera ere ez gara heltzen euskara hutsez emititzen dugun telebistak; hauegariko asko momentu honetan ez aurrera ez atzera dabilta. Gaur egun, gure arteko harremana oso kaskarra da.

Duda barik, egin beharreko lanen artean izan beharko genuke, herri telebistok, euskarazko telebisten arteko sare bat sortzea. Zenbait aurrerapauso eman ditugu baina hasieratan gaude, asko dugu egiteko.

4.- Euskal Herrian urte gutxitan zenbat kate sortu diren ikusirik, ez litzateke harritzekoa araudi berriak baimentzen duen laurainoko lizentziak agortzea. Telebista kate handiek interes handiak dituzte «lokaltasuna» saltzeko. Gobernua erandako ere tresna estrategikoak dira hedabideak, eta zer esanik ez telebistak. Azken hauteskunde haueetan agerian geratu da hori.

Ez dakit, digitalizazioa, eskura izango dugun tresna izango den herri telebistontzat!



Iñaki Alzaga

(Estrategia eta Negozio Garapenerako zuzendaria, Euskaltel)

- 1.-** Euskaltelek paper garrantzitsua jokatu du azken urteotako telebista lokalen garapenean. Nola ikusten duzu egungo euskal telebista lokalen panorama? Uste duzu baduela berezko identitate zeinu edo eredu komunikatiborik? Zein da Euskaltelen zeregina telebista lokalean? Zer irizpide erabiltzen dituzue telebista lokalak kable bidez probintzia osora edo bakarrik maila lokalera hedatzerakoan? Zer asmo dituzue datozen urteetarako arlo honetan?

Telebista lokalen sektorea, komunikazioaren euskal esparruan, finkatuta dagoen eta hazten ari den errealitate bat da. Hala ere, ez dauka izaera oso egituratua; izan ere, seinaleak gehituz joan dira baina marko alegal batean, egoera horri dagozkion zehazgabetasun eta arriskuekin. Horren guztiaren ondorioz, telebista lokal batek bete behar lituzkeen baldintza guztiak betetzen ez dituzten seinaleak ere agertu dira. Beraz, ezinbestekoa da guk nahi dugun telebista lokalaren eredia definituko duen marko legal egonkorra sortzea, hedabidearen berezko arriskueta-rik kanpoko eragozpenik gabe garatuko den ildo bat ahalbidetu dadin, eta haren bilakaerarako beharrezkoak diren inbertsioak erraztu ditzan.

Ez dut uste euskal telebista lokalak identifikatzen dituen zeinu edo eredu espezifikorik dagoenik.

Kable bidezko Telekomunikazio Operadore lizentziaren kontzesiorako lehiaketara 1998an gure burua aurkeztu aurretik, Euskadiko demarkazioan, hauxe argi genuen: kable bidezko telebistaren zerbitzua eduki lokalez hornitzearen garrantzia. Kablea, bere berezko konfigurazio teknikoa dela-eta —satelitea bezalako beste teknologia batzuen aurrean—, eduki lokalen teknologia da, edukiak ia-ia auzo mailan kokatzea ahalbidetzen baitu, seinalea nodoz

nodo kudeatsetik abiatuz. Horregatik, garai hartan bertan, kable bidezko telebistaren bezerorik gabe, une horretan lanean ziharduten telebista lokal nagusiekin harremanetan jarri ginen. Honako telebista lokalekin hitz egin genuen: Canal Gasteiz, Teledonosti, Canal Bizkaia, Tele 7 eta Telebilbao. Era berean, Arrasate Telebistarekin ere harremanetan jarri ginen (gaur egun Goiena Telebista), baina, kasu honetan, epe laburrean Arrasaten hedatzea aurreikusten ez zenez, hitzarmen espezifikorik ez zen ezarri. Goiena Telebistarekin, azkenik, duela gutxi sinatu dugu hitzarmena.

Seinalea sartzeko hitzarmenez gain, lurralde bakoitzean gutxienez telebista lokal baten kudeaketan eta akzionista taldean parte hartzea erabaki genuen. Horrela, etorkizunean telebista horiek eskualde mailako emisio berriak sortzeko motorrak izan zitezten lortu nahi genuen. Hainbat arazoi direla eta, ez zen posible izan Telebilbao eta Teledonostiarekin parte-hartze eta kudeaketa hitzarmenetara heltzea, eta azkenik 2001ean Gipuzkoa Televisión-en sorreran parte hartu genuen, hiru hiriburuetan presentzia ziurtatzeko asmoz.

Eduki lokalek guztiz bat egiten dute kablearekin, eta, beraz, horiek sortzeko jokaera dinamizatzailea izan behar dugu. Eginkizun horixe gure egin dugu telebista lokaletan parte-hartzearen eta horiek kudeatzearen bitartez. Gure estrategia honakoa da: guk parte hartzen dugun telebistek garatzen dituzten sareen bidez eduki lokalak indartzea. Baina gure oinarritzko egoera operadore izatearena da, hau da, seinalea igortzearena; horrela, eduki lokalak dituzten agente guztiekin egingo dugu lana, eduki horiekiko interesa eduki dezaketen bezero guztientzat gure sarearen bidez eskuragarri izan daitezen.

Euskaltelek, gaur egun, telebista lokalaren seinaleak analogikoan txertatzen ditu, abantaila handi batekin: bezeroak dekodetzailerik erabili gabe jaso ditzake seinaleak. Baina aukera horrek banda zabalera handia betetzea eskatzen du (kablearen ahalmena), digitalean beteko lukeena baino askoz ere handiagoa. Era horretan, analogikoan txertatu ahal izateko kanalen kopuru mugatua daukagu. Legearen

arabera, irekian emititzen diren eta legalki emandako seinaleak emititu behar ditugunez, erabilgarri zaigun espazioa mugatua da.

Muga horren aurrean, telebista lokal baten seinalea txertatzeko Euskaltelek erabiltzen dituen irizpideak hauek dira: bere esparru geografikoan, aipatutako kanalak Euskaltelen bezeroentzako duen interesa, eta esparru zabalagoetara hedatzeko, Euskaltelentzako izan dezakeen interes komertziala, zentzu zabalean. Beraz, kablean seinale bat sartzeko ezinbesteko baldintza da gure bezeroengan interesa piztea. Interes hori erraz hauteman daiteke, bezeroen edo bezero potentzialen multzoaren lagin bati galdeketa azkar bat eginez, bezeroen arreta zenbakietara egindako deiak aztertuz... Bigarrenik, seinalea, hasiera batean, bere emisioari dagokion berezko eremuan txertatzen dugu, hiriburuetako seinaleak salbu, horiek lurralde osoan txertatzea merkeagoa baitzaigu eremu horretara mugatzea baino. Seinale lokal bat eremu zabalago batera pasatzeko aukerari dagokionez, ikuspuntu komertzial batetik Euskaltelentzako interes argi baten ondorio baino ezin du izan, dela kanalak gure bezeroentzako interes jakin bat duelako, dela kanal hori prest dagoelako Euskaltelek bere gain hartzen dituen banaketa kostu garestiak ordaintzeko.

Epe erdian ez dugu baztertzen, teknologiaren eta honen kostuaren bilakaeraren arabera, gure eskaintza digitalean kanal lokalen eskaintza dezente areagotzea, Euskaltelen telebista digitalaren plataformaren baitan kanal lokal guztiak eskuragarri izatera ere iritsiz.

Gure etorkizunerako estrategia seinale lokalak dagoen eragin eremuan txertatuz joan daitezten indartzean datza, beti ere gure bezeroentzako gutxieneko interesa daukaten heinean, eta bereziki guztiz edo gehienbat euskaraz egiten direnak, alderdi horrekin konpromiso berezia baitauekagu. Parte hartzen dugun telebisten bitartez eskualde mailako telebisten sorrera ere bultzatuko dugu, horrela ia eskualde guztietan eduki lokalak sor daitezten. Epe erdian, Euskalteleko bezeroek eduki lokal onenez gozatu ahal izateko lan egingo dugu, Euskadiko telebista lokal ia guztietaraino iritsiz eta horietako bakoitzean beze-

roari interesa dakizkiokeen programak hautatuz. Jakinkizun dago, dena den, egitura horrek guztiak zer-nolako bideragarritasun komertziala izan dezakeen. Orain arte, eta salbuespen aipagarriak alde batera utzita, telebista lokalak defizitarioak dira, baina baita, zalantzarik gabe, etorkizunerako apustu garbia ere.

2.- Estatuko komunikazio taldeak Euskadiko hiriburuetan sartzea guztiz ulergarria da beren ikuspuntu komertziale-tik eta negozio asmoetatik. Alde batetik, beren publizitate merkatua babesten dute, eta komunikabide berri batean kokatzen dute beren burua. Epe laburrean, agian, komunikabide hori ez zaie errentagarria izango, baina bai epe erdian; eta, edozein kasutan, oso sinergikoa da bai bezeroaren ikuspuntutik bai edukiak sortzeko egituraren ikuspuntutik. Bestaldetik, kate gisa hartzen duten tamaina oso faktore garrantzitsua da estatu mailako ustiaketa komertziala hobetu ahal izateko.

Estatuko kate horiek dakarten arriskua telebisten izaera lokalaren nolabaiteko indargabetzea da. Baliozko eduki diferentzialei dagokienez, kateak egiten duen ekarpena oso mugatua da. Hala ere, argi dago irudi eta potentzial zabalagoa ekartzen duela. Erlazioak osagarritasunezkoa izan behar du. Informazio eta eduki lokalek funtsezko tar-teak bete behar dituzte, eta katearen edukiek emisioa osatu behar dute gehienbat aisiara bideratutako programen eskaintzarekin. Egungo araudiak dezente mugatzen du kate emisioa, gehienez eguneko bost ordura eta asteko 25 ordura. Kate emisioak beharrezkoak dira telebista lokalek nahikoa eduki izateko.

Pentsatzen dut kate bakoitzak bere estiloa izango duela, baina ukaezina da kate mailako hitzarmen batek katea emisio-tarte jakin batzuk esleitzera behartzen duela eta tarte horietako programazioaren eta edukien gaineko kontrola galtzen dela. Parte-hartzea zeharkakoa izan daiteke, kate batzordeen bitartez. Eduki lokaletan ez luke inolako eraginik izan behar, nahiz eta, eskuarki, gutxieneko kalitate mailaren eta oinarrizko programazio ildoen inguruko esparru-hitzarmenik egon daitekeen.

Telebista lokal batek bezeroari eskaintzen dion balioa tokian tokiko eduki lokaletan datza; beraz, eduki horiek programazioaren oinarritzko ardatza izan behar dute.

- 3.- Egia esan, euskarazko komunikabideak, enpresa ikuspuntutik, defizitarioak dira oro har. Euskaraz emititzen duten telebista lokal gehienak administrazio lokalak sustatu ditu edo administrazio lokalaren babes ekonomiko garrantzitsuari esker mantentzen dira. Halako babesik ez dagoenean oso zaila da euskarazko emisioari eustea.

Telebista lokaletan euskararen presentzia areagotzea ezinbestekoa da. Hori lortzeko, horretarako beharrezkoa den esparrua ezarri beharko da. Baina, edozein kasutan, komunikabideen hizkuntza eta enpresa errealitatea aintzat hartu behar dugu. Irratia eta prentsa adibide garbiak izan daitezke.

Administraziotik abiatu behar du ekimen sustatzailerak, ziur asko telebista lokalaren kontzesioetatik hasita. Horrela, guztiz ulergarria izango litzateke telebista lokal digitalarentzat demarkazio bakoitzeko aurreikusten diren lau programetatik gutxienez bat erabat euskaraz izatea. Gainera, beste kanalen euskarazko edukiak ere balioztatu beharko dira, batik bat barne produkzioko edukietan. Euskarazko telebistaren esparru guztietan saihestezina da administrazioaren parte-hartzea: produkzioari lagunduz (diru laguntzak), edukietara iristea erraztuz (edukien eskubiak EITBren bitartez), edukien hedapena eta banaketa erraztuko duten mekanismoak finkatuz, komertzialki babestuz...

- 4.- Hasiera batean, badirudi eskaintza gehiegizkoa izan daitekeela, batez ere hiriburuetatik at. Izan ere, eskualde batzuk ere programarik esleitu gabe geratuko dira. Exijitutako barne produkzio «freskoari» dagokionez, araudiak malgua izan beharko du, eta demarkazioen tamainaren arabera bereizketak egin beharko ditu. Bestela oso zaila da demarkazio txikietan programazioa eduki benetan lokalekin osatzea, leku horietan egunero bi ordu baino gehiagoko eduki berriak sortzeak lan izugarria eskatzen baitu.

Digitalizazioaren arazoak, emisoreei ere eragiten dien arren, gehiago jotzen die hartzaileei. Telebista digitalaren planen inguruan legeak eta legeak eginda ere, ez badago telebista digitalik prezio lehiakorretan (trantsizio garaian, hobe dualak), edo dekodetzaile merkerik ez badago, epe laburrean telebista lokal digitalak ezin izango du azkar garatzeko itxaropen handirik eduki.

Legeak digitalaren kontzesio esleipendunei 2006ra arte analogikoan emititzea baimentzen die, espektroak uzten badu. Beraz, logikoena hauze litzateke: egungo telebista lokal gehienak digitalaren kontzesioaren bitartez beren egoera legeztatzea eta analogikoan emitituz jarraitzea, baina, orain bai, frekuentzia legeztatu batekin. Egoera horretan, 2006a baino lehen, seguru asko, epea beste pare bat urte luzatuko litzateke.¶

[Xabier Eizagirrek euskaratua]



Iban Bengoetxea (Zarauzko Telebista)

- 1.- Gaur egun euskal telebisten panorama ez da batere argia. Bakoitzak bere errealitatea bizi du eta oso harreman gutxi dugu elkarren artean. Oraintxe hasiak gara arazo hori konpondu nahian, eta elkarren berri bilera ezberdinen birtartez izaten.

Telebista lokalek badute berezko identitate edo eredu komunikatibo propioa eta hori ikuslearekiko duten zuzeneko harremana litzateke, horixe da hain zuzen ere helburua, heritarrengandik oso gertu dauden gaiak joratzea. Helburu hori lortzea prentsa idatzian askoz ere errazagoa da telebistan baino, telebista hedabide garestiagoa eta medio aldetik konplikatuagoa delako. Hori da hain zuzen ere Euskal Herriko telebista lokalek sendotu eta behar bezala garatzeko duten arazoa, finantziazioarena alegia.

- 2.- Azken urteotan, komunikazio talde ezberdinak sartu dira telebista lokalak barneratu nahian. Honek suposatzen du telebista lokalek beraien emisio ordu kopurua handitzen dutela; baina, bestalde, beraien identitatea galdu eta kate handien menpe geratzen direla.

Kate handi horien joera euskararekiko, momentuz, ez da batere ona; arrazoi komertzialengatik euskara beren programaziotik baztertzen dute. Horrek arazoa suposatzen du euskal telebista lokalak kate handi horiekin bat egiteko garaian. Bestalde, kate handi horien atzean talde enpresarial zein politikoak daudenez, kontrola mantendu nahi dute programazio osoan.

- 3.- Nola ikusten duzu euskararen egoera telebista lokaletan? Euskara hutsean diharduzuen telebista lokalek arazoak dituzue ikusleengana heltzeko? Eta programazioa osatzeko? Posible ikusten duzue euskaraz diharduzuen telebis-

ta lokalen truke- edota programazio-sarea antolatzea? Zer-nolako harremanak dituzue ETBrekin? Zer-nolako inplikazioa izan beharko luke gai honetan administrazioak?

Gure kasuan euskararen aldeko apustua argia da, eta uste dugu Urola-Kosta bezalako eskualde euskaldun batean honek ez duela arazo azpimarragarri bat suposatzen.

Gure arazorik handiena programak ekoiztea da, horrek kostu altua duelako. Gure eguneroko esfortzua herriko eta inguruko gaiak behar den bezala jorratzen egiten dugu. Eguneroko ordu t'erdiko ekoizpena egiten dugu euskara hutsean, herriko eta inguruko gertaerak jorratuz; elkarrizketek, erreportajeek, mahai inguruek osatzen dute gure programazioa.

Ildo horretatik beharbada oso zaila litzateke guk eskaintzen ditugun saioak beste eskualde baterako baliagarriak izatea. Dena den, saioen elkartruke hori oso interesgarria iruditzen zaigu, eta uste dugu saioak uzteko garaian EITBk laguntza eskaini beharko lukeela. EITBren inplikazioa, egia esan, oso urria da.

Administrazioak kontzientziatu beharko luke Euskal Herriko telebisten garrantziaz, eta inolako zalantzarik gabe behar den bezalako laguntza eskaini beharko luke.

4.- Etorkizun hurbilari begira, aldaketak espero dira legedi berriarengatik eta digitalizazioarengatik. Hurrengo urteetan errealitate berri bat zabalduko da herri telebistetan eta, arazoak arazo, euskarazko herri telebistek beren nor-tasuna eta tokia mantentzea espero dugu.¶



Pedro Castillo

(Vocento-Correo Taldeko zuzendaria Euskal Herrian)

1.- Euskal telebista lokalen panoramari dagokionez, datu esanguratsua da Euskal Herrian dauden telebista lokalen kopurua txikiagoa dela Andaluzian eta Katalunian baino, non askoz ere garatuago dauden, kalitateari dagokionez ez bada, bai behintzat kopuruari dagokionez.

Ez dut uste, bestalde, euskal telebista lokalak besteetatik bereizten dituen zeinu identifikatzailearik dagoenik. Zeinu bereizle bakarra, izatekotan, euskaraz egin daitekeen programazioa da. Gainerakoan beste lekuetako oso antzekoa ereduaren oso antzekoari jarraitzen zaio. Eta, azken buruan, telebista lokal gehienak komertzialak direla kontuan hartuz —ikus-entzule kopuruan oinarrituz ahalik eta publizitate gehien lortzeko xedearekin—, egia da batzuen eta besteen programazioak asko mimetizatzen direla. Eredu publikoa salbuetsi beharko genuke, nahiz eta Euskal Herrian ez den oso zabaldua. Horietako bat, adibidez, Arrasateko Goiena Telebista litzateke, telebista lokal historikoetako bat, udalaren diru laguntza jasotzen duena.

2.- Zein da telebista lokalen arazo nagusia? Sektorea arautu gabe dagoela. Komunikabideak eta enpresak lizentziarik gabe antolatu dira, arrisku handiarekin beraz. Hauxe da sektore edo negozio honek azken hamar urteotan izan duen defizit garrantzitsuenetakoa. Araudirik ez egoteak, azken buruan, ziurgabetasun handia sortzen du, enpresaren ildoari dagokionez eta, ikuspuntu ekonomikotik begiratuta, elkarte horiek har ditzaketen enpresa-konpromisoerik dagokienez (langile kontratazioa, kasu). Ziurgabetasun horrek asko baldintzatu du enpresa horien bilakaera. Negozio defizitario bihurtu ditu, eta etorkizun zailekoak.

Beste arazo garrantzitsuenetakoa, beste komunikabide batzuekin alderatzen badugu, seinalea hartzearena da. Sa-

rritan aipatu izan dudan adibidea da: azken urteotan telebista lokal bat sortu eta antolatzea, egunkari bat muntatzea bezalakoak izan da, baina egunkariaren aleak kioskora iritsiko zirela bermatuta eduki gabe. Irratiarekin ere antzekoa da: irrati emisore bat sortzen denean, berehala nahi duenak entzun dezake. Baina telebistarekin ez da halakorik gertatzen: seinale anplifikatzaile batzuk jarri behar dira etxeetako antena kolektiboetan, eta hortik ikus-entzule kopurua murriztagoa izango dela ondorioztatzen da.

Beraz, aipatu ditudan bi faktore horiek, batetik araudi eza, eta bestetik etxeetan sartzeko arazoak (alegia, telebistaren seinaleak ezin dira etxe guzti-guztietara iritsi), sektorearen zailtasun ekonomikoak sakon areagotu dituzte.

Horregatik, azken batean, sektore honetan sartuz joan diren komunikazio talde handiek ahalbidetzen dituzten aukerak edo eskaintzen dituzten abantailak batik bat ekonomikoak dira. Izan ere, finantziario handiagoa ahalbidetzen dute eta enpresek denbora gehiago irauin dezakete harik eta araudia iritsi arte edo emisoreak eskualde osoan edo ikus-entzule potentzialenganaino sartzea lortu arte. Seinalearen hartzeari dagokionez, telebista lokal zaharrenek ari dira muga horretara iristen. Araudiari dagokionez, apirilean bertan argitaratu da Estatuko Boletín Ofizialean kanal digitalei buruzko araudia, eta, beraz, badirudi azken urteotan hainbeste itxaron dugun arautzea iristear dela. Baina ez dezagun ahaztu lizentzien kontzesioa telebista digitalaren sektorerantz bideratzen dela. Horrek ez du esan nahi telebista lokalek epe baten barruan analogikoan emititu ezin izango dutenik, eta erkidegoen esku egongo da lizentzien esleipena, hau da, gure kasuan, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren esku.

Beraz, oinarri honetatik abiatzen gara: telebista lokalak defizitarioak dira. Hau da, izaera defizitario horrek telebista lokal batek eguneko 24 orduetan —hau da, goizetik hasita gauera arte iristen den ordutegian— programazio interesgarri bat emititu ahal izatea eragozten du. Horrela, komunikazio talde handiek, beren ahalmen eta babes ekonomiko handiagoari esker, telebista lokalen programazioa osatzea ahalbidetu dute. Testuinguru horretan, duela urte

batzuk, telebista lokalek zenbait ordutegi irudi finkoekin, bideoklipekin edo teledendari eskainitako tarteekin osatzen zituzten, baita telenobela eta sorginen atalekin ere... Eta programazio mota horrek kalte handia egin izan dio telebista lokalen eredu komunikatiboaren irudi onari eta sinesgarritasunari. Azken buruan, telebista lokalak proiektu edo talde baten inguruan batzeak ordu horiek —batez ere goiz eta arratsaldekoak— betetzea eta programazio interesgamiagoak eskaintzea ahalbidetzen du.

Horrela, bi talde nagusi daude gaur egun estatu mailan: Localia (Prisa taldearena), eta Vocento (lehen Correo taldea zena). Horiez gain, elkarte batean biltzen diren telebista independenteek osatutako talde txikiagoak daude, eskualde edo erkidego mailakoak. Horiek produktu pake-teak erosten dituzte (filmak, telesailak, marrazki bizidunak, dokumentalak...) eta kostuak merkatzen dituzte; elkartuta egoteak informazioa, albistegiak eta programak elkartrukatzea ere ahalbidetzen die. Horren guztiaren ondorioz, programazioaren kalitatea hobetzen da, ikus-entzule kopurua handituz eta emaitza ekonomikoak hobetzeko aukera ere gehituz. Hauxe izan da, nire ustez, talde edo elkarteak telebista lokalen sektorean sartu izanaren ondorio garrantzitsuena. Gainerakoan ez zait iruditzen aipagai handirik dagoenik. Taldeak ildo editorial finko bat baldin badauka, agian kasuren batean ildo hori ikusi ahal izango da telebista lokalen edukietan. Hau gerta liteke Localia taldearen kasuan, talde honetxek bakarrik egiten baititu izaera orokorreko albistegiak, herri edo eskualde mailako albistegietatik kanpo.

Hori bai, azpimarratzekoa da telebista lokalen programazioaren *prime time* delakoan, hau da, 13:00etatik 16:00etara eta 20:00etatik 00:00etara, ikus-entzule gehien dagoen tarteetan alegia, eskuarki telebista lokal gehienetan batik bat eduki lokalez osatzen direla programazioak.

- 3.- Autonomia erkidegoetako araudiak garatuz eta epeak betez joango dira. Hau da, suposatzen da erkidegoek kontzesioen banaketa aurrera eramango dutela, eta erkidego bakoitzak bere eremuari eragingo dion arautegi diferentzia-

tu bat ere osatuko duela. Kasu horretan, pentsa liteke Eusko Jaurlaritzak egin dezakeen arautegian euskaraz emititu beharreko gutxienerako ordu kopuru bat ezarriko duela, eta baldintza hori derrigorrezkoa izango dela. Hau posible izango dela uste dut, nahiz eta hori hala izango dela ziurtatzeko datu ofizialik ez daukadan. Baina gerta liteke, beraz, lege aldetik euskaraz derrigorrezko presentzia edukitzea Euskal Autonomia Erkidegoko telebista lokalen kontzesioetan.

Euskararen presentzia telebista lokaletan, gaur egun, oso murrizta da, salbu eta kasu jakin batzuetan, herri txikiagoetako telebista lokal batzuetan alegia. Hiriburuetan, aldiz, zenbait esperientzia egin izan dira, baina egia esan duela bost urte inguru euskararen presentzia handiagoa zen gaur egun baino. Telebista lokalaren izaera defizitarioak, komunikabidea irekita mantendu ahal izateko etengabe kapital hedapenak egitera behartzen baitu, euskaraz zabalkunde txikiagoa edukitzea eragiten du. Nahiz eta euskal hiztunen kopurua gero eta handiagoa izan, azken batean ikus-entzule kopurua txikia da eta ordu tarte horietako publizitate kopurua ere txikiagoa da, eta, ondorioz, oso zaila bihurtzen da euskarazko edukiak programatzeari ekonomikoki eustea. Nire ustez horixe da, gaur egun, telebista lokalen programazioetan euskararen presentzia areagotzea eragozten duen zailtasunik handiena. Hau da, arrazoia ekonomikoa baino ez da. Herri txikiagoen kasura itzultzen bagara, non euskal hiztunen kopurua askoz ere handiagoa den, edo udalak euskarazko programazioa diruz laguntzen duen, euskararen presentzia handiagoa da.

- 4.- 1995eko lege bat dago alor honetan. Lege horrek, hasiera batean, kasu batzuetan baino ez du arautzen telebista lokala, ez guztietan. Izan ere, ate bat irekita uzten die 1995 aurretik ari ziren telebistei emititzen jarrai dezaten orain arte iritsi ez den lizentzien behin-betiko banaketa egin bitartean.

Telebista lokalen tipologia oso zabala da: estatu mailan funtzionatzen ari diren mila telebista lokal inguru

daude, batzuek besteek baino programazio kalitate maila hobea dute, batzuek eguneko 24 orduetan emititzen dute, besteek urtean egun bakarrean (herriko jaiak direnean bakarrik, alegia). Araudi egoki batek tipologia aberastasun hori ere aintzat hartu beharko luke.

Telebista lokalari buruzko araudi horren pean ziurgabetasun handiko sektore bat garatu da. Lehen esan bezala, apirilean argitaratu da Estatuko Boletín Ofizialean frekuentzien banaketa, telebista digitalean demarkazio bakoitzean emititu ahal izango duten kanalen kopurua. Telebista digitalak kanal bakoitzean gutxieneko kalitate batekin lau programa ezberdin emititu ahal izatea uzten du. Beraz, demarkazio bakoitzeko lau telebista lokal egon daitezkeela aurreikusten du araudiak. Euskal Autonomia Erkidegoan guztira hamazazpi demarkazio ezarri dira, eta demarkazio bakoitzean enpresa ezberdinek kudeatutako lau telebista egon daitezkeela zehazten du arauak. Jakina, hau guztia bideragarriagoa izango da biztanle kopuru handiagoa duten demarkazioetan, hau da, hiriburuetan eta hiriburu inguruetan; eta zailagoa, noski, biztanle gutxioko eskualdeetan. Beti ere kontuan hartu behar baitugu telebista hauek enpresa pribatuek finantzatzeko dituzten ekimenak izango direla, eta finantziario hori publizitate iturrietatik datorrela nagusiki.

Lau kanal horietatik bat udalerriko telebistarentzat gordeko dela ulertzen da, hau da, hala nahi duten udalerririk herri mailako telebista bat izan dezakete. Baina demarkazio bakoitzean udalerririk bat baino gehiago dagoenez, udalerririk horiek diruz lagundutako telebista lokal publiko bat eratzea adostu beharko lukete. Beste hiru kontzesio geratuko lirake, beraz: kontzesio pribatuak izan litezke, edo baita irabazasmorik gabeko elkarteek sustatutakoak. Baina era batera edo bestera zailtasun ekonomiko larriak izango lituzkete telebista lokal horiek, publizitate merkatua oso konplikatu baita. Gainera, telebista tekniko ere garestia da; kostuak merkatuz doaz, egia da, teknologiak aurrera egiten duen heinean, baina hala ere telebista komunikabide garestia da. Berriro ere, beraz, muga ekonomikoen arazoarekin egiten dugu topo.

Digitalizazioari dagokionez, 2012an emisio analogikoa, gaur egun gure etxeetan ezagutzen duguna, desagertu egingo dela aurreikusten da. Agian urte batzuk aurreratu da itzalaldi analogiko hori, edo agian luzapen bat egongo daiteke.

Digitalizazioak edukien transmisioaren eta hartzearen kalitatea hobetuko du, hau da, ikus-entzunezko seinalea askoz hobea izango da. Gainera, ikus-entzulearen zereginarekin ere aldatuko da telebistaren aurrean, bien arteko erlazioa interaktiboa izango baita. Ikus-entzuleak hainbat zerbitzuen bitartez parte hartu ahal izango du: lehiaketak, bozketak, edukien karta... Beraz, ikus-entzuleak edukiak hautatu eta eduki horiekin interakzio erlazioa eduki ahal izango du.

Digitalizazioak, bestalde, gaur egun emititzen duen kanal generalista bakoitzari (TVE, ETB, Tele 5, Antena 3...) lau kanal ezberdin edukitzea baimenduko lioke. ETBk, adibidez, halaxe egiten du dagoeneko, lau kanal emititzen baititu digitaletan (ETB1, ETB2, euskal diasporari zuzendutako nazioarteko kanala eta ETB Sat). Horren ondorioz, doako 30 kanal inguru jasotzera hel gaitezke. Hau da, telebistaren fenomeno asko aldatuko da gaur egun ezagutzen dugunarekin alderatzen badugu. Telebista lokalaren alorrean ez ezik, baita estatu edo erkidego mailako telebista orokorren eremuan ere: askoz ere eskaintza handiagoa egongo da, ikus-entzulegoa are gehiago zatikatu da, telebista kate bakoitzak gero eta ikus-entzule kopuru txikiagoa izango du, publizitatearen diru sarrerak gero eta gehiagoren artean banatu beharko dira... Beraz, kontsumo aldetik ezaugarri arras ezberdinak izango dituen fenomeno datorkigu urte gutxitan.¶

[Xabier Eizagirrek euskaratua]



Sonia Díaz de Corcuera

(Canal Gasteiz TV, Localia)

1.- Euskal telebistek ezin dute estatu mailan sortzen ari den mugimendu globalaren abstrakzioa egin. Hau da, telebista lokalen esparruaren inguruan komunikazio talde handiak ari dira biltzen. 24 orduetan irekian emititzen duten benetako telebista kateak sortzen dituzte, mota guztietako edukiekin. Eduki horiek, gainera, gertukoaren —lokal gisa ulertzen dena— eta urrunekoaren —gainerako edukiak— arteko banaketa lerroa ezartzen dute. Etorkizun hurbilean, lege aldeko panorama argitzen denean, telebista lokalek eta Lurrazaleko Telebista Digitalek zapaldu beharko duten eremua honakoa izango da: batetik, komunikazio talde handietara lotutako telebista lokalak egongo dira (Canal Gasteiz, Canal Bizkaia, Localia Txingudi, Localia Gipuzkoa...), eta, bestetik, bestelako telebista lokalak, ekonomikoki iraun dezaketen heinean bakarrik egingo dutenak aurrera independenteki.

Nire iritziz, telebista lokalen merkatuan komunikazio talde handiak sartu izanaren ondorioz, hedabide horien berezko nortasuna desitxuratu egiten da. Egia da programazio eta publizitate lokalari lekua eginez parrilla generalista baten baitan diharduten telebista lokalak beren berezko nortasuna sustatzen eta azpimarratzen saiatzen direla euskal esparruan, euskarazko edukiak emitituz eta tokian tokiko ikus-entzuleen premiei erantzuten dieten esparru lokaleko edukiak eskaintzeari garrantzi berezia emanez. Beraz, komunikazio talde handietara lotutako euskal telebista lokalek berezko euskal nortasuna galtzen dute, espazio gutxiago daukate nortasun hori proiektatzeko, eta, aldiz, autonomoki eta independentziaz diharduten euskal telebistek sortu zirenetik daukaten euskal nortasunari eusten diote.

2.- Komunikazio talde handiak bi arrazoirengatik hasi ziren telebista lokalen aldeko jarrera hartzen: batetik, ikus-entzule kopuruagatik, eta, bestetik, ihes egiten ari zitzaien publizitate merkatuagatik, herritar eta iragarle lokalengandik hurbilago dauden telebista lokalek hartzen baitzuten. Talde handiak (Localia, Vocento eta beste) telebista lokalen sareak sortzen hasi dira, kalitate eta ekonomia terminotan oinarritutako asoziazio erlazioa justifikatuz. Telebista lokal asoziatuak kalitatezko edukiak (film komertzialak, animazioa, albistegiak, kirolak...) eskuratzeko moduan daude kostu onargarri batean; eta talde, kate edo sarea esparru lokaleraino hedatzen hasten da bere garroak, edukiak eta publizitate tarteak inplementatuz eta indartuz, eta, oro har, merkatua eta ikus-entzule kopuruak finkatuz. Sortzen diren sinergiak atsegingarriak dira bai aurrekontu estua duten telebista lokalentzat bai irekian diharduten sareen bitartez merkatu guztietara iristeko asmoa duten komunikazio taldeentzat.

Telebista lokalen programazio politikari buruz, telebista lokalen kate handiek ezartzen dituzte publizitateari eta programazio lokalari dagozkien tarteentzako ordutegiak. Eskuarki aplikatzen den irizpidearen arabera, *prime time*-a izaera lokala duten edukiei uzten zaie.

3.- Arabaren kasuan, izaera lokaleko hiru telebista daude, eta hiruek batik bat gaztelaniaz emititzen dute beren programazioa. Gure kasuan, Localia Canal Gasteizek beti gordetzen du tarte bat euskara hutsezko edukientzako, baina egia esan tarte hori ez da emisio osoaren %13ra iristen.

Izan ere, honakoagatik betetzen du euskarak telebista lokalen programazioetan hain tarte murrizta: iragarle gehienek ez dute euskaraz hitz egiten eta nahiago dute beren publizitatea gaztelaniazko edukiei atxikita joatea; eta Arabaren kasuan, gainera, ehuneko txiki bat ezik, ikus-entzule gehienak gaztelaniadunak dira, eta beraz gaztelaniazko edukiak eskatzen dituzte. Canal Gasteizen saiatzen gara euskaldunen eskariari erantzuten, baina, egia esan, programazioaren %80 gaztelaniaz emititzen da

merkatuak hala eskatzen duelako. Telebista lokaletan euskararen presentzia sustatu ahal izateko, euskarazko eduki horien eskaria areagotu beharko litzateke eta iragarleek beren publizitatea euskaraz jartzea edo euskarazko edukiei atxikita eskaintzea eskatu beharko lukete. Egungo egunean, euskal erakundeek ezik, gainerakoek ikus-entzule gehienengana irits daitezkeen edukien aldeko apustua egiten dute. Suposatzen dut Araba alor honetan gainerako euskal lurraldeekiko zertxobait bestelakoa dela.

- 4.- Ez, inola ere ez. Tarta ez da guztiontzat iristen. Merkatua den bezalakoa da eta ez dago guztiontzako lekurik. Antelizazioaren arazoa gero eta zailagoa da saihesten demarkazio batean emititzen duen lehen telebistaren ondoren datorrenarentzat, eta publizitate merkatuak ezin du iritsi lau telebista lokalen ekonomia elikatzerara. Oraina telebista lokalen digitalizazioa da. Eta etorkizunari begira pentsatu eta jorratu behar da oraina. Sistema analogikoak desagertzera doaz, eta teknologia digitala dagoeneko errealitate bihurtu da telebista lokalen esparruan, luzaroan irauteko itxura guztiarekin gainera. Lurrazaleko telebista itzali egingo da urte batzuk barru, eta telebista digitala, seinalearen harreraren arazoa konpontzen den heinean, laster izango dugu gure artean. Lehenbailehen hasi beharko dugu errealitate berri horretara egokitzen. Aurrekontu arazoak dituzten eta kalitate baxuarekin emititzen duten telebista lokalen estazioak bakarrik geratuko dira bide bazterrean, ezin izango dietelako aurre egin Lurrazaleko Telebista Digitalaren altzora igotzeko ezinbestekoak diren inbertsioei. ♪

[Xabier Eizagirrek euskaratua]



Ramon Zallo

(EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioaren katedraduna, eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko aholkularia)

1.- Telebista lokalek ez dute oraindik beren lekua topatu. Arautegirik ezean, estatutu oso hibridoa eta kasuaren araberakoa dute: lokalak, eskualde mailakoak, probintzia mailakoak edo kate-terminalak; horrez gain, elkarren artean ezberdinak dira probintziara hedatzeko joera duten hirietako telebistak eta hertsiki lokalak edo eskualde mailakoak direnak; batzuek kutsu lokaleko programazioa dute, eta besteek programazio klonikoa, estatu mailako programen sindikazioaren bitartez; batzuek gizarte-komunikazio lokala sustatzeko asmoari eusten diote, besteek gurari komertzial hutsa baino ez dute, edo bere garaian eskaintzailen onenari salduko litzaiokeen logotipo bati balioa emateko asmo soila; transmisio eta ordainketa sistemaren bitartezkoak daude (analogikoak edo kable bidezkoak)...

Telebista lokalen panorama *lau* faktore nagusik baldintzatzen dute, gaur egun, alegala eta arautugabea den esparru horretan. Izan ere, alegala da, estatuak ez baititu frekuentziak esleitu, autonomiei dagokien eskuduntza bat bideraezin bilakatuz; eta, arautugabea da, aintzatespen legalik ez dagoenez, existituko ez balira bezalaxe baita, eta horrela operadoreei eta edukiei dagokienez oihanaren legea nagusitzen baita.

Lehenik, telebista lokalek beren berezko txokoa bilatzen dute, eskaria lortzeko.

Bigarrenik, eskualde eta probintzia mailakoak direnen artean lehia bortitza dago, berezko profilarekin espazio bati reki nahian, eta, jakina, kontuan hartuz kable bidezkoek, satellite bidezkoek eta digitalek partekatutako ikus-entzuleen kopurua rene batez bestekoa, EGM edo CIESen arabera, gero eta handiagoa dela baina %6-8ren inguruan bakarrik dabilela.

Hirugarrenik, kateak (Localia...) erosle edo hornitzailer gisa agertu direnez geroztik, espazio lokala kutsatzen ari dira. Hirietan eskaintza gehiegizkoa da, eta era horretan oso errentagarriak ez direnez, kateekin elkartzeko joera dute, produktua eta publizitate-sarbidea hobetzeko asmotan.

Laugarrenik, teknologia eta azpiegitura mailako garenak dagoeneko bide egiten die aldaketa berriei: kablearen hedapena Nafarroan; Canal 4 eta Canal 6rentzako digital berria, ia benetako telebista autonomiko pribatu bihurtu baitira, Ikus-entzunezkoaren Nafarroako Batzordearen baimenarekin analogikoan emitituz; Euskal Autonomia Erkidegoan kableak, Euskaltelen bitartez, merkatu osagarri bat sortuko du telebista lokalentzat; telebista lokal digital berriak; edo hemendik urte batzuetara gertatuko den itzalaldi analogikoa.

2.- Lokala den guztia ederra ere ez den arren (albistegi, zerbitzu eta dibulgatzaile lokal egokien ondoan, taberna mailako eztabaida-programa zabor higuigarri eta desheztizaileak ere badaude), egia hauxe da: kateekiko menpekotasunak mikrokomunikazioa desnaturalizatzen du.

Epe erdira begira, kate bati lotuta egoteak, pixkanaka-pixkanaka, kate horren ikuspuntu eta interesekin bat eginez editorializatzerara bultzatuko luke, informazioaren balioak eta ideologia homogeneizatuz eta esparru lokala funtzionalizatuz. Horren emaitza hauxe izango litzateke: «mila loreen» orde, estatu mailako operadore gutxi batzuk izango genituzke mila bozgorailurekin. Auzi hau arautu beharrekoa da, gutxienez honakoei dagokienaren inguruan: operadoreen bateraezintasuna, ekoizpen independentearen sustapena; ezinbesteko gutxienekoak programazio lokalari eta zerbitzu lokalari; programen banatzaileen arteko bariatatea; eskubideak dituztenekiko monopolio edo harreman eskusiborik ez dadila egon...

PP operadoreen izaera eta bateragarritasunak errotik banatzeko zorian egon zen estatu, autonomia eta herri mailatan aurrekontuak osatzeko bere legetan, baina ez zen banaketa hori burutzerara iritsi. Eta ez dut uste PSOEek

ere halakorik egingo duenik Prisa-Localiarekin dituen loturak ezagututa. Gehienez ere hauxe espero dezakegu: PSOEk frekuentzia analogikoen behin-behineko esleipena eraman dezake aurrera, izan ere esleipen hori PPK aplikatu gabe hibernatzen utzitako lege sozialista batetik ondorioztatuko bailitzateke; edo telebista digital lokalen frekuentzien maparen esleipena berrikus dezake, PPK otsailean haren onarpena bizkortu baitzuen eta oraindik haren banaketa ez baita ezagutzen...

3.- Telebista lokalen azken urteotako garapenak ez dio onura handirik ekarri euskarari, batez ere, hiriburuetan. Zein uste duzu izan beharko litzatekeela euskararen lekua telebista lokalean, edo telebista lokalek jokatutako beharreko papera euskararen sustapenean?

Halaxe da, bai. Telebista lokalak komunikazio lokalaren eginkizuna betetzen duenez, eragiten duen esparruaren ezaugarriekin bat etorri behar du. Oro har, ez dut uste komunikabide pribatuak euskalduntze prozesuan aurretik joan daitezkeenik —eskualde batzuetan ezik—; eta, beraz, oso atzera joan daitezen edo prozesuari kalte egin diezaiozten saihestu behar da. Hizkuntz kuoten politika baterantz jo beharko genuke, telebista lokalaren ekinbidearen lurralde esparruaren batez besteko soziolinguistiko bakoitzari kuota jakin bat egokituz; politika horrek aplikazio progresiboa izan beharko luke —hamar urteko epean—; kostuak edo merkatuaren balizko murriztapenak estaltzeko diru laguntzaren batzuk ezarri beharko lirateke...

Nire iritziz, euskara irakasteko telebista lokalei eman dakiekeen erabilpena ere aztertze modukoa da, programa estandarren inguruan bilduz. Bitarteko bereziki egokia iruditzen zait horretarako.

4.- Zein uste duzu direla lehentasunak araudi aldetik telebista lokalen eremuan? Zer asmo dituzue datozen urteetarako arlo honetan?

Nire ustez, lokalaren esparrua ikuspuntu zabalago baten baitan kokatu behar da: euskal barne komunikazioa

egituratu eta trinkotzea, oro har (Euskal Herria, Euskal Autonomia Erkidegoa) eta bere herrialdeetan, aldi berean ahalik eta askotarikoena, parte-hartzaileena eta ezagugarriena izan dadila bilatuz.

Norabide horretan hainbat ekimen interesgarri susta daitezke. Helbururik garrantzitsuena —eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan gure esku dago—, Nafarroan dagoeneko egin dutenaren ildo beretik Ikus-entzunezkoaren Lege bat onartzea izango litzateke (honako auziei egin beharko lieke aurre legeak: edukiak, deontologia, kuotak, barne ekoizpenaren programazioa, berezko musika eta ikus-entzunezkoaren gutxienekoak programazioan...), eta, bide batez, legearen aplikazioa gordeko lukeen Ikus-entzunezkoaren Euskal Batzorde independentea abian jartzea. Auziaren konplexutasuna eta eragiten dituen interesak kontuan hartuta, legegintzaldi honetan halakorik onartzea oso zaila bada ere, hurrengorako prest utzi beharko litzateke.


Udalak eta Eudel bera ere konbentzitu beharko lirateke komunikazio esparru lokalaz arduratzeko betebeharra badutela, Ongizatearen Gizarteari eta Informazioaren Gizarteari berezkoa zaion auzi bikoitza baita, hiritarrei zein parte-hartzeari eskaintzen zaion zerbitzu bat gehiago baita, bai operadore publiko eta mistoen garapenaren bitartez bai zerbitzuen konbenioaren bitartez, herri eta eskualde mailako irrati-telebista lokalak egon daitezten. Izan ere, inbertsio txiki batekin eta estandar jakin baten bidez irrati-telebisten sare trinko bat sortu ahal izango litzateke, finantziarioa instalazio eta mantentutik bereiziz; batzuk sarean borondatez eta bertatik askatzeko gaitasunarekin arituz; lokal bakar eta balioanitzarekin —irrati eta telebista lokala—; lanaldi partzial edo osoko langileekin, emisio orduen kopuruen arabera, irratia eta telebista bateratuz eta kooperazio erregimenean antolatutako ekoizpen-zentro edo agentzia batekin...

Lurrazaleko digitalaren mapa autonomikoa egituratu beharko litzateke, eta Informazioaren Gizartean Euskal Herriarentzako komunikazio-egitasmo digital orokorraren baitan eratu nahi den kable eredia definitu. EITB eta Eus-

kaltelek elkar lagundu eta osatzeko logika bat hitzartu beharko lukete telebista lokalekin, batik bat euskarazko beren fondoei dagokienez lehenek, eta lokalen eskaintza zabalari dagokionez bigarrenak. ♪

[Xabier Eizagirrek euskaratua]

Gaiak



UNAI DEL BURGO

Arrasateko kooperatiba esperientziaren
kontraesanak eta erronkak
Hurbilketa dialektikoa

81

.....

Arrasateko kooperatiba esperientziaren kontraesanak eta erronkak

Hurbilketa dialektikoa



U N A I D E L B U R G O



«Gure iraultza morala izango da, edo ez da izango»
Jose Maria Arizmendiarieta

Sarrera

Arrasaten sortu eta garatutako lankidetza mugimenduak azkenaldi honetan aldakuntza sakon eta ugari pairatu izan ditu. Ekonomiak zehazten duen testuinguruak bere izaera itxuraldatu du (lehiakor izateko beharrezkotasuna, merkatu berrien irekiera, hau da, ekonomiaren globalizazioa, eta abar), eta, ondorioz, enpresa kooperatibo askoren tamaina asko hazi da, kooperatiba ugari euren ekoizpena eta egitura hedatu ere egin dutelarik.

Garapen prozesu azkar honen bitartez (edo erruz), Arrasaten errotutako lankidetza mugimenduaren sustiraiak (filosofikoak, noski) halabeharrez ahuldu eta malgutu egin dira: Jose Maria Arizmendiarietaren heriotzak, kooperatiba taldearen sortzaileen jubilazioak, belaunaldi berrien heltzeak eta kooperatibek pairatu izan dituzten

.....

► **Unai del Burgo** Ekonomi Zuzenbidean lizentziaduna eta UEUko Ekonomi Saileko kidea da.

egitura eta antolakuntza aldaketek erabateko eragina izan dute taldearen teorizazio kooperatiboan, eta, nola ez, Esperientziaren errealitate praktikoan.

Aipatutako aldaketek, zehazki, hurrengo «gaitzak» ernaldu dituzte: kooperatiben langilegoaren eta Arrasateko Taldearen zuzendaritza organoen arteko urrunketa, kooperatiben hedatze prozesua gauzatzeko izaera kapitalista duten elkarteen erabilera (hau da, sozietate anonimoak sortzea, taldea handitu ahal izateko), soldatapeko langileen kontratazio bortitza, eta abar. Prozesu honek, dudarik gabe, taldearen baloreen galtzea dakar.

Artikulu honen helburua eztabaida hauek maila teoriko eta doktrinal batean kokatzea da. Alde praktikoa inolaz ere ahaztu ezin den arren, arazoan azterketa filosofikoki eta modu abstraktu batean jorratuko dugu, beti ere arizmendiarietar filosofia iparrorratz bezala hartuta.

Jose Maria Arizmendiarieta, Arrasateko Lankidetza Mugimenduaren bultzatzailea

Jose Maria Arizmendiarieta Madariaga Bizkaiko Barinaga elizatean jaio zen, Iturbe baserrian, 1915eko apirilaren 14an. Baserritar jatorriz, prestakuntzaz apaiz bilakatu. Seminario nagusiko ikasketak amaitu ondoren, Gasteizko apezpikuak Arrasatera bidali zuen, laguntzaile lanean: Arrasate gerrate ondoko txirotasun moralak eta ekonomikoak jotako herria zen. Testuinguru latz honetan hasi zen Arizmendiarieta bere eraldaketa proiektuaren sustaiak Arrasateko gizartean errotzen: 50eko hamarkadan, berak ereindako lana nabarmentzen hasia zen, alde batek Eskola Profesionalaren garatzearekin, eta bestetik, enpresa kooperatiboen sorkuntzaren bitartez (hauen adierazgarri nagusia, Ulgor, egungo Fagor Electrodomésticos). Ondoren, Lan Kide Kutxa (oraingo Euskadiko Kutxa), Lagun Aro, Alecoop eta beste hainbat ekimen bultzatu zituen, beti ere pertsonalismoaren ildotik gizarte lanean ordena berria ezarri nahian: Lankidetzaren eta Autoeraketaren bitartez, gizarte askea ahalbidetzea.

Arizmendiarietaren eraldaketa proiektuan, pertsona eta komunitatea uztartzen dira, euren arteko oreka gordez. Eraldaketa hori gauzatzeko, humanismo integralaren inguruko printzipio eta baloreak izango ditu ardatz¹: bere pentsamenduaren baitan, *hezkuntza*, *lana*, *elkartasuna* eta *parte-hartzea* ezinbesteko elementuak bilakatu ziren, eta elementu hauek enpresa munduan integratuko ditu. Hedapen honen emaitza *enpresa kooperatiboa* izango da, hau da, gizakiaren duintasuna, askatasuna eta berdintasuna bermatuko dituen egitura autoeratu, alegia. Enpresa eredu honetan, kapitalari izaera instrumentala erantsi (be-rezkoak dituen garrantzia eta indarra ukatu gabe) eta pertsonari eskubide osoz dagokion jabetza integrala emango zaio: pertsona orok izango du berak burututako lanaren jabetza eta horren gaineko erantzukizuna. Era honetan, langileak enpresaren kudeaketan eta zuzendaritzan parte hartuko du, Kooperatiba Elkartearen benetako *lan-komunitatea* bihurtuz (Sarasua eta beste, 2000).

Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua. Bere pentsamenduaren ardatzak

Gizarte askea lortu ahal izateko, hau da, gizartearen eraldaketa proiektua aurrera eramateko, Arizmendiarietak enpresa kooperatiboa tresnatzat erabili eta enpresa eredu honetan barnebilduko ditu bere pentsamenduaren euskarri nagusiak. Pentsamendu honen laburpena egiteko, honako ideiak azpimarratu beharko genituzke (Zelaia, 1997):

- *Gizakia, gizartearen ardatz, oinarri eta azkeneko helburu* gisa, bestelako sistemetan (sistema kapitalistan eta komunismo errealean) gizakiak duen izaera instrumentala zeharo baztertuz. Gizakiaren garapena lortu behar da (hau da, «gizaki berria» eraiki) gizartearen garatu ahal izateko: beraz, bi elementuok elkarrekiko harreman estua daukate.
- Arizmendiarietak *lanaren kontzeptu berezia* jorratu zuen: «pertsona lanean egiten da; lanak egiten gaitu hiritar eta pertsona; langilea da bere lanaren nagusi bakarra».

Ondorioz, gizakiak bere burua lanaren bitartez autoerrealizatzen du: hala ere, lanaren kontzeptua ez dago gizabakoaren helburuetara zuzenduta, aitzitik, lanaren garrantzia gizartearentzat duen interesaren arabera zehazten da: Arizmendiariarentzat, *elkartasunean oinarritutako lan kontzeptua* da. Horrela, bere pentsamenduak bi oinarri nagusi izango ditu (Pertsona eta Komunitatea), eta bi euskarri horien arteko oreka eta elkarrekiko garapena sustatzen jardungo du etengabe.

- Elkartasunezko lan hori, berez, *indar eraldatzailea* da: ondorioz, gizakiaren lanaren bitartez, gizartearen arazoak konpondu eta zuzenduko dira, Estatuaren ekimenean zain egon gabe.

- Pertsonaren autoerrealizazioa lortu ahal izateko, hau da, bere lanerako grina piztu eta gizaki autoeratu sartzeko, *hezkuntza* da bidea: heziketa ez da soilik maila akademiko batean lortzen, norberaren esperientziatik eta bizipenetik dator.

- Arizmendiariarentaren aburuz, *Kooperatiba-Elkartea* da hezkuntza, lana eta elkartasuna barnebiltzen dituen egitura autoeratu aproposena.

- Ondorioz, Arizmendiariarentaren pentsamenduan behin eta berriz azpimarratzen den ideia *autoeraketaren kontzeptua* (autogestioa) dugu:

Gizakiaren eta gizartearen autoeraketaren bidetik doa etorkizunaren garabidea. Norberarengandik hasi behar da, baina pertsonaren eta komunitatearen autoeraketa biak batera burutu behar dira: gizaki autoeratu eta duina sortu behar da, eta, era berean, gizarte autoeratu, funtzio ekonomiko, sozial eta kulturaletan (Sarasua eta beste, 2000).

Alde batetik, autoeraketak indar eraldatzailea dauka: jabetza juridikoa eta norberaren lanpostuaren jabetza edo autonomia ahalbidetzen duen heinean, *jabetza osoa edo integrala* eskuratzea ahalbidetzen dio langileari. Autoeraketa, beraz, demokrazia ekonomikora abiatzeko tresna da.

- Arizmendiariarentaren pentsamendua «*filosofia*» da, eta ez ordea «ideologi-politikari loturiko asmakizuna»: beraren xedea pertsona eta komunitatearen arteko oreka

gorpuztea da, pertsonalismoan oinarritutako ordena erakiz.

- Ezin dugu inolaz ere ahaztu Arizmendiarrietak bere bizitza osoan zehar erakutsi izan zuen jarrera, huraxe baita Euskal Lankidetzari bere izaera bereizia eratziki diona: «Utopia eta errealismoa² osagami egiten dituen jarrera», hau da, jarrera utopikoaren eta aldi berean errealistaren arteko *oreka dinamikoa* lortzeko nahia (Sarasua eta beste, 2000).

Eta azkenik, azterketa labur honekin bukatzeko, zera adieraziko dugu: «Euskal Lankidetzak, Arizmendiarrietak pentsalariaren ekarpenak bereganatu ditu, baita bere nortasun eta inspirazio-iturriak ere». Eragin honen isla dira egungo MCCren printzipio eta baloreak (Ugarte, 2000). *Printzipioak*, Taldearen enpresa-kultura bideratzen duten irizpideak dira: antolakuntza demokratikoa; lanaren lehentasuna eta kapitalaren izaera instrumentala; enpresaren kudeaketan parte hartzeko eskubidea; soldata mailaren inguruko elkartasuna; gizartea aldatzeko grina; Arrasateko esperientziaren izaera unibertsala eta hezkuntza sustatzeko joera. *Baloreak*, MCCren izaera eta nortasuna zehazten duten irizpideak: Lankidetzak, Parte-hartzea, Erantzukizun Soziala eta Etengabeko Berrikuntza.

Euskal kooperatibismoaren baloreen galtzea: autogestioaren anbibalentzia

Aurrerago azaldutako moduan, Arrasateko Taldeak (Euskal Lankidetzaren adierazle garrantzitsuenak) bere jarduerak zuzentzeko balore eta printzipio zehatz batzuk darabilta. Gaur egungo egoera ekonomikoak eta hurrengo lerroetan aipatuko ditugun zenbait faktorek balore hauek desitxuratu egin dituzte, lankidetzaren irizpideak ahulduz eta makalduz. Egiaz, Esperientziaren baloreen galtzeak eragin larria izan dezake Arrasateko Taldearen jardueran ekonomikoan: hau da, baloreek berebiziko garrantzia daukate enpresa alorrean eta hauek sustatzeko ahaleginak egin behar dira.

Esperientzia bultzatu zutenen agurra eta belaunaldi berrien etorrera

Adrian Zelaiak, MCCko Idazkari Nagusiak, Arrasateko Taldeak behar-beharrezkoa duen barruko kohesioaren inguruan hurrengoa dio:

Arizmendiarietaren heriotzak, taldearen sortzaileen jubilazioak eta honen ondoriozko belaunaldi-erreleboak, mota guztietako eraginak sortu dituzte taldean, hauen arteko batzuk oraindik argitu gabe daudela (Zelaia, 1997).

Gauza jakina da Arizmendiarietak Esperientziaren bultzatzaile bezala lan kementsua eta etengabea gauzatu zuela: *T.U. Lankide* aldizkarian burutu zuen lan izugarri aberatsa ikustea besterik ez dago (bere heriotza gertatu arte, hilabetero argitaratzen baitziren On Jose Mariaren artikulak)! Egiaz eta benetan, Arizmendiarietak Lankidetzaren eraketa teoriko eta praktikoaren esparruan eginiko ekarpenek berebiziko garrantzia eduki zuten: ekarpen horiek etorkizunean Arrasateko Taldeak eduki zitzakeen arazoak aurreikusi eta konpontzeko erabakigarriak izan ziren. Bere heriotzarekin, Esperientziak gizarte-baloreen sustatzaile handienetariko bat galdu du, dudarik gabe.

Horretaz aparte, antzinako Ulgor (egungo Fagor Taldea) zenaren sortzaile edo bultzatzaileak jubilatzeke zorian daude: bereziki, Ormaetxea, Gorroñoigoitia (honako hau izan da Esperientziaren pentsalari garrantzitsuenetarikoa) eta Larrañagaz ari gara. Berritzaile, aipatu beharrean gaude pertsona hauen erretiroak eragin dituen eta etorkizunean eragingo dituen aldaketak eta arazoak: Esperientziaren hasierako urteetan erroturiko baloreen galtzea.

Beraz, zalantzan egon daitezke belaunaldi berriek Arrasateko Esperientzian egin ditzaketan ekarpen ideologikoak: aipagarria da, dena dela, MCCko erakunde batzuk, aurrerago aipatu ditugun aldagaiak kontutan harturik (Arizmendiarietaren heriotza, taldearen sortzaileen jubilazioak eta honen ondoriozko belaunaldi-erreleboa), lankidetzaren baloreak berpiztearen alde gauzatzen ari diren ahaleginak³.

Helburu ekonomizisten gailentzea

1993. urtean Europako Ekonomi Elkartean sartzeak merkatuaren lehiakortasun kutsua areagotu eta elkarte kooperatiboak ekonomiaren erronkei aurre egitera derrigortu zituen. Jada hamar urte igaro dira eta geure inguruan dakusagun testuinguruak berdin dirau: lehiakortasun basatiak, merkatuen irekierak, azken finean, ekonomiaren globalizazioak, gure aburuz, kooperatiben baitan dagoen oreka apurtu dute.

Enpresa kapitalistetan, kapitalaren eta lanaren arteko harremana euren arteko aurkakotasunean oinarritzen da: pertsonaren lanak izaera instrumentala dauka, eta erakundearen boterea eta erabaki ahalmena kapitalaren menpe daude. Dakigun bezala, kooperatiben barnean, kapitalaren eta lanaren arteko harremana bestelakoa da: lana da elkarte kooperatiboaren ardatz, jaun eta xede. Hala eta guztiz ere, bi aldagai hauen arteko kontraesanak berdin dirau, enpresaburu-langile bakoitzaren barnean (Gorroño, 1975).

Modu honetan, enpresaren jabetza langile-bazkide ororen artean banatu egiten da, langileen motibazioa bultzatuz eta lanpostuarekiko identifikazioa garatuz. Azken finean, giza inteligentziaren inplikazio sozio-produktiboa gauzatzen da, hau da, langilegoaren parte-hartzea.

Hala ere, derrigorrez, *autoeraketaren anbibalentziarekin egiten dugu topo*: elkarte kooperatibo askok helburu ekonomizistak dituzte, eta langilearen integrazioa enpresaren ekoizpena handitzeko besterik ez dute nahi. Hori da *Ekonomizismoaren arriskua*: autoeraketa ekoizpena sustatzeko tresna bilakatzea.

Aipatu berri dugun jarrera ekonomizista honek *hozte demokratikoa* ekar dezake, bestelako ondorio batzuk ere sortzen dituelarik: *Teknokraziaren gailentzea*. *Ekonomizismoaren arriskua*, laburbilduz, autoeraketa ekoizpena sustatzeko tresna bilakatzean datza. Autogestioak, ordea, lankidetzaren helburu behar du izan, hau da, ordena berria garatzeko hazia. Beraz, lankidetzaren mugimenduaren inguruan, bere benetako izaera eta potentzialitateak ezagutu

ahal izateko, hurbilketa dialektiko bat gauzatu beharren gaude, beraren alde positibo eta negatiboak uztartuz.

Honen guztiaren adierazle, egungo Arrasateko Taldean gertatzen ari den prozesua dugu: langilegoaren eta kooperatibetako zuzendarien arteko urruntasuna⁴, enpresarekiko identifikazio eza⁵, langileen ordezkarienganako mesfidantza, Kontseilu Soziala tresna eraginkortzat ez hartzea⁶, soldatapeko langilegoaren kontratazioa⁷ (90eko hamarkadako merkatu irekierak, lehiakortasunak, errentagamitasunak eta bestelako aldagaiek bultzatuta)... Azken finean, badirudi Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa krisialdian dagoela.

Arrasateko kooperatiben handitzea, hedapena eta erabaki organoen zentralizazio-prozesua

Egungo ekonomi-egoerak sortutako beharrezanek enpresen derigorrezko handitze eta hedatzea ekarri dute: merkatu berrien irekiera (adibidez, Europako Batasunak ezarritako barne-merkatua), globalizazio ekonomikoa eta horren ondorioz enpresen artean sortu den lehiakortasun bortitza, unitate ekonomikoen baldintzatzaile nagusiak bilakatu dira. Modu honetan, ekoizpena handitzeko eta ekoizkinen kalitatea hobetzeko, enpresek euren egitura produktiboak hedatu behar izan dituzte, hau da, lehiakor izateko enpresek hazi egin behar izan dute.

Arriskua zera da: kooperatiben dimentsioak handitu ahala, elkarte hauen barnean *Demokrazia eta Agintaritzaren artean ematen diren tentsioak* ere handitu egiten direla (Gorroño, 1975). Hau da, kooperatibak haztean, halabeharrez, hozte demokratiko latz bat gauzatzen da:

- *Langile berrien kontratazioa*. Langile gehiagoren etorrera gertatzean, lan harremanen, hau da, harreman pertsonalen hoztea gauzatzen da. Lankidetzaren elkartasun balorea ahultzen da.

- *Zuzendaritza eta langilegoaren arteko interes kontra-erriak*. Enpresa kooperatiboaren antolaketa ekonomikoa (gestioa edo kudeaketa, hain zuzen ere) konplexuagoa eta zabalagoa den heinean, zuzendaritza eta langileen artean tentsioak sortzeko aukera egon badago; izatez, euren inte-

resak kontrajarriak izan daitezke. Tirabira honen kariak honakoak dira: lankidetzeta eta enpresa kudeaketaren inguruko formakuntza gabezia; soldaten mailaren, lanpostuen balorazioaren eta etekinen banaketaren inguruan sortutako ezadostasunak; langileen beharrianak asetzeari kale egin eta zuzendaritza organoek errentagarritasun eta helburu ekonomizisten alde egitea... (Gorroño, 1975).

Arazo honekin estuki loturik, *enpresa-boterearen kontzentrazio prozesua* agertzen zaigu: enpresaren erabaki ahalmenaren egikaritzea murriztu egiten da eta talde exekutiboak izanen du eskubide honen gaineko jabetza, zuzendaritzak, alegia. Prozesu mota hau enpresaren errentagarritasuna sustatzeko eman ohi da, barneko demokraziaren kaltetan: aurrerago aipatu dugunaren arabera, kudeaketa konplexuagoa bihurtu ahala, erabakiak azkarrago hartu behar dira, barneko kideen parte-hartzea ahulduz. Ondorioz, Batzar Nagusian bilduriko bazkideek euren enpresaren kontrola galtzen dute: izaera pertsonalista zuen elkarretea berezko nortasun hori galduz joan da.

Merkatuen irekierak eta lehiakor izateko beharrak eragindako beste ondorio kaltegarri bat honako hau dugu: *neo-kooperatibismoa*, hau da, elkarte kooperatiboak ez diren enpresen bidez hedatze-prozesuak gorpuztea (enpresa kapitalisten bitartez kooperatiba elkarteen ekintza ekonomikoa handitzea eta zabaltzea). Adibide gisa, Eroskiren kasua aipatuko genuke: Elkarte Kooperatibo honek, Consum Kooperatiba valentziarrarekin lotu (Eroski Taldea sortuz) eta Espainiar Estatuan bere ekintza ekonomikoa zabaldu du, sozietate anonimoak erabiliz. Hedapen hau nahitaezkoa izan da merkatuan behar bezalako kokapen estrategikoa mantendu ahal izateko (del Burgo, 2003). Hala ere, hedatze honek ez du inolaz ere lankidetzaren printzipioekin bat egiten.

Darabilgun gai honetan gehiago sakonduz, kooperatiben hedatzea gauzatzeko, bere egoera ekonomikoak behar bezala bermatuta eta sendotuta egon behar du: horretarako enpresa hauek egitura konplexuetan elkartzen dira, taldeak sortuz (Nazioarteko Kooperatiben Elkarteak ezarri duen printzipioari jarraituz: *kooperatiben arteko elkartasu* -

n a). Euskal lankidetzaren kasuan, adierazle nagusia Arrasateko *MCC Taldea* dugu. Ekonomi arloan, elkarketa honek duen garrantzia ukaezina da: hala ere, demokraziaren ikuspegitik, arazoak sor ditzakeen eredu dugu. Hauxe da *era-baki organoaren zentralizazio-prozesuaren* kasua.

XIX. mendean Marxek adierazi zuen bezala, eredu kapitalistak zentralizatzeko joera nabaria du, hau da, botere ekonomiko eta demokratikoa gutxi batzuen esku metatzen da etengabe. Arrasateko Taldeari gauza bera gertatzen zaio⁸ (Bakaikoa, 1995).

Baleren Bakaikoaren aburuz (EHUko Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuko zuzendaria), MCCren barnean ematen diren erabakiak goitik behera ematen dira. Beraz, erabaki ahalmena goi mailako organoetan kokatzen da: Arrasateko Taldearen egitura, izatez, eredu hierarkikoa da, eta egitura horretan zenbat eta beherago joan, gero eta burujabetasun ahulagoa nabaritzen da. Ondorioz, Arrasateko eredu organikoa, «maila txiki batean» behintzat, Lankidetzaren Printzipioen aurkakoa da. Era berean, MCCren barruan kooperatiba batzuek daukaten garrantzia kontuan hartuta (Eroski, Euskadiko Kutxa, Lagun Aro, Ikerlan, Fagor eta abar), zentralizazio prozesua erabat sendotzen da. MCCren garapenak boterearen pilaketa eratortzen du, eta prozesu horrek kooperatiben barneko demokraziaren kontra egiten du, argi eta garbi (Greenwood eta González, 1989).

Beraz, Eredu Kapitalistak, azken finean, sistema osoaren demokratizazioa (edo zati batena, behintzat) galarazten du: demokraziak etekinen edo gainbalioaren eskuraketa murriztuko luke, eta, Baleren Bakaikoaren aburuz, Arrasateko Esperientzian antzeko prozesua gertatzen ari da.

Arizmendiarieta gai honi buruz aritu izan da inoiz: kooperatiben elkarketa, hau da, kontzentrazioa, oinarrikoa da lankidetzaren etorkizunerako. Aitzitik, elkarketa saiakera horiek lankidetzaren baloreekin uztartu behar dira derigonez: elkarketak finantza eta teknika beharizanak asetzeko behar du izan, eta prozesu honetan beharrezkoa den lan eta kudeaketa autonomia bermatu behar dira (Arizmendiarieta, 1984).

Beraz, Arizmendiarrietak bazuen aipatutako arazo hauei guztiei buruzko berririk: arazo hauen izatea onartzen zuen, eta berauek konpontzeko eta betiko ezerezteko nahia ere agertu zuen. Hala ere, bere jarrera utopiko-errealista aintzat harturik, Arizmendiarrietak jakin bazekien ez dela inoiz ere kooperatibaren egoera ekonomikoa kolokan jami behar. Gizartearentzat onura (garapen ekonomikoa eta soziala) lortu ahal izateko, kooperatibak duen enpresa kutsua indartu eta bermatu beharra dago. Izatez, baloreen eta ekonomiaren arteko uztarketa proposatzen digu. «Geure iraultza, morala izango, edo ez da izango. Gure iraultza, ekonomikoa izango da, edo ez da izango».

Lankidetzaren baloreak berpiztu, sustatu eta sendotzeko betebeharra: hausnarketa

Baloreek pertsonaren lanari zentzua ematen diote. Hortxe dago autoerrealizazioa lortzeko gakoa eta, bide batez, pertsona norbere lanean motibatzeko aukera: «Enpresaren helburuak norberegianatu, norbere helburuak ere gauzatu ahal izateko». Horrez gain, gaur egungo enpresa garatuenetan, baloreak ekimen ekonomikoa sustatzeko ezinbestekotzat jotzen dira. Dionisio Aranzadiren ustez, giza-baloreetatik sortu eta baloreen bidez ekonomikoki garatu den sistema edo eredu bat aukeratzekotan, zalantzarik gabe *lankidetz*a hautatuko genuke (Aranzadi, 1993). Ondorioz, balore horien berpiztea, sustapena eta sendotzea burutu beharrean gaude.

Autoeraketak, eta zehazki kooperatibismoak, arrisku handiak ditu: ekonomizismoaren nagusitzea, korporatibismoa (enpresa autoeratuaren izaera gizarte osora ez zabaltzea, hau da, sistema itxia bilakatzea), teknokraziaren gailentzea, hozte demokratikoa... Zehazki, Arizmendiarrietaren eraldaketa proiektua, *autoeraketa* proiektua izatean, bere arrisku eta mugak gailendu beharrean dago. Egun, Arrasaten, hutsune ideologiko nabaria topa dezakegu: ez dago minimorik autoeraketaren bideak zehazterako orduan. Lan honen bitartez, minimo horiek gorpuzteko beharrezkoa den eztabaida kooperatiboa sustatu nahi dugu.

Eztabaida kooperatibo baterako oinarriak: hurbilketa dialektikoaren beharra

Heteronomiatik autonomiarako proiektua da ariz-mendiarrietarra. Gizakiaren portaera eta jardunbidea kanpo baldintzen determinaziotik askatu, eta *pertsona eta ko-munitate autoeratuak* aldarrikatuko ditu, lankidetzan oinarritutako harreman autoeratuaren bidez. Kanpo logika arrotzek administratutako subjektua baino, bere ekinbidea administratzeko gai den pertsona eta kolektiboa (Sarasua eta beste, 2000).

Hogeita bost urte dira Arizmendiarieta hil zenetik, eta ordutik munduak aldaketa sakonak izan ditu: ekonomia, gizartea, filosofia eta abar. Arizmendiarietar Pentsamenduak egungo egoeraren aurrean dituen potentzialitateak eta aplikazio eremu desberdinak aztertzea lan nekeza eta arriskutsua da. Aitzitik, Euskal Lankidetzan mugimenduarentzat egiteko interesgarria eta behar-beharrezkoa.

Aipatutako jarduera horren hastapenak ezartzen has-teko, lehendabizi honakoa adieraziko dugu: *egitura koope-ratiboa ez da sistema itxia*. Arizmendiarietak proposatuta-ko Eraldaketa Proiektuak bezalaxe, potentzialitate anitz eta sendoak ditu beraren baitan, baina potentzialitate horiek baliabide desberdinen bidez garatu daitezke. Baliabide edo tresna berri horiek zehaztea izango dugu egitekotzat.

Edonola ere, potentzialitate horien izaerak ez du zertan beti positiboa izan behar: kooperatibismoaren muina aztertzerako orduan, hurbilketa dialektikoa egin beharrean gaude. Izatez, lankidetzak alde onak eta txarrak ditu, kontraesanez beteriko saiakera baita. Saiakera morala eta ekonomikoa.

Ondorioz, «erantzun desberdinak sortzeko beharra daukagu, biharko erantzunen hasitokia prestatu ahal izateko»⁹. Helburua, beti ere, izaera autoeratuaren duen unitate ekonomikoa (eta morala) sortzean datza. Izatez, Altematiba handi eta integrala planteatzea, egun, ezinezkoa da. Erantzunen bila hasi besterik ezin dugu egin. Hala ere, egungo Arrasateko Esperientzian ez dago minimorik autoeraketa-

ren ildoak zehaztu ahal izateko. Gutxienez, minimo horiek ezami behar dira. Hutsune ideologikoa bete.

Lan honen helburua hauxe izan da: praxian ematen den eztabaida bat teoria mailan, are gehiago, filosofia mailan, txertatzea. Arizmendiarietar Pentsamendua ardatz bezala harturik (ez, ordea, mugatzat), erantzun berrien bilaketa sustatu nahi dugu: dialektika erabiliz, egungo egituren garapena lortu, hau da, *kritika erabiliz, dagoe -na aldatu*. Zertarako? *Proiektu etikorik gabeko egiturak egitura moralak bihurtu ahal izateko.* ¶

-
1. Arizmendiarietak bere pentsamendu pertsonalista borobiltzeko hainbat iturri, autore eta mugimendu desberdinetatik edan zuen: Eliza Katolikoaren gizarte-doktrina, gerra aurreko ELA sindikatuaren nazio-proiektu kooperatiboa, Eibarko Alfa enpresaren eredua —«Sozialismo Eibartarra»—, Maritain eta Mounier pentsalari pertsonalistak; euskal tradizio soziala (adibidez, Auzo-lan); kooperatibismoaren klasikoak (Lambert, Owen...); Marx eta Leninin filosofia; txinatar kultura-iraultza; sozialismo utopikoa (Britainia Handiko laborismoan oinarritua). Azkenik, anarkismoaren joera batzuetatik ere edango du, «Federalismo» Anarkistatik alegia (Azurmendi, 1984). Iturri aniztasun honek bere filosofia-aren eta berak bultzatutako eraldaketa proiektuaren ulerkera malgua eta zabala ahalbidetzen du.
 2. Horrek berebiziko eragina dauka egungo euskal lankidetzaren oinarritzko printzipioetan. Adrian Zelaiak, MCCko Idazkari Nagusiak, diotenaren arabera, «Euskal Lankidetzaren honako balore-multzoak zehatzuz joan da: ideologi eta teoria-mailako azterketak egitean, jarrera errealistagoa du, eta dogmatismo edo formalismo gutxiago» (Zelaiak, 1997).
 3. Berpizte prozesu honen adierazle nagusia Mondragon Unibertsitatean kokaturik dagoen *Lanki* —*Lankidetzaren Ikertegia*— delako erakundea dugu: aipagarria da Ikertegi honek kaleratu zuen idazkia, «Lankidetzaren Eraldaketa Proiektua» deritzona. Geure aburuz, Ikertegi honen sorreraren zergatia Arrasateko Esperientziaren bultzatzaileek hasitako bidea jarraitzea da, lankidetzaren autoeraketaren inguruko baloreen sakontzea eta sustatzea gauzatuz.
 4. Langilegoaren iritziz, kooperatiben zuzendariak (edo goi karguek) etekinak besterik ez dituzte bilatzen, eta, horretarako, errentaga-

rritasunaren lorpenean jartzen dituzte bere ahalegin guztiak, bestelako gizarte helburuak alboratuz edo ahaztuz (Greenwood eta González, 1989).

5. Langileek ez dute euren burua enpresaburu-jabe sentitzen, praxian kooperatibaren kudeaketan ez dutelako parte hartzen eta, nabarmenki, helburu ekonomikoen menpe daudelako. *Jabetza Integrala* ezin dutenez eskuratu (jabetza juridikoa eta lanpostuaren gaineko jabetza), ezin dute enpresaren helburuekin bat egin.
6. Kooperatibetako bazkideek, langile direnez, ordezkariak behar dituzte euren egoera hobetu eta lan-baldintzak bermatzeko. Ikerketa soziologiko batzuek azaldu duten bezala, langileek euren ordezkapen organoenganako mesfidantza-jarrera azaltzen dute: kritika nagusiak Kontseilu Sozialari zuzentzen zaizkio, bere eraginkortasuna zalantzan jarriz. Organo honen egitekoa Kontseilu Errektoreari aholkularitza zerbitzua ematea da. Hala ere, organo honek informazioa modu egoki batean ulertzeko arazoak omen ditu, bere funtzioa gauzatzeko denbora tarte txikiak, kooperatibaz kanpoko aholku teknikoak eskatzeko debekuak, Kontseilu Errektoreen menpeko egoera eta abar. Esan beharra dago, zenbait kooperatiben kasuan, Kontseilu Sozialaren erabaki eta aholkuek izugarritzko garrantzia dutela, eta Kontseilu Errektoreek ez dutela inongo erabakirik hartzen organo horrekin adostasun batera heldu arte. Hau omen da Fagor Taldearen kasua (Kasmir, 1996).
7. Izatez, MCCko talde industrialak bere langileen %30 lan kontratupean ditu: ehuneko hau izugarri handitzen da Eroski Taldea kontuan hartzen baldin badugu (langileen %70 soldatapean daude). Hala ere, MCCtik ari dira aipaturiko ehuneko hauek nola edo hala jaitsi nahian, nahiz eta hori ekonomi testuinguruaren menpe egon.
8. Talde honen kasuan, zentralizazio prozesua 70eko hamarkadan hasi zen: Lenizko bailaran kokatutako kooperatibak Lankide Kutxan (egungo Euskadiko Kutxa) eta Lagun Aron elkartu egin ziren; hala ere, finantza erakunde hauek ez zuten kooperatibekiko egitura hierarkizaturik gauzatu. Geroxeago, kooperatiba horiek, sektoreka (Fagor Taldea) nahiz lurraldeka elkartu egin ziren. Bigarren graduako kooperatibak sortu ziren, eta hauen barne, organo bereiziak; organo horien bidez zentralizazio prozesua hasi zen, aitzitik, kooperatiben burujabetasuna ederki bermatuta jarraituz. 1986an Europako Batasunean sartzeak Arrasateko Taldearentzat sekulako eragin kaltegarriak ekarri zituen: hiru Kongresu antolatuta ondoren (1987-1989-1991), egungo MCC gorputzu zen. Arrasateko Taldeak bere antolaketa organikoa eraldatu zuen, egitura zentralizatua ezarri: MCCko Kongresua, Kontseilu Iraunkorra eta Kontseilu Orokorra dira Arrasateko Taldearen buru eta burmuin. Are gehiago: MCCren egitura organikoaren baitan ez

da Kontseilu Sozialik agertzen. Beraz, bazkideek, langile diren heinean, ez dute inolako ordezkartzarik. Euskal Lankidetzaren baitan, Kontseilu Soziala kooperatiben barne-demokrazia bultzatzeko organorik bereziena da, eta, MCCko egituran, azken organo horren gabezia oso kritikatu izan da (Kasmir, 1996).


9. Jon Sarasuak eta Ainara Udaondok, Udako Euskal Unibertsitatearen Ekonomi Sailak antolatuta, «Ekonomi Sozialaren erronkak kapitalismo globalean» delako ikastaroan aurkeztutako sinposioa: «Autoeraketa ekonomikoa globalizazio garaian» (2002ko uztailaren 16an, Iruñean). Argitaratu gabea.

Bibliografia

- Arizmendiarieta, Jose Maria (1984): *Emancipación Obrera: La Cooperación*, Euskadiko Kutxa, Arrasate.
- Arizmendiarieta, Jose Maria (1984): *La empresa para el hombre*, Euskadiko Kutxa, Arrasate.
- Aranzadi, Dionisio (1993): «Los Valores Cooperativos en el umbral del año 2000», Kooperatiba Ikaskuntzen Institutuaren Urtekaria, Deustuko Unibertsitatea.
- Azurmendi, Joxe (1984): *El Hombre Cooperativo*, Lan Kide Kutxa, Arrasate.
- Bakaikoa, Baleren (1995): «El Cooperativismo Vasco. El ejemplo de la Mondragón Corporación Cooperativa», *El Cooperativismo Vasco y el año 2000*, Gezki, Donostia.
- del Burgo, Unai (2002): «La desnaturalización de las Cooperativas», *Boletín de la Asociación Internacional de Derecho Cooperativo*, AIDC, Deustuko Unibertsitatea.
- Gorroño, Iñaki (1975): *Experiencia Cooperativa en el País Vasco*, Durango.
- Greenwood, Davydd eta González, José Luis (1989): *Culturas de Fa - gor. Estudio antropológico de las Cooperativas de Mondragón*, Editorial Txertoa, Arrasate.
- Kasmir, Sharryn (1996): *The Myth of Mondragon. Cooperatives, Politics and Working Class Life in a Basque Town*, State University of New York Press, New York.
- Sarasua, Jon eta beste (2000): *Lankidetzeta, Arizmendiarietaren eraldaketa proiektua*, Lanki Ikertegia, Mondragon Unibertsitatea, Arrasate.
- Ugarte, Luis Mari (2000): «Mondragón Corporación Cooperativa: Historia de una Experiencia», *Revista de Estudios de Juventud*, 51. zkia. (abendua): «Cooperativas, Sociedades Laborales, Juventud y Empleo».
- Zelaia, Adrian (1997): *Kooperatibak Euskal Herrian*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

Egunen

gurpilean



literatura • 99

Munduak daraman abiadari beha

- Literaturgintzaren krisiaz adostasunik ez
- Irakurleen matxinada • Saritua izatea zigorra denekoa
- Euskal PEN Kluba ate joka • Andolin Eguzkitza gogoan

LAURA MINTEGI



soziolinguistika • 105

Sinposioa • Sinposiondoa

- Izenik duena bada • Inkesta sozio-linguistikoa

JUAN INAZIO HARTSUAGA



telepolis • 111

Ezer ez da berdin • Hurrengogeltokia.com

- Hiztegia.net • Google euskal herria • Sagarra
- *Asteon eta Xirika* • Internet Euskal Herrian

PATXI GAZTELUMENDI

Munduak daraman abiadari beha

Orri hauetara hurbildu ginen azkenengotik sei hilabete pasatxo iragan direnez, zaila da nabarmentzea tarte honetan literaturgintzan gertaturikoa. Ez soilik gertakizun ugarietatik bakar batzuk aukeratu behar direlako, baizik eta denborak (eta denbora honetan gertatutakoak) ezartzen duen perspektibak kolokan jartzen duelako gauza «garrantzitsuen» garrantzia.

«Mundua aldatzen dago, krisian dago, eta kaosa baino ez da ikusten», zioen orain 200 urte Immanuel Kant-ek, eta mendeurrenaren harira berriz izan dugu modernia —edo oinarri eza— aztertzeko aukera. Mondragon Unibertsitateak filosofoak, bertsolariak, pedagogoak eta idazleak bildu ditu martxoko aste batean hausnarketa egin dezaten, eta konklusio bakarra atera ezin daitekeen arren, ondorioa izan da gaur egungo garaietarako ere Kanten gaurkotasuna aldarrikatzea ez dagoela lekuz kanpo. Izan da, bestalde, modernia berregituraketa proposatzeko aukera ikusi duenik, euskal herrietan egiazko moderniarik inoiz izan ez ei denik profitatuz.

Nolanahi ere den, trantsizio garaian bizi garelako sentazioa konpaktua da, sendoa, ukigarria, solidoa. Eta diogunaren beste zantzua dugu egunotan bete berri den urteurren hitsean: *Egunkaria* itxi zenetik, eta Iraken aurkako eraso hasi zenetik 12 hilabete bete behar ziren ia bezperan, bi gertakizun haiek sorturiko zauriak itxi gabe daudelako frogak izan ditugu: ulertezina bada ere Iñaki Uriak kartzelan dago, *Egunkaria*-ren ondasunak epaitegiaren esku, eta Iraki egindakoaren erantzunak Madrilen lehertu du.

Honek guztiak literaturgintzan izango duen eragina ikusteke dago. Produktioan edo industrian ez ezik, sormenean izango dituen eraginak dira garrantzitsuagoak. Euskalgintzan duen eragina, ordea, askoz ere errazagoa da

antzemateko. Horren lekuko dugu etxe honek beronek estatuan pairatu izan duen isolatze politiko eta ekonomikoa, harpidedun zareten guztiek ondo ezagutzen duzuen.

Liburugintzaren krisiaz adostasunik ez

Kausa-efektua binomioa ezartzeko goiz bada ere (inguru-neak sorkuntzan duen eraginaz mintzatu beharko genuke noizbait), bitartean liburugintzan izaten ari diren aldaketak antzeman eta indarrean diren joerak azter genitzake.

Interes handiaz segitu izan dugu editoreen artean izandako eztabaida, Josu Landak eta Jorge Gimenezek gorpuztu dutena. Gimenezen aburuz liburugintza krisian dago, eta argudioa sostengatzeko zenbait konstatazio egin du: merkatua mugatua da, salmentak jaitsi dira, tiradak txikitu, liburuak gero eta bizitza laburragoa dute, euskaldunen kopurua gorantz doan bitartean irakurle kopuruak bere horretan dirau, eta irakaskuntza amaitu ondoren gazteek irakurtzeari uzten diote. Gimenezen ustez, «gizartearen kultur dinamika alde batetik doa, eta liburugintza beste batetik, ez doaz era harmoniko batean» eta, beraz, «euskal liburugintzaren aldeko energia bat mobilizatu beharra dago».

Landa, ordea —beste garai batzuetan agerturiko estiloaz—, asaldatu egin da krisiaz hitz egiten entzun duenean. Beraren ustez tranpa da liburugintza eta literatura (edo irakurzaletasuna) identifikatzea, eta editore gehienei egotzi egiten die irakurle «gatibuaren» (liburuak arrazoi estraliterarioengatik erosten dituen) datuak maneiatzeari, zaletasuna dutenen datuei begiratu ordez. Bestalde, ez du ulertzen nola salatzen duten editoreek gure kultura gero eta kontsumokoagoa dela, azken urteetan argitaletxeek beraiek bultzatu baitute joera hori. Alde horretatik begiratu, Landak uste du enpresa batzuen galera ekonomikoa ez dela euskal kulturaren krisiaren seinale eta, areago, lanpostu erdiak galduko balira ere, ez lukeela zertan txarra izan beharrik euskal kulturgintzarentzat. Editore-enpresaburuen erreakzioa susma daiteke.

Haserre dago Landa ikusten duenean garai batean errua administrazioari leporatzen zitzaiola, diru laguntza nahikorik ematen ez zuelako. Gaur egun arlo hori beteta dagoenez, irakurleei egotzi zaie galeraren errua, nahikorik irakurtzen ez dutelako eta, azken garaian, idazleen errua dela esan ohi da, dugun merkatu txikirako gehiegi idazten dutelako. Noizko zilborrari begiratzea eta argitalgintzaren baitan bilatzea balizko krisiaren arrazoia? Apokaliptikoa bada ere, hausnarketarako ildo nagusiak jarri ditu Landak mahai gainean. Betor eztabaida.

Irakurleen matxinada

Landari arrazoia ematen dion fenomeno bat gertatzen ari da gure inguruan, guztiz txalotzekoa eta, hain zuzen, irakurzaletasunarekin zerikusia daukana. «Irakurleen matxinada» dei genezakeen fenomeno dugu. Literaturzaleek irakurketa kritikoak egiteko eskubidea aldarrikatu dute. Horietarako bildu, testuak eta hizlariak aukeratu eta beraien artean ari dira testu biluziak hezurmamitzen. Nonahi ikus daiteke irakurle txokorik, literatur lantegirik, testu eskolarik. Edozein herritan, auzotan. Eta bertan irakurle kritikoak biltzen dira, jantziak, iritzidunak.

Jañera pasibo batetik aktiboak izatera igaro dira, eta horietariko aktiboenak idazle lanetan ere jarri dira, baina idazle baino lehen, irakurle den izkiriatzaile apalaren jarreran. Diogunaren adibide argiena dugu bbk-koek (bihotz bakartien kluba) Larrabetzun antolatu duten Literatura Eskola, eta horren emaitza literarioa den Linterna Gorria.

Klubekoek, aldizkari elektronikoa editatzeaz gain, irakurlearen matxinada (*stricto sensu*) gorpuztu dute konturatu direnean Bilboko Udaleko funtzionario baten ezjakintasun edo axolagabekeriaren erruz Gabriel Arestiri dedikaturiko oroitarria eta haritza kaletik kendu eta haren lekuan zulo oteizarra utzi dutela, jardina ren erdigunean. Matxinadak emaitza eman du eta udaleko agintariek hanka-sartzea onartu behar izan dute. Hitzez behinik behin, atzera egin eta berriz jarriko dutelako agindua eman dute. Adibi-

de polita dugu ikusteko irakurzaletasuna ez dela neurtzen salmenten grafikoetan edota tirada kopuruetan, baizik eta literatura bizitzeko egon daitezkeen modu ezberdinetan. Adibide polita antzemateko zenbateko indarra duen testuak haren zaleak batzeko, eta nola egin daitekeen politika (merezi duen politika) letren errepublikan.

Saritua izatea zigorra denekoa

Matxinadaz mintzatuz, aipatzekoa da aurtengo edizioan Euskadi Literatura Sariekin gertatu izan dena. Ia ustekabean pasatu da oso larria izan daitekeen kontua. Idazleok sarritan esan dugu literatura sariketak antolatzen dituztenen asmoa, erakunde publiko izan edo elkarte pribatu izan gutxitan izaten dutela helburutzat literaturaren beraren sustapena (salbuespenak salbu) eta, ia beti, beren xede behinena izaten dela erakunde bera promozionatzea.

Hara non susmoaren froga izan dugun, eta ia inork ezer ez duen esan, egoera pairatu duen idazleak berak eta harengandik hurbil dagoen Iñigo Aranbarrik izan ezik. Kontua da Euskadi Sariak erabakitzeko orduan, epai-mahaiak urtean argitaratutako liburu guztiak ikusi eta haiengandik batzuk aukeratu egiten dituela saritugai, egileek ezer ez dakitela. Hautagai izateko, beraz, ez du inork bere burua aurkeztu behar, urtean argitara eman diren liburu guzti-guztiak hautagai naturalak baitira.

Kontua da, epai-mahaiak beraren hautaketa egin ondoren (arrazoi literarioak tartean), antolatzaileek baldintza bat ezarri dietela balizko saridunei: sarituak izatekotan, saria jasoko dutela sinatzea eta, sinatu ezean, hautagaien zerrendatik kendua izango da.

Iñigo Aranbarriren hitzekin esateko:

orain badakigu Euskadi Sariak zer diren, 'han egotea', halako lorontzi eder bat lehendakariaren edergarri, idazlearen lanari emandako saria baino... hau baita gure Euskadi Saria, oso modako hitza, argazki bat.

Jakina denez edo, hobeto esateko, jakina izan beharko litzatekeenez, Koldo Izagirrek ez du 2003ko Euskadi Saria

bereganatu, epai-mahaikoen ustez aukera bazuen ere, saria jasoko zuelako baldintza ez sinatzeak hautagaien zerrendatik erauzarazi zuelako.

Egiantan salatzekoa da antolatzaileek adierazten duten begirune eza, bai epai-mahaiarekin bai eta idazle guztiekin ere.

Euskal PEN Kluba ate joka

«**H**iru gaurrean aidanez» titulatzeko zuten *Beria*-ko kazetariak Euskal PEN Kluba bersortzeko eta indartzeko egiten ari den ahalegina. Eta halaxe da. 1951n izan zen lehen saioa, Andima Ibiñagabeitia, Jon Mirande eta Federico Krutwig tartean zirela.

Orrez gainera PEN Club-eko idazkari egin naute. PEN Euskal Bilkura jarri diot izentzat, eta aurrenengo batzarraldia antolatzen ari naiz. *PEN International*-ekoek, zenbait euskal idaztietaz kritikak bialtzeko esan digute (...) PEN ortan euskal idazleak bakarrik bear genuke batzar, nere ustez. Erdel-idazleak, naiz euskaldunak izan, ez lukete ortan lekurik izan bear, ori da behintzat nere iritzia. Baina zenbait ez mintzearren aiei ere gurean leku eman bear,

idatzi zion Paristik Guatemalara Andima Ibiñagabeitiak Jokin Zaitegiri, 1951ko otsailaren 19an.

Apirilaren 5ean honakoa bidali zion,

Iragan Epaialaren 24ean, iragarri bezala, PEN Euskal Bilkuraren lendabiziko batzarra egin genuen. Lagun gutxi bildu ginan, eta geienak idatziz gure batzarrai eratziki ziran. Ondo dakizu nunbait, ezinezkoa dala euskal idazleak biltzea oso sakabanatuta bizi gaituzulako,

eta gutun hau, berriz, Paristik Guatemalara igorri zion.

Inoiz ez da izan gaur egun baino euskal idazle (kazetari, kantautore eta gidoigile) gehiago Euskal Herriaren historia osoan. Eta ezin esan genezake sakabanaturik gaudenik, ezta ere elkar komunikaziorako erraztasun teknikorik ez daukagunik. 1987an egin zen bigarren ahalegin

hura urte gutxiko epean bertan behera gelditu bazen ere, gutariko batzuek uste osoa dugu hirugarrenean, aidanez, Euskal PEN Kluba (edo dena delakoa) martxan jarri eta indartsu jaioko dela.

Abiapuntua Liburuaren Egunean dugu, apirilaren 23an, orduan izango baita fase honen «lendabiziko bilkura», eta idazleak (kantautoreak, kazetariak eta gidoigileak) batzarretan biltzeko zaleak izaten ez badira ere, talde sendo eta dinamikoa abiatuko dela uste dut. Zeren euskal literatura inoiz baino sendoagoa dugun arren, ahuleziak ere baditu, eta horietariko bat da kanporako proiektio eza. PEN International-aren sareak bozgorailu lana egin dezake kanpora begira eta, barrura begira, gure irudia bueltatuko digun ispilua eskaini ahal digu.

Andolin Eguzkitza gogoan

Kronika hau amaitzeaz genuela gogoa kolpatu digun berria jakin dugu: Andolinek utzi gaitu. Mutu hasieran, apurka-apurka beraren heriotzak sortu digun tristezia eta hausnarketak dozenaka artikulutan konpartitu ditugu. Esana dago. Beste edozeren gainetik pertsona zintzoa, goxoa galdu dugu. Ikerlari fina ere galdu du euskalgintzak, linguista prestua eta, literaturak, poeta minbera.

Ezagutu genuen guztioi beti geldituko zaigu hura ezagutu izanaren plazerra.¶

Sinposioa

Otsailaren 27 eta 28an Nazioarteko Mercator sinposioa egin zen Tarragonan. Gai nagusia, Europako Batasunaren Konstituzio berriak Europako hizkuntza guztientzako berdintasunezko esparrua ekarriko ote zuen. Erantzuna bizkor, labur eta ahobatez: Ez.

Alegia, Europatik ez zaigula gaur egun datorkiguna baino babes handiagoa etorriko. Beraz, hegoaldean egon eta iparraldean hor konpon. Hegoaldean Euroitunak babesten gaitu eta iparraldean ez dago Euroitunik Frantziak berresten ez duen arte, eta ez dirudi hartaratzeko lege biderik irekiko duenik Konstituzio berri horrek.

Galdera nagusiak aitaren batean ihardespen etsigarri hori hartu badu ere, biziki interesgarri gertatu da egun parean. Europako bazter askotariko jendea ezagutzeko aukera izan dugu, Irlanda, Eskozia, Gales, Danimarka, Suedia, Suomi, Latvia, Hungaria, Frisia, Hego Tirol, Friuli, Italia, eta Katalunia. Eta mota askotarikoa gainera: Europako Batasuneko eta Europako Kontseiluko goi funtzionarioak, unibertsitate irakasle eta hizkuntza teknikariak, abokatuak, GKEetako arduradunak, agintari politikoak...

Euskal Herriak ordezkaritza zabala izan zuen: Behatokiak beste, Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako teknikariak, Gipuzkoako Diputazioko teknikaria, EHU eta Deustuko irakasleak, batzuk entzule eta beste batzuk hizlari. Ordezkaritza txukuna bai kopuru aldetik bai eta ponentzien aldetik ere, guztiek entzuleen arreta estu lotzea iritsi baitzuten. Nafarroatik ordezkari bakarra: Behatokia bera.

Jardunaldien barruan Linguapax sariak banatu ziren. Sari nagusia, Finlandiako suediar gutxiengoko Tove Skuttnab-Kangas andereak hartu zuen. Andere azpimarragarria benetan, jakituria, eskarmentua, hitz egokia eta konpromisoa uztartzen dituena. Ez da gero noiznahi lau errege biltzen musean. Behatokiak azaroan egin asmo duen sinposio-

Gaur egun ia bakarra geratzen zaiela esango nuke: elkar ezagutzea, elkarrekin solastatu eta harreman pertsonala lantzeko baliatzea, ponentziak aditzeko nahikoa bailitzateke dena amaraunetik eraistea. Halere, nago ez ote dugun oraindik amaraun-aitzineko inertzien arabera jarduten. Sinposioa saldatsu baino lodi gertatu da aukeran, gehitxo egositako babarrunen antzera. Hizlari asko, baikoitzari ordu erdiko asti laburra, eta gehienak, mokorraz txorizo makinan zanpatuz bezala, ordu betekoa ordu erdian sarrarazi nahi eta ezinean. Aldiz, mahai inguru, hitzaldiondo eta solasaldirako beta urri. Kafe etenak onena.

Hamar orduz hamasei ponentzia entzun ondoren halere izan zen jendea ezagutzeko aukerarik ostiralean. Bai eta larunbatean europar giroko iluntzean baxoerdia eskuan hartu eta Xiberuko kantaz zenbaiten gogoa liluratzeko ere. Bihotzak goxatzen eta euskararentzat lagun berriak egiten emandako ordu haiek izan dira menturaz gure lanik eraginkorrena. Euskarak ez ditu entzuleak behar European. Lagunak behar ditu. Eta lagunak ez dira hamar orduz ponentziak adituz eta hamaika bilera eginez lortzen. Emozioa landu behar da. Badugu alor horretan zer hobetu.

Ponentziez kanpoko beste elementuen azterketa. Hiru hizkuntza ofizial zituen Sinposioak: katalana, ingelesa eta gaztelania. Gaztelaniaz hitz egin zuten bakarrak... euskaldunak. Nago gure nazioartekotzeko hizkuntza ingelesa den egunean ez ote gaituzten aintzakoagotzat hartuko.

Izenik duena bada

Eta izenik ez duena? Izan ere izanen da baina zaila da haren izanaz jabetzea, hura itzalpetik eralkitzea.

Ze hiztegi dugu gure egunerokotasun soziolinguistikoa deskribatzeko? Egokiak al dira maneitzen ditugun izenak eta kategoriak gure aurrean dagoen errealitatea deskribatzeko? Ezezkoan nago. Eta oker ez banago, nekez asmatuko dugu azterketa zuzenak egiten tresna egokien ezean.

Nire Tolosan ezagutu dut txiki-txikitatik euskararen presentziaren larunbatetako gorabehera nabarmena. Goi-

zeco zortzietatik eguerdiko ordubata bitarte suziriak bezala egiten zuen gora. Euskara baino ez zen aditzen. Handik aurrera berriz ziplo behera, tiroak jotako usoa antzo. Baserritarrak ziren, plazara etorrira, bazter guztiak euskaratzen zituztenak. Baina zenbat ziren baserritarrak hainbeste tolosar kaletar artean? Gutxi aukeran. Haiek ez ziren orea. Haiek legamia ziren. Aste osoan erdaraz bizi zen kaletarrak bazekien larunbata goizean euskaraz egin behar zuela. Baserritarrari, eta bide nabarrez apika bestela erdaraz egingo zion aldameneko kaletarrari ere. Eta honela kale osoa euskalduntzen zen bat-batean.

Nire haurtzaroko baserritarra ezinbesteko euskalduna zen. Erdaraz trakets edo batere ez akaso, eta euskaraz jardun behar. Hori ezaguna zen eta onartua zen Tolosako kalean, eta horrek ematen zion legamia izaera hori. Baina hori bukatu zen. Jentilarriko jentil zaharrak lagunei *gure denbora joan dek* esan zien bezala, ezinbesteko euskaldunen arrazarenak egin duela lekuko izan gara. Eta nor da gaur legamia? Zein da bazterrak euskalduntzen dituen arraza berria?

Aukeran gaztea da, elebiduna edo eleaniztuna agian, eskolatua, eta ezagutzen dituen hizkuntzen artean euskara lehenestea ohartuki erabaki du. Zer izen du kategoria horrek? Ez du izenik. Bakarren batek bataiatua izanen du agian, baina ez du gizartean adostasunez onartutako izenik. Eta euskararen bizkarrezurra da une honetan. Egin al daiteke izen hori merezi duen soziolinguistikarik gure hizkuntzaren bizkarrezurra den kategoriak izenik ez duen artean? Ezezkoan nago. Eta egoskorki ezezkoan gainera.

«Euskalduna» kategoriak zertarako balio du gaur ikerketa soziolinguistikoan? Funtzio publikoaren legeak beharrituta ikasi duena, akademizismo bihozgabeenean ikasitako hainbat eta hainbat eskola ume... gero eta gehiago dira euskararen zirrara zer den ez dakiten euskaldunak. Orea dira, ez legamia. Idatz al daiteke okintzari buruz orea eta legamia badirela jakin gabe, bereizi gabe eta bakoitzari bere izena eman gabe?

Gure hiztegia gaur egungo premiei eta errealitateari egokitzea lehen mailako eta premiazko eginkizuna da.

rako gonbitea egin diogu, eta baiezkoa eman digu gaia entzun orduko: Hizkuntza txikiak eta etorkinak ezinbestean etsai? Ezer okertu ezean gure artean izango dugu ezagutzea benetan merezi duen andere hau. Ez aukera galdu.

Pozgarria izan da «ama-hizkuntza+2» leloa europar hizlarietara helburuko eredutzat aurkezten ikusi eta behingoz gure burua aurreko bagoian ikustea. Izan ere hori baita Europan proposamen nagusia aniztasun linguistikoari eta hizkuntza gutxituei eusteko, eskola garaia amaitzerako ikasleek ama hizkuntza eta bi hizkuntza gehiagotan jarduteko gai izatea. Neronek ume bi ikastolan eredu horren arabera izaki, belarriak ederki gozaten zizkidaten asmo hauek.

«Elebakartasuna gaitz bat da —esan zigun Skuttnab-Kangas andereak—, eta gauza on bakarra du: sendatu egiten dela». Eleaniztasunak baino ez du ekarriko hizkuntza txikiak irautzeko iraunbidea eta hiztun guztien arteko errespetua eta berdintasuna.

Zenbait mito eraisteari ere ekin zion andere nekazekin honek. Europa ren aniztasun linguistikoaren altxorra aipatzen duen Konstituzioan Papua-Ginea Berriko hizkuntza kopurua Europakoa halako hamar baino gehiago dela ez ote zen sartu beharko esan zigun. Eta Europako Batasuneko goi funtzionario batek Europako hizkuntza guztien Inkesta Soziolinguistikoa egiteko behar adina diru ez zegoela esan zionean, zera erantzun zion, Danimarkan 5 milioi jende eta 24 milioi txerri daudela eta kontsumitzaileak harategian txerriak erosten duenean interneten sartuta puska horren ibilbide osoa jarraitzeko aukera duela —txerrien izena, zenbakia, jaioteguna, non jaio zen, non gizen du zuten, zer pentsu mota jaten zuen, non eta noiz akabatu zuten—, eta orduan nola ez den bada modurik izango Europan behar bezalako Inkesta Soziolinguistikoa egiteko. Funtzionarioak noski ez zuen jakin zer erantzun.

Sinposiendoa

Topaketok anitz funtzio zituzten garai batean, komunikaziorako gainerako tresnak urri eta irisgaitzak zirenean.

Izen batekin bi espezie nahasten baditugu ez dago sailkapen zoologiko zuzenik, eta sailkapen zuzenik ez dago eboluzioaren teoria asmatzerik. Gure soziolinguistikak terminologia egoki baten inguruko adostasuna iritsi behar du mintzabide berri eraginkorrak asmatuko baditu.

Inkesta sozio-linguistikoa

Joan den mende hasieran alemaniar naturalista bat Amazoniara iritsi omen zen ikerlanak egitera. Tesi bat frogatu nahi omen zuen: mutilazioek nerbio sistema zentrala kaltetzen duteneko. Zenbait esperimentu egin omen zituen hori frogatze aldera, eta hauetako bat egin ahal izateko, armiarma bat hezi omen zuen. «Zatoz» esan eta berarengana hurreratzen erakutsi omen zion armiarmari. Hau lortu zuenean, armiarmari egunero zango bat moztu eta «zatoz» esaten omen zion. Armiarmak, esaneko, «zatoz» agindua entzun eta hurbildu egiten omen zitzaion. Eguna joan eta eguna etorri, zango gutxiagoz gero eta baldarra-go, gero eta traketsago, armiarmak obedituz jarraitu omen zuen halere. Halako batean, zortzigaren zangoa moztu eta «zatoz» agindu omen zion zientzialariak. Armiarma ez omen zen mugitu. «Zatoz» esan omen zion berriz, ozena-go oraingoan. Baina armiarma geldi. «Zatoz!!!» oihuka azkenik, baina alferrik, armiarmak ez baitzuen gehiago obeditzen. Orduan naturalistak apunteak egiteko erabiltzen zuen koadernoan hartu eta zera idatzi omen zuen: *Zortzigarren zangoa moztetakoan armiarma gor bihurtzen da.*

Euskaram Jarraipena III 2001 Inkesta Soziolinguistikoa zera erakusten digu besteak beste, elebidunen kopuruak gora egiten duela Euskal Herrian, baina elebidunen multzo horretan «elebidun euskaldunen» kopuruak ez diola indar berdinez jarraitzen gorakako joera horri. Konklusioa zera da, *gainerako elebidunek* («elebidun erdaldu-nak» eta «elebidun orekatuak») *ez dute euskara gehiago erabiltzen behar adina gaitasun linguistikorik ez dutelako.*

Duela hogeitau urte, batzuek hizkuntzaren ezaguerari begiratzen zioten bitartean beste batzuek esaten genuen

erabilerari begiratu behar zitzaiola, ezagutza erabileraren aldagaietako bat baino ez zela, erabilera mailan ezagueraz gain beste hainbat aldagaik ere eragiten zuela, eta erabilera zela, beraz, aztertu beharreko aldagai nagusia. Bazirudien iritzi zuzen hau erabat nagusitzeraino zabaldu zela, baina hara ezustea! Hor dabilzkigu berriro iraganeko okerreren mamuak bizi-bizirik. Gaitasun linguistikoarena da elebidun euskaldun gehienak nagusiki erdaraz jardutearen adierazpide ofizial bakarra. «Gaitasun linguistikoa», alegia, duela hogeitau urte «ezaguera maila» esaten genuen hura. Lehengo txori bera luma berriaz.

Aipatutakoarekin batera, ikerketaren beste konklusio osagarriak honakoak dira: euskara erabiltzera eramaten duen behar adinako gaitasun linguistiko hori familia barruko transmisioari esker lortzen dela gehienbat, eta itxaron egin beharko dela hurrengo belaunaldia aztertu arte, jakin ahal izateko nagusiki erdaraz diharduten elebidunek haien seme-alabei euskara transmitituko ote dieten, honela izanez gero euskaraz jardungo duten elebidunak sortuko baitira.

Amazoniako naturalistari errespetu osoz amiarmanen motrizitatea aztertzeke eskatuko nioke, eta Hizkuntza Politikari errespetu osoz halaber, beste aukera batzuk ere azter ditzan eskatuko nioke. Esate baterako, bere interpretazioaren ondoan, alegia,

euskaraz ia behin ere jarduten ez duen elebiduna euskaraz behar bezain ongi hitz egiten ez duelako da.

txanpon beraren kontrako alderdia den beste hau ere aintzat har dezan,

euskaraz ezin du ongi hitz egin ia behin ere euskaraz jarduten ez duen elebidunak.

Nork bere teoria defendatzeko eskubide osoa du, eta teoria guztiek dute zilegitasun bera. Baina inork ez du frogak gezurtatzen duten teoriari eusteko eskubiderik.

Datu batetik hamaika konklusio ateratzea ez da zientifikoa. Konklusio bat hamaika datuz frogatzea da zientifikoa.

Zangoak mozteak ez du gorreririk eragiten. Tematzeak bai. ♪

Ezer ez da berdin

Dena aldatu du matxoaren hamaikakoak. Begiratzeko modua, entzuteko modua aldatu zaigulakoan nago, burrundara itzela izan da, zarata handia sortu da eta patxadaz aztertzeko unea da orain. Atzean utzi dugunaz gogoeta egin nahi nuke, iraganaz ari bagina bezala mintzatu nahi dut, duela ordu batzuk, egun batzuk, bizitakoaz. Teknologia berriak jarri ditugu hizpide, izan ere Informazioaren aroan gauden honetan, oso-osoan teknologia berriak behar ditugu aipa. Horretan ez da dudarik. *Modus operandi* ezberdinetatik abiatuta ere, badirudi telefono mugikorrak izan direla leherketaren aparatu garrantzitsuenak. Haririk gabeko dinamitak egiten du eztanda XXI. mendeko trenetan. Ekintzen berri e-posta erabiliz ematen da, nahinon, berdin Londresen zein Saudi Arabiako xekeen egunkari batean. Munduak du albiste. Unean berean, denbora errealean.

Gogoeta egiterik dago, zelan ez, Informazioaren aroan. Desinformazioaren aroan. Kanpokoak izan ditugu kontaktari. Etxean gezurra nagusitu delako. Gure lagunek erbestetik, atzerrietatik kontatu digute, etxeko telebistan ikusten genuenaren beste bertsioa. Benetakoa eta ez ofiziala. Ikusten genuena hala ere benetakoa zen; heriotza, odola, gezurra eta zelan ez, euskaldunak. Inprenta baino lehenagokoa, Tim Barners-Leek asmatutako sareko hizkuntza baino antzinakoagoa, Etxeparek inprimatutako berbak baino zaharragoa. Heriotzaren hizkuntza, heriotzaren teknologia aspaldi dago aktibatua. *Modus operandi*-ak aldatu dira. Eta zelan.

Sarea omen nazioarteko terrorismoa ere. Internet hartu dute aintzat mundu osoan barreiatzen diren Inperialismoaren aurkako zelulek. Tokian tokiko zereginetan aritzen dira lanean, ikertzen eta garatzen batzuk, e-business edo komertzio elektronikoan beste zenbait. Koordinatuta, baina dezentralizatuta. Mundu osoan. Estazio bat erori arren,

lan portu bat jausi arren, sareak irauten du, iruten du. Inbestigazio zerbitzuek zail dute sarean sartzen, infiltratu daitezkeela diote, baina ez dute deus harrapatzen. XXI. mendeko antolaketa ereduak dira. *Modus operandi* berriak.

Informazioan ere sarea izan zen gure irailaren 11 honetan nagusi. Ahal izan genuenetan behintzat. Euskaldunok ere telebista eta irrati guztiak izetuta eduki arren, ordenadorearen pantailari so pasatu genituen gure egunak. Bisitariak ginen, informazio emaileak beste batzuetan... hartzaile. Informazioa jasan genuen bezala, saiatu ginen gure ikuspegiak, gure begiradak munduari eskaintzen. Euskal prentsa elektronikoan areagotu egin zen bisitarien kopurua, *Berria*-ko edizio jarraituak halan aitortzen zuen: «Sei aldiz bisita gehiago izan genituen, jeneralean baino. Egunean batez beste 6.500 bisita izaten baditugu, atzo, 38.600 izan genituen». *Argia*-k bikoiztu egin zituen bisitariak: 3.000 bisitari ukan zituen eta 20.000 orri bisitatu. Baina Euskal Herria bere osotasunean informazio eremu gisa hartzen dutenen artean, ezbairik gabe *Gara* egunkariaren edizio elektronikoarena izan zen bisitari gehien hartu zituen zerbitzaria: 150.000 bisitari egun bakar batean. Irudi oro kendu behar izan zuten webgunetik, testu hutsa eskaini eta banda zabalerari eutsi ezinik ibili ziren. Une batzuetan ez zegoen irakurtzerik. Mundua begira. Mundua euskaldunek zer esango. Batzuek eta besteek.

Eta zenbat e-posta mezu trukatu genituen egunotan? Zenbat mezu erantzun? Ase ezinik genbiltzan, informazioaren paradoxa honetan. Sinestezinak dira egunotan bizitakoak. Euskaldun bezala tokatu zaigu bizitzea gertaera latz hau. Euskaldun bezala egin beharko ditugu gogoetok ere. Baina Bitoriano Gandiagak ziozkunez, «Madrilen gauza asko dago ikusteko, gauza asko ikasteko, gauza asko ikusiz ikasteko...». Madril informazioaren esperimentazio gune izan zen. Etsai eta lagun genituen era berean madrildarrak. Agintariak eta herritarrak. Mundu osoko herritar madrildarrak, mundu osorako madrildarrak. Eta flashmob-ak ezagutu genituen bat batean. Surrealistek Internet asmatu aurretik egindako ustekabeko ekintzak hasi ziren gauzatzen. Mezu laburrak telefonoetan, geratzeko pa-

radak. E-postaz igorritako deialdiak. Eta munduari itzulia egin zioten zerbitzaritik zerbitzarira, eta hitzorduak nahi beste, hirietan eta herrietan. Alderdi Popularraren egoitzak. Gogoeta eguna. Gogoetarako egunak. Flash mob, *modus operandi* berriak. Labur idatzi eta azkar geratu. Luze idatzi eta astiro gogoeta egin beharko dugu.

Hurrengogeltokia.com

Iragarki bat da. Euskaraz. Hemen egina, hemen ekoiztua. Trenak barik Bilboko metroaren gunea iragartzen du. Eta euskaraz ere pentsatu dute, asmatu dute. Hori asmatu dutela. Manu Chaoren kantua etorriko zaio burura gazteari, errebeldeari, tren zaharra meatzariari, langileari. Internautak badu non informazioa bildu. Euskaraz eta beste hizkuntzetan. Eredu bat da. Publizitatea, garaiotako boterea, informazioarekin bat, guretzako ere egina. Bidaiariak ere bagara eta. Irudimena euskaraz landuz, Esperantza dugu amets. Euskarazko Internetgintzan ari garenok badugu gogoeta egin beharra. Hurrengo geltokia izan bedi hori. Hortan nahi nuke aritu, trenbidetik lar urrundu barik.

Hiztegia.net

aipatuko dizuet bestela. Gauza xume bat. Oso xumea. Informatika ezagupen barik Patxi Alañak bere Artez enpresan muntatutako zerbitzu bat. Interneten hemen eta han topatu ezinik gabiltzan berba hori zelan idazten den jakiteko gune bat. Eginda dagoena batzeko saiakera bat. Zenbat hiztegi apalategietan, eta bat bera ere ez ordenadore pantailatik gertu. Batu egin dituzte. Hiztegiak batu, hizkuntza batu... zerbait entzuna dugu horretaz. Diru publikoagaz egindako lanok eskura jartzea ariketa xumea bezain ongarrria da. Hiztegia.net erraza da erabiltzeko, hiztegia bezala. Sarriago erabiltzea da kontua, eredu hori aintzakotzat hartzea izango da giltza. Bat egin, batu, batuketa, batzuk.... ezingo naiz azken orrietara heldu.

Google euskal herria

aipatu barik ez dut utzi gura. Google izango da Tim Bar-ners-Leeren deskubrimenduen ostean aurkikuntzarik han-diena. Egunero zenbat aldiz ibiltzen garen jakitea neurtezi-na da. Edukiak bilatzeko manerarik onena, Interneten arra-kasta izateko bidezidorrik azkarrena, non gauden zelan gauden jakiteko neurgailu aproposena. Bada, ez zaio ba-oku mitu galiziar jatorriko 16 urteko katalan bati Google Euskal Herria izeneko mirror edo ispilu bat sortzea? Hori kalapita muntatu dutena euskal multimedia batzuek. 16 urteko mutil bat, independentista bera, Carod Rovira afe-rak oldarturik, Galiziarako google eta Euskal Herrirako goo-gle batzuk sortu ditu. Eta gu, behiak trenari bezala begira. Begira eta orroaka. Hau ez, hobeto litzateke, beharbada... begira baina ezer egin barik. Lezio ederra eman zigun Roi Taboadak, Tarragonatik. Ez genion baina tregoarik eman.

Sagarra

Applek 20 urte bete ditu. Ospatu dituzte macintoshza-leek. Euskaldunok baina, afera latza dugu patenteen, erre-gistroen eta eskubiderik gabeko garai hauetan. Basauriko euskaltzale batek, Joxe Rojasek, azken urteak bere ordena-dorea euskaldundu eta besteoi hori egiteko aukerak eman dizkigunean, non etorri den sagarra, programok euskarat-zeko eduki guztiak kentzeko eskatzen. E-kalapita txiki bat izan da. Agerraldi batzuk telebistan, mezu trukaketa, sala-ketak foroetan... baina macintoshak euskalduntzerik ez da izango. Ez du ezer esan Behatokiak. Horiek ez dira hiz-kuntza eskubideak. Jai daukagu orduan.

Asteon eta Xirika

Bi astekari berri sortu da aspaldion. Biak euskaraz. Biak astero. Biak berri. Biak moderno. Biak paperean. Zein bai-no zeinek argitalpen zabalagoa ukango du. Biek Euskal

Herri osokoak direla diote. Kazetari gazteak dituzte biek aitzindari. Jasone Osoro telebistaz jardun behar den agerkarian izango da. Amets Arzallus eta Goizeder Tabernak kazetaritza gaztea dute helburu. Milaka orri banatuko dira astero. Publiko berriak bilatzen dizkiogu euskarari. Eta hori ondo dago. Baina badituzte zenbait kezka. Banan-banan. *Asteon* aldizkariak kezka sortu zidan hasieran; jarduna. Telebistaz jardun behar du. Bai, euskaldunok telebistaren gainean euskaraz irakurtzeko beharrezana daukagu antza. Telebistaz irakurri. Eta ez dut kontrako iritzirik sumatu. Ez Topagunean bertan, eta irakurleen artean. Ausartuko naiz ba. Telebistak ez du publizitate gehiagorik behar, ez du promozio gehiagorik behar. Hitz egiten al du telebistak aldizkari lokalen gainean? Orduan zertara dator herri aldizkarietan telebistaren jardun behar hori. Uste dut Topaguneak Euskal Herri osorako publikazio bat nahi zuela, eta terreno neutral bat topatu gura izan duela. Politikoki zuzena edo. Baina, komunikazioaren aroan telebistaz jardutera ekiteak neutraltasuna hautsi du, boterearen medioaz jardungo baita paperean eta euskaraz jardun asmo duen agerkari horrek. Zergatik ez du hautatu adibidez astero Internetez aritzea? Etorkizun gehiago du, berria da, laster etxe guztietan izango dugu. Euskarak badu bere beharra, ahula da —euskarazkoa behinik behin—, horizontala da sortzez. Modernoa litzateke, neutroa nahi baduzue. Ez, telebistaz jardutea ebatzi dute. Nik neuk, esperantza gehiago jarriak ditut Interneten telebistan baino. Gure esku dago hori ere.

Xirika gazteek abiatu dute. Kazetari gazteak, enpresa gazte bat, gazte mugimenduko kideak batzuk, gazte kulturalak ezagunak beste batzuk. Euskaraz abiatu dira. Egoitza nagusia Lapurdin daukate, Senperen. Baina medio nazionala da. Euskal Herri osoan normaltasunez banatzen da. Ostegunetan 50 zentimotan eta ostiraletan *Gara* egunkariarekin batera. Kazetaritza gaztea egin asmo dute, gazte albisteak, eta albisten gazte ikuspegia landu. Ametsi entzuna diot, baina hori ez zuen Kazetaritza fakultatean ikasiko. Egiteke dago, egingo dutelakoan nago. Busti naiz. Astero irakurtzen baitut, ostegunero. Beti gazte.

Internet Euskal Herrian

Lehen gogoeta dut hau. Amatiñok bere azkena egin zue-
netik ia urte erdia igaro da. Txanda hartu diot baina bitar-
tean gauza asko gertatu da. Aurrerantzean, Interneten eus-
kaldunok bizi duguna islatu gura nuke datozen agerraldie-
tan. Interneterako gure estrategia zein den, zein behar lu-
keen margotzen saiatuko naiz mezuon bitartez. Euskal
kulturak nondik jo behar duen antza badakigu mundu
errealan, euskara sozializatzeko zein urrats eman behar
diren badaude proposamenak kalean, gizartean, erakunde
edo instituzioetan. Herria zelan eraiki ebazteko batu ohi
dira sindikatuak, alderdiak, gizarte mugimenduak. Ondo
daude bideak oro. Bidea egin beharra dago. Baina Internete-
ten? Informazioaren aroan, zein izango da euskaltzaleon
bidea? Gure kulturak nondik jo behar luke? Informazioa-
ren hizkuntzaren kulturaren gizartean erronkak teknolo-
gia berrietan gauzatzen ari dira nagusiki. Eta ez dut gauza
eta gogoeta askorik ikusi horren inguruan. Ibarretzek ba-
du bere plana, Euskadi Informazioaren gizartean deritzo-
na. Euskadik badu plana. Baina Euskal Herriak? ¶



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jakingunea.com